


# GENERO-BERDINTASUNA LEHEN HEZKUNTZAN ETA DBH-N EUSKADIN



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



**Argitaratzailea: ISEI-IVEI**

Irakas-Sistema Ebaluatu Eta Ikertzeko Erakundea  
Asturias, 9 -3  
48015 Bilbao  
Tel.: 944 76 06 04  
[Info@isei-ivei.net](mailto:Info@isei-ivei.net)  
[www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

*Txostena egin dutenak: Araceli Angulo, Alfonso Caño eta Cristina Elorza  
Aholkularitza eta gainbegiratze teknikoak: José Luis Tranche eta Eduardo Ubieta*

**2017ko apirila**



## AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	7
2. IKERKETA.....	9
2.1. Gaiaren egoera Euskadin .....	11
2.1.1. Hezkuntza- eta prestakuntza-uzte goiztiarra.....	12
2.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzen duen biztanleria-tasa.....	13
2.1.3. Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa amaitzen duen biztanleria-tasa.....	14
2.1.4. Goi mailako titulazioen tasa .....	15
2.1.5. Zientzietako, Matematikako eta Teknologiako titulazioen tasa .....	16
2.1.6. Beste indize batzuk: adin-egokitasuna, berdinen arteko tratu txarrak, banakako ISEK eta ikasleen jatorria .....	17
2.1.7. ED15eko konpetentzietako emaitzetan dauden aldeak.....	20
2.2. Legegintza arloko garapena .....	25
2.3. Hezkidetzan oinarritutako ikastetxearen eredua: nahi dugun ikastetxea .....	27
2.4. Marko teorikoa.....	31
2.5. Metodologia .....	32
2.6. Galdetegien ezaugarriak.....	33
2.6.1. Ikasleentzako testuinguruko galdetegiak .....	33
2.6.2. Zuzendaritza Taldeentzako testuinguruko galdetegia .....	34
3. AZTERKETA DESKRIBATZAILEA .....	35
3.1. Ikastetxe parte-hartzaileen ezaugarriak .....	37
3.2. Parte hartu duten ikasleen ezaugarriak.....	37
4. IKASLEEK BERDINTASUNAREKIKO DUTEN PERTZEPZIOA.....	39
4.1. Pertsonen zaintzari eta etxeko lanei eskainitako denborarekin zerikusia duten ondorioak .....	45
4.2. Pertsonen zaintzari eta etxeko lanei eskainitako denboraren aurrean ikasleek duten jarrerak .....	46
4.2.1. Emaitzak etapen arabera.....	47
4.2.2. Emaitzak sexuaren arabera.....	48
4.2.3. Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera .....	49
4.2.4. Emaitzak ikasleen jatorriaren arabera.....	50
4.2.5. Emaitzak familien tipologiaren arabera .....	51



4.2.6.	Emaitzak familien ikasketa mailaren eta ikasleen ISEK mailaren arabera..	53
4.3.	Gizonei eta emakumeei egindako ezaugarri fisikoen eta nortasun-ezaugarrien esleipenarekin zerikusia duten ondorioak .....	59
4.4.	Ezaugarri fisikoen eta nortasun ezaugarrien esleipena .....	60
4.4.1.	Emaitzak etapen arabera.....	61
4.4.2.	Emaitzak sexuaren arabera .....	61
4.4.3.	Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera .....	66
4.5.	Gizonei eta emakumeei egindako lanbideen esleipenarekin zerikusia duten ondorioak .....	67
4.6.	Lanbideen esleipena.....	68
4.6.1.	Emaitzak etapen arabera.....	69
4.6.2.	Emaitzak sexuaren arabera .....	70
4.6.3.	Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera .....	73
4.7.	Gizonentzako eta emakumeentzako bizitzako aukerekin zerikusia duten ondorioak .....	75
4.8.	Bizitzako aukeren esleipena .....	76
4.8.1.	Emaitzak etapen arabera.....	77
4.8.2.	Emaitzak sexuaren arabera .....	78
4.9.	Berdinen arteko tratu txarren pertzepzioaren ondorioak, behatzen dutenen ikuspegitik .....	85
4.10.	Berdinen arteko tratu txarra behatzen dutenen pertzepzioa .....	86
4.10.1.	Emaitzak etapen arabera .....	87
4.10.2.	Emaitzak sexuaren arabera .....	88
4.10.3.	Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera.....	89
4.10.4.	Emaitzak familien ikasketa mailaren eta ikasleen ISEK mailaren arabera .....	90
4.11.	Berdinen arteko tratu txarren pertzepzioaren ondorioak, biktimen ikuspegitik .....	95
4.12.	Berdinen arteko tratu txarren biktima direnen pertzepzioa.....	96
4.12.1.	Emaitzak etapen arabera .....	97
4.12.2.	Emaitzak sexuaren arabera .....	97
4.12.3.	Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera.....	98
4.12.4.	Emaitzak ikasleen ISEK mailaren arabera .....	99
4.13.	Gelakideen aniztasunaren aurrean neskek eta mutilek dituzten jarrerak .	101
5.	BERDINTASUNA IKASTETXEETAN, ZUZENDARITZA TALDEEN ARABERA .	105



5.1.	Genero-berdintasuna lantzeari buruzko ondorioak, Zuzendaritza Taldeen ikuspegitik .....	107
5.1.	Prestakuntza Planetan lantzen diren gaiak .....	108
5.1.1.	Emaitzak etapan arabera.....	108
5.1.2.	Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera .....	109
5.2.	2014-2015 Ikastetxeko Planean bildutako arloak.....	110
5.2.1.	Emaitzak etapan arabera.....	111
5.2.2.	Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera .....	113
5.3.	Berdintasun-jarduerak ageri diren ikastetxeko dokumentuak .....	115
5.3.1.	Emaitzak etapan arabera.....	115
5.3.2.	Emaitzak hezkuntza-sarearen eta etapan arabera.....	116
5.4.	Ikasleen arteko harremanen kalitatea .....	117
5.4.1.	Emaitzak etapan arabera.....	118
6.	ONDORIO OROKORRAK .....	123
6.1.	Etxean denbora erabiltzearekin zerikusia duten ondorioak .....	123
6.2.	Genero-estereotipoekin zerikusia duten ondorioak .....	123
6.3.	Berdinen arteko tratatu txarrekin zerikusia duten ondorioak.....	124
6.4.	Ikastetxeetan jarduerekin zerikusia duten ondorioak.....	125
7.	GOGOETAK .....	127
8.	BIBLIOGRAFIA.....	131





# 1. SARRERA

Genero-indarkeriari buruzko kezka eta gure gizartean gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren eskaera herrialde eta nazioarteko erakunde gehienetako agenda sozialean eta politikoan dauden gaiak dira. Era berean, hezkuntza arloan, ikasleek genero-indarkeria prebenitzea eta gaitasunen berdintasunezko garapena, generoa, jatorria edo beste edozein ezaugarri pertsonal edozein izanda ere, hauekin lotzen da: ekitatearen lorpenarekin, ikasle bakoitzaren ongizatea eta segurtasuna bermatzearekin, aukera pertsonalak hobetzearekin, eta etorkizunera begira, gizarte berdinzaleagoa, demokratikoagoa, solidarioagoa eta etortzen diren erronkei aurre egiteko prest dagoena lortzearekin.

Gaur egun oraindik, gizartean oro har gertatzen den moduan, ikastetxeetan ere ohikoa izan ohi da neskak diren ikasleen egoera, neurri handi batean, estereotipoetatik eta mitoetatik abiatuta deskribatzea. Neskak diren ikasleak lanak antolatzeke garaian eraginkorragoak direla aitortzen duten balorazioak entzun daitezke, baita oro har lanak egiteko garaian gehiago ahalegintzen direla, hizkuntza-kompetentziak mutilek baino hobeto garatzen dituztela... Era berean, ez da arraroa entzutea mutilak espontaneoagoak eta parte-hartzaileagoak direla, matematikan edo zientzietan hobeak direla, primarioagoak direla eta gelako neskek baino ageriago izan ohi dituztela hormonak.

Agian, balorazio horiek eta beste batzuek errealitateari erantzuten diote neurri batean, eta aipamen horiek egiten dituztenen behatzeko gaitasunean eta esperientzia profesionalean oinarritzen dira horretarako. Beste batzuetan, ikastetxean genero-desberdintasunak ezabatzeko konpromiso pertsonaleko jarreretatik abiatuta egiten dira, baina eskola-unibertsoko egoeren aniztasuna islatzen dute modu osatugabea; aurreiritziek ere eragina izan dezakete, oinarri zientifikoa falta zaie, ez dute arrazoiei buruzko azterketarik egiten, eta gainera, egoera pertsonalak, aldaketak, eta batez ere, desberdintasunak eredu berdinzaleagoetara bideratzeko aukerak alde batera utzi ohi dituzte. Badakigu desberdintasunek ez dutela oinarri biologikoan izaten euskarria, baizik eta pertsonen testuinguru familiarretan, eskolan eta gizartean ikasten direla. Ildo horretatik, argi esan dezakegu berdintasuna ikasi ere egiten dela. Hori izan daiteke hezkidetzan oinarritutako eskolaren ezaugarrietako bat.

Euskadin azterketa monografiko hori egitea planteatua da euskal hezkuntza-sistemako derrigorrezko irakaskuntzako mailetan genero-berdintasuneko egoera diagnostikatzeko lehen saiaketa moduan. Frogatu dugu orain arte mota horretako azterketak oso eskasak izan direla, eta batez ere, derrigorrezko ikasketen osteko mailako edo unibertsitate mailako ikasleei zuzendutako gaietan oinarritutakoak.

Beste arlo sozial, politiko eta ekonomikoetan, bistakoa da gizon eta emakumeen arteko presentzia desberdina, baita sexu bakoitzak duen garrantzi desberdina ere. Hala eta guztiz ere, euskal eskolan, oro har, ikasleak baldintza berberetan egon ohi dira eskolatuta. Hori dela eta, ingurune egokia da aztertu nahi baldin badugu zer neurritan den presentzia hori berdintzailea eta zer neurrira arte ari diren aurrera



egiten beharrezkoa den trantsizio-prozesuan, eskola mistotik eskola hezkidetzailera, alegia.

Helburu horrekin, 2015eko Ebaluazio Diagnostikoa (ED15) diseinatzeko garaian, arreta berezia jarri genion ikasleek eta Zuzendaritza Taldeek berdintasunaren eta genero-indarkeriaren inguruan duten pertzepzioari. Horretarako, testuinguruko galdetegietan gai horrekin zerikusia duten hainbat galdera egin ziren, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen lagin zabalari zuzenduta, baita ikastetxeetako Zuzendaritza Taldeetako kideei bideratuta ere..

Azterketaren helburu nagusietako bat *“hezkidetzan oinarritutako ikastetxe”* hitzekin zer ulertzen den bereizten laguntzea izan da, hau da, berdintasunaren alde lan egiten duen ikastetxea eta genero-indarkeria prebenitu eta horri aurre egiten diona.

Helburu hori asebetetzeko, galdetegietan txertatzeko hainbat arlo garrantzitsu aukeratu genituen. Horrela, ikasleei zuzendutako gaiak diskriminazio edo tratu txar egoeren inguruko informazioa lortu nahi zuten hauen inguruan: sexua edo orientazioa sexuala, zaintzari eta etxeko lanei eskainitako aisialdiko denbora. Gainera, estereotipo pertsonal (ezaugarri fisikoak eta nortasunari buruzkoak) eta profesional batzuen esleipenari buruzko iritziak ere lortu nahi zituzten, baita helduaroan duten etorkizuneko ikuspegiaren ingurukoa ere. Modu osagarrian, zuzendaritza taldeei zuzendutako galdetegiak hauei bideratuta zegoen: batetik, ikastetxeetan hezkidetzan oinarritutako eskola-eredua aurrera eramateko egindako jarduerak, dokumentuak eta protokoloak bereiztea, eta bestetik, ikastetxeetan nesken eta mutilen berdintasunaren inguruan duten pertzepzioa ezagutzea.

Amaitzeko, adierazi nahi dugu azterketak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatutako *Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean* planteatutako eskaeretako bati erantzuten diola.





## 2. IKERKETA





## 2.1. Gaiaren egoera Euskadin

ELGA-OECDk 2015ean argitaratu zuen “Hezkuntzan genero-berdintasunaren gida. Gaitasunak, jokabidea, konfiantza” txostenean, neskek eta mutilek PISA duten errendimenduetan lotutako adierazleak eta datuak aztertzen dira, baita hezkuntza berdintasunak duen bilakaera, faktore batzuetan oraindik ere badagoen arraila murrizteko bide posibleak eta prozesu honetan gizarteak oro har eta bereziki familiak duen esku-hartzea ere, eta horiez gain, noski, baita hezkuntza-eragilearen inplikazioa ere.

ELGAK berak, indar-ideia batzuen bidez, adierazi du aldeak daudela 2012ko PISA ebaluazio-probetan parte hartu zuten 16 urteko nesken eta mutilen artean<sup>1</sup>:

- 15 urteko adinarekin, matematikan, irakurketan eta zientzietan errendimendu baxua duten ikasleen % 60 mutilak dira, % 40 neskek dira.
- Nesken % 75 inguruk adierazi dute dibertitzeko irakurtzen dutela, eta mutilen % 50ek adierazi du hori.
- Irakurketan, neskek hobeak dira mutilak baino herrialde guztietan.
- Mutilen % 20k ordenagailu-jokoak erabiltzen dituzte taldean egunero; nesken % 2k egiten dute hori.
- Neskei – baita ikaslerik onenei ere – konfiantza falta zaie matematikan. 3 nesketatik 2k eta 2 mutiletatik 1ek adierazi dute askotan kezkatzen direla, matematikako eskolak zailak egingo zaizkien beldur direlako.
- Neskek baino lau aldiz mutil gehiagok pentsatzen dute ingeniarietako edo informatikako ibilbide profesionala egitea. Hala eta guztiz ere, herrialde desberdinen artean, jarrerak nabarmen aldatzen dira.
- Familiek nahi dutena da batez ere mutilek (neskek baino gehiago) egitea zientzietako, teknologiatik, ingeniarietako edo matematikako karrera bat.

Bistakoa da Europan, eta beraz, Euskadin, hezkuntzan eta enpleguan hobekuntza adierazgarria gauzatu dela, betiere, dagoen arraila saihesteko eta eremu horietan emakumeak guztiz txertatzea ahalbidetzeko. Hala eta guztiz ere, lan arloan desberdintasun-faktoreak badira oraindik ere (enplegu berberetan soldata desberdina, kristalezko sabaia, jazarpena ..., baita etxean ere (gizonezkoek zaintza-lanak bere gain hartze mantsoa, aitatasun-baimenen onarpen eskasa...).

Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko<sup>2</sup> Genero Berdintasunaren Indizea, EUSTAT eta EMAKUNDEren artean egindakoa, 58,5 puntutan ezarri da eta Europar

<sup>1</sup> OECD (2015): *Genero-berdintasunaren gida hezkuntzan*. Jarrera, Jokabidea eta Konfiantza. (<http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/internacional/2cleanpisa-infographic-gender-ideas.pdf?documentId=0901e72b81c80713>).

<sup>2</sup> Sei dimentsiotatik (enplegua, dirua, ezagutza, denbora, boterea eta osasuna) abiatuta egin da kalkulua, horietako bakoitzari haztatutako garrantzia emanez. Euskadiko genero-berdintasuneko baliorik altuenak osasuna, dirua eta enplegua dimentsioetan lortzen dira. Osasuneko dimentsioa da genero desberdineko pertsonen artean guztizko berdintasunera gehien gerturatu dena; hala eta guztiz ere, kasu honetan, desberdintasun arina emakumeen egoera hobeari zor zaio. Beste muturrean, denboraren erabilera lortu da desberdintasunik handiena. Hala eta guztiz ere, saikapeneko postu on horrek ezin du ezkatatu



Batasuneko herrialdeetako egoerekin alderatzea ahalbidetu du. Indize horrek Euskadi bosgarren postuan kokatu du Euskadi Europar Batasuneko herrialdeen artean, Belgikaren gainetik zertxobait. Horrek esan nahi du bosgarren postuan dagoela Europar Batasuneko herrialdeekin alderatuta. Euskadiko Autonomia Erkidegoa Suedia, Finlandia, Danimarka eta Herbeheretatik distantzia pixka baten atzetik kokatzen da, baina EBko gainerako 24 kideen aurretik eta Europako batez bestekoaren oso aurretik (53,6).

Hala ere, egindako lorpen guztiak eginda ere, hezkuntza-arloan arraila berriak ari dira zabaltzen. Mutilek neskek baino lehenago jarraitzen dute eskola uzten, eta konpetentzien eta titulazioen ekarpen baxuagoarekin, ikastetxeko egonaldia gutxiago baloratzen dute, eta gero eta kasu gehiagotan, denbora-galeratzat hartzen dute. Bestalde, hezkuntza maila altuenetan, emakumeek behar baino ordezkartza maila txikiagoa dute, espezialitate zientifiko-teknologikoetan unibertsitateko titulazioak dituzten emakume gutxiago daude eta emakume gutxiak egiten dituzte tradizionalki gizonezkoenak diren Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak...

Atal honetan zehar, ISEI-IVEIk egindako sexuan arteko aldeekin lotuta, euskal hezkuntza-sistemako hainbat adierazleren zenbait arlo aztertuko ditugu.

### **2.1.1. Hezkuntza- eta prestakuntza-uzte goiztiarra**

Euskadi da eskolatze goiztiar tasarik altuena duen autonomia erkidegoetako bat (mutilen eta nesken ia % 100 bi urtetik hasita daude ikasgeletan eskolatuta), baita Espainiako eta Europako eskola-uzte goiztiarrarekin lotuta tasarik baxuenak dituenetako bat ere.



**1. TAULA: Eskola-uzte goiztiarraren bilakaera Euskadin, sexuaren arabera**

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea <sup>3</sup>
2000	14,7	19,8	9,5	10,3
2001	14,7	20,1	9,0	11,1
2002	13,4	17,3	9,3	8,0
2003	15,9	20,5	11,0	9,5
2004	13,8	18,7	8,5	10,2
2005	14,7	19,2	9,9	9,3
2006	14,6	20,3	8,7	11,6
2007	14,3	18,7	9,8	8,9
2008	14,8	18,1	11,3	6,8
2009	16,6	21,7	11,5	10,2
2010	13,1	13,7	12,6	1,1
2011	13,8	14,2	13,4	0,8
2012	12,4	13,0	11,8	1,2
2013	9,9	12,4	7,3	5,1
2014	9,4	11,8	7,0	4,8

Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketak garaia baino lehen utzi dituzten 18-24 urte arteko biztanleriaren uzte-tasek mailaz maila behera egin dute azken 15 urteetan<sup>4</sup>. 2014an, eskola-uztearen batez besteko tasa % 9,4koa izan zen; gizonen kasuan % 11,8koa izan zen eta emakumeen kasuan % 7,0koa. 2020rako Europar Batasunak lortu beharreko batez besteko helburua % 10ekoa dela kontuan hartuta, esan genezake dagoeneko lortu dela helburu hori batez besteko tasari eta neskei dagokienez, baina ez mutilen kasuan.

**2.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzen duen biztanleria-tasa**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako<sup>5</sup> datuak aztertzean, sexu-aldaeraren arabera, ikusten da neska adina mutil dagoela matrikulatuta, eta nahiz eta 2000-2001 ikasturtean mutilek baino (% 77) neska gehiagok (% 84,2) titulua ateratzen zuten, 2012-2013 ikasturtean alde horiek laburtu egin dira. Hala eta guztiz ere, nesken (% 92,9) eta mutilen (% 89) artean % 4 puntuko aldea dago oraindik ere. Neskek

<sup>3</sup> Balio positiboek adierazten dute emakumeek baino gizon gehiagok uzten dituztela ikasketak garaia baino lehenago. Datuak kontuz aztertu behar dira; izan ere, lagin tamaina txikietatik eratorritakoek laginketako errore handiak dituzte. (OHARRA: serie osoa BAI-2005 metodologiarekin dago kalkulatuta: 2000-2005 aldia (urte bakoitzeko 4 hiru hilekoetako batez bestekoa eta araututako eta arautu gabeko ikasketak egiten ez dituzten pertsonak).

<sup>4</sup> Ikus ISEI-IVEIren adierazle-sistema. *RS5 Eskola-uzte goiztiarra*. EInen (Estatistikako Institutu Nazionala) datuetan oinarrituta. BAI-2006 metodologia.

<sup>5</sup> Ikus ISEI-IVEIren adierazle-sistema. *RS3 Emaitza akademikoak DBH amaitzean*). Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzaren datuetan oinarrituta.



(% 74,4) mutilek baino (% 65,5) proportzio handiagoan gainditzen dituzte arlo guztiak. Edonola ere, mutilek eta neskek 2012-2013 ikasturtean 2000-2001 ikasturtean baino gehiago gainditzen dute eta gehiagok ateratzen dute titulua.

**2. TAULA: Titulua lortu duten eta ikasgai guztietan gainditua kalifikazioa lortu duten DBHko 4. mailan eskolatutako ikasleek metatutako ehunekoa, sexuaren arabera**

	Matrikulazioen %		Titulazioen %		Ikasgai guztietan gainditua dutenen %	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
2000-2001	49,5	50,5	84,2	77,0	64,5	53,1
2001-2002	50,0	50,0	84,6	78,1	64,2	54,1
2002-2003	49,7	50,3	85,5	79,3	64,2	53,8
2003-2004	50,4	49,6	87,9	83,5	69,4	57,9
2004-2005	50,8	49,2	89,6	83,9	70,0	57,6
2005-2006	51,5	48,5	88,8	84,4	69,1	58,8
2006-2007	50,8	49,2	89,6	84,8	69,7	59,9
2007-2008	50,4	49,6	91,5	87,8	71,1	62,1
2008-2009	50,0	50,0	91,4	87,7	70,4	61,4
2009-2010	51,0	49,0	92,4	89,7	73,0	65,3
2010-2011	49,6	50,4	92,8	89,6	73,3	65,5
2011-2012	50,3	49,7	92,5	88,8	73,5	64,9
2012-2013	49,9	50,1	92,9	89,0	74,4	65,5

### 2.1.3. Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa amaitzen duen biztanleria-tasa

Herrialde bateko beste ekitate-adierazleetako bat derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo titulazioak, goi mailakoak edo unibertsitatekoak lortzen dituzten gazte kopurua da.

Europar Batasunak 2020rako duen helburua da derrigorrezko ikasketen osteko ikasketen titulazioak (Batxilergoa edo Lanbide Heziketako Erdi Mailako titulazioa) dituzten pertsonen % 85eko kopurura behintzat iristea. 2014. urtera arte<sup>6</sup>, 20 eta 24 urte arteko Euskadiko biztanleriak, titulazio horrekin, gutxienez % 81,6ko batez bestekoa lortu zuen. Emakumeen tasa % 85,4koa zen, eta gizonena, % 77,8koa. Azken urteetan, gizon eta emakumeen arteko aldea murrizten ari zen, baina azkenaldian, alde horrek gora egin du berriz ere.

<sup>6</sup> Ikus ISEI-IVEIren adierazle-sistema. RS8. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo ikasketak amaitzea. EINen (Estatistikako Institutu Nazionala) datuetan oinarrituta. BAI-2006 metodologia.



**3. TAULA: Bigarren Hezkuntzaren Ondoa graduatutako Euskadiko biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera**

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea <sup>7</sup>
2000	81,5	75,7	87,6	11,9
2001	81,4	76,4	86,5	10,1
2002	80,9	78,6	83,4	4,8
2003	78,3	73,2	83,7	10,5
2004	81,5	77,7	85,5	7,8
2005	81,0	76,3	86,0	9,7
2006	81,2	75,3	87,3	12,0
2007	80,8	75,3	86,6	11,3
2008	80,1	75,0	85,4	10,4
2009	76,9	69,3	84,7	15,4
2010	80,1	78,8	81,4	2,6
2011	78,5	76,9	80,1	3,2
2012	80,0	77,6	82,3	4,7
2013	84,7	82,9	86,4	3,5
2014	81,6	77,8	85,4	7,6

Jadanik, emakumeen tasa % 85ekoa baino altuagoa da. Derrigorrezko hezkuntzaren osteko titulazioa duten gizonezkoen tasak ez du Europar Batasunaren helburua inola ere lortu 2000. urtetik.

#### 2.1.4. Goi mailako titulazioen tasa

Goi mailako titulazioetan Europar Batasunak 2020rako ezarritako tasa, bai lanbide-heziketari, bai unibertsitatearekin dagokionez, % 40koa da 30 eta 34 urte arteko biztanleriarentzat. Euskadik kopuru hori erraz gainditu zuen 2014an<sup>8</sup>, bai gizonezkoen artean (% 53,2), bai emakumezkoen (% 63,8) artean; hala ere, bi sexuen artean, ehunekoaren aldea handia da (% 10,6 emakumeen alderako).

<sup>7</sup> Balio positiboek adierazten dute gizonezkoak baino emakumezko gehiago graduatzen dela Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketetan. Urte datuak BAI-2005 metodologiarekin daude kalkulatuak.

<sup>8</sup> Ikus ISEI-IVEIren adierazle-sistema. RS11. *Goi Mailako Hezkuntzan tituludunak (unibertsitatekoa eta unibertsitatekoa ez dena)*. EUROSTATen datuetan oinarrituta.



**4. taula: Euskadin Goi Mailako Hezkuntzako titulua duen biztanleriaren ehunekoaren (30-34 urte) bilakaera, sexuaren arabera**

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea <sup>9</sup>
2000	44,6	42,6	46,6	4,0
2001	44,9	43,7	46,2	2,5
2002	45,9	46,0	45,8	-0,2
2003	48,8	47,0	50,6	3,6
2004	50,8	50,3	51,4	1,1
2005	55,8	54,6	57,1	2,5
2006	56,1	50,4	62,3	11,9
2007	59,3	51,8	67,4	15,6
2008	57,9	53,7	62,4	8,7
2009	62,2	57,5	67,3	9,8
2010	59,8	55,7	64,1	8,4
2011	60,6	59,0	62,3	3,3
2012	60,8	57,0	64,7	7,7
2013	61,3	55,7	67,0	11,3
2014	58,5	53,2	63,8	10,6

### 2.1.5. Zientzietako, Matematikako eta Teknologiako titulazioen tasa

Mundu profesionalean gizon eta emakumeen arteko arraila islatu ohi duen beste adierazleetako bat arlo zientifiko-teknologikoko ikasketen aukeraketarekin zerikusia duena da.

Hirugarren mailako edo goragoko ikasketak, Lanbide Heziketako Goi Mailako edo Unibertsitateko ikasketak dituen 20 eta 29 urte arteko biztanleriak 2012an Matematikan, Zientzian eta Teknologian izandako datuak ageri dira 5. taulan<sup>10</sup>: data horretan, 6.010 pertsona zeuden graduatuta. Horrek esan nahi du titulazio horiek dituzten guztizkoaren % 28,2ko batez besteko tasa, eta horien artean, % 17,5 emakumeak ziren eta % 38,5 gizonak. Hau da, % 21eko aldea zegoen gizonen mesedetarako. Emakumeek neurri txikiagoan aukeratu ohi dituzte espezialitate zientifiko-teknologikoak; hala ere, emakume gehiagok lortu ohi dituzte goi mailako hezkuntzako titulazioak.

<sup>9</sup> Balio positiboek adierazten dute Goi Mailako Hezkuntzako titulua dutenen artean emakumeak gehiago direla gizonezkoak baino, eta balio negatiboek adierazten dute gizonezko gehiago daudela. 2002an seriearen haustura izan zen. Zenbait diferentzian, kenketa ez dator bat zehatz-mehatz. Batez besteko puntuazioak biribiltzerakoan hamarrenak doitzeak eragin du hori.

<sup>10</sup> Ikus ISEI-IVEIren adierazle-sistema. *RS7. Zientzietan, Matematikan eta Teknologian graduatuak*. EUSTAT eta EUROSTATen iturrietan oinarrituta.





**5. TAULA: Matematikan, Zientzietan eta Teknologian goi mailako titulazioa duten 20-29 urte arteko biztanleriaren tasaren bilakaera (mila biztanleren arabera (mila biztanleren arabera pertsonak), sexuaren arabera**

Ikasturtea	Pertsona tituludunen guztizko kopurua	20-29 urte arteko biztanleria	MILA BIZTANLEREN ARABERAKO TASA (‰)			Aldeak G-E
			GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak	
2000	6.871	339.699	<b>20,2</b>	29,1	10,9	18,2
2001	7.921	333.405	<b>23,8</b>	33,7	13,3	20,4
2002	7.980	324.688	<b>24,6</b>	35,3	13,3	22,0
2003	7.940	314.252	<b>25,3</b>	35,2	14,8	20,4
2004	7.811	298.907	<b>26,1</b>	36,6	15,1	21,5
2005	7.755	291.695	<b>26,6</b>	37,2	15,4	21,8
2006	7.587	275.686	<b>27,5</b>	38,0	16,5	21,5
2007	7.240	266.208	<b>27,3</b>	38,1	15,8	22,3
2008	7.103	255.286	<b>27,8</b>	38,6	16,6	22,0
2009	6.485	243.452	<b>26,6</b>	36,9	15,9	21,0
2010	6.830	232.149	<b>29,4</b>	41,2	17,3	23,9
2011	6.955	222.330	<b>31,3</b>	45,3	16,8	28,5
2012	6.010	213.349	<b>28,2</b>	38,5	17,5	21,0

### 2.1.6. Beste indize batzuk: adin-egokitasuna, berdinen arteko tratu txarrak, banakako ISEK eta ikasleen jatorria

Hauek dira Ebaluazio Diagnostikoetako txostenetan ikastetxeei ezagutzera emandako indizeetako batzuk: berezko adin-egokitasunaren ehunekoa eta EAEko batez bestearekin zerikusia duena, *bullying*aren edo jazarpenaren indizea (berdinen arteko tratu txarraren biktimak direla dioten ikasleak), ikaslearen banakako indize sozioekonomikoa eta kulturala eta jatorriz etorkinak diren ikasleen ehunekoa.




6. TAULA: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa zenbait aldagaitan, sexuaren arabera						
Aldagaiak		Neskek		Mutilak		Mutilen eta nesken arteko aldeak*
		Zk.	%	Zk.	%	
<b>Adin-egokitasun egoera</b>	Ez egokia	819	8,0	1.138	10,5	<b>2,6</b>
	Egokia	9.465	92,0	9.685	89,5	
<b>Banakako ISEK</b>	Maila baxua	2.376	24,5	2.569	25,4	<b>0,9</b>
	Maila ertaina-baxua	2.478	25,6	2.478	24,5	<b>-1,0</b>
	Maila ertaina-altua	2.451	25,3	2.502	24,8	<b>-0,5</b>
	Maila altua	2.392	24,7	2.556	25,3	<b>0,6</b>
<b>Bullyingaren indizea</b>	Tratu txarrak jaso gabea	2.250	70,2	2.110	62,4	<b>-7,8</b>
	Tratu txarrak jasotakoa	956	29,8	1.271	37,6	
<b>Jatorria</b>	Sorterrikoa	9.101	93,9	9.523	94,2	<b>0,4</b>
	Etorkina	596	6,1	582	5,8	

OHARRA: Balioa positiboa baldin bada, esan nahi du dagokion ehunekoa mutiletan handiagoa dela nesketan baino.

Errepikatu dutenen edo adinari dagokionez ikasmilan ez daudenen artean mutilen kopurua neskena baino % 2,6 altuagoa da. Berdinen arteko tratu txarren egoeraren bateko biktima izan dela aitortu duten ikasleen ehunekoa % 7,8 altuagoa da Lehen Hezkuntzako 4. mailako mutilen artean nesken artean baino.

Hurrengo grafikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako nesken eta mutilen artean aurrez adierazitako indizeekin lotuta dauden aldeak ikus daitezke.

2.1.6. a grafikoa. ED15ean, LHko 4. mailan banakako aldagai batzuetan mutilen eta nesken arteko aldeak.



Jarraian datorren taulan DBHko 2. mailako mutilen eta nesken artean ikastetxeetara balditzen diren indize batzuetan dauden aldeak ikus daitezke.




7. TAULA: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa zenbait aldagaitan, sexuaren arabera						
Aldagaiak		Neskak		Mutilak		Mutilen eta nesken arteko aldeak*
		Kop.	%	Kop.	%	
<b>Adin-egokitasun egoera</b>	Ez egokia	1.520	16,6	2.310	23,5	<b>6,9</b>
	Egokia	7.654	83,4	7.538	76,5	
<b>Banakako ISEK</b>	Maila baxua	2.137	24,4	2.370	25,5	<b>1,1</b>
	Maila ertaina-baxua	2.124	24,3	2.386	25,7	<b>1,4</b>
	Maila ertaina-altua	2.204	25,2	2.311	24,9	<b>-0,3</b>
	Maila altua	2.282	26,1	2.225	23,9	<b>-2,1</b>
<b>Bullyingaren indizea</b>	Tratu txarrak jaso gabea	2.446	86,2	2.540	82,5	<b>-3,7</b>
	Tratu txarrak jasotakoa	391	13,8	537	17,5	
<b>Jatorria</b>	Sorterrikoa	8.022	91,7	8.543	91,9	<b>0,2</b>
	Etorkina	725	8,3	749	8,1	

\* OHARRA: Balioa positiboa baldin bada, esan nahi du dagokion ehunekoa mutiletan handiagoa dela nesketan baino.

Errepikatu dutenen edo adinari dagokionez ikasmilan ez dauden artean mutilen kopurua neskena baino % 7 altuagoa da. Berdinen arteko tratu txarren egoeraren bateko biktima izan dela aitortu duten ikasleen ehunekoa % 3,7 altuagoa da DBHko 2. mailako mutilen artean nesken artean baino.

Hurrengo grafikoan, DBHko 2. mailako mutilen eta nesken artean aurrez adierazitako indizeekin lotuta dauden aldeak ikus daitezke.

**2.1.6.b. grafikoa. ED15ean, DBHko 2. mailan banakako aldagai batzuetan mutilen eta nesken arteko aldeak.**





## 2.1.7. ED15eko kompetentzietako emaitzetan dauden aldeak

### 2.1.7.1. ED15ean LHko 4. mailako ikasleen emaitzak, sexuaren arabera

Hurrengo taula honek Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilek ED15ean ebaluatutako kompetentzia bakoitzean lortutako puntuazioa erakusten du, baita emaitzen adierazgarritasuna dagoen ala ez ere:

8. TAULA: LH4. ED15ean kompetentzietan lortutako puntuazioak, sexuaren arabera					
Kompetentziak	EAE	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarritasuna
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	248	252	245	+7	Bai
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	256	255	257	-2	Bai
Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	247	250	245	+5	Bai
Matematikarako kompetentzia	248	246	250	-4	Bai
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia	238	241	234	+7	Bai

Bai: % 95eko alde adierazgarria.

Euskarazko eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan eta Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzian nesken errendimendua mutilena baino askoz altuagoa da. Aldiz, mutilek neskek baino errendimendu altuagoa lortu dute Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian eta Matematikarako kompetentzian.



### 2.1.7.2. ED15ean DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak, sexuaren arabera

Hurrengo taulan, ED15ean ebaluatutako bost konpetentzietan lortutako emaitzen arteko alderaketa ikus daiteke, ikasleen sexuaren arabera.

9. TAULA: DBH2. ED15ean konpetentzietan lortutako puntuazioak, sexuaren arabera					
Konpetentziak	EAE	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarritasuna
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	249	255	242	+13	Bai
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	253	256	251	+5	Bai
Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	251	257	245	+12	Bai
Matematikarako konpetentzia	246	245	247	-2	Bai
Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia.	241	243	239	+4	Bai

Bai: % 95eko alde adierazgarria.

Nesken errendimendua handiagoa da mutilena baino ebaluatutako hiru Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan eta Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian. Matematikarako konpetentzian mutilek neskek baino emaitza hobek lortzen dituzte.

### ✚ Kanpoko probetako errendimenduaren eta ikastetxeetako noten arteko erlazioa DBHko 2. mailako nesken eta mutilen artean

Badakigu ikasleen ezaugarri sozioekonomikoak, ikaskuntza-inguruneak eta irakasleen jokabideak ikasle horien errendimenduan genero-arrailekin lotuta daudela. Parekoen eragina desberdina izan daiteke mutilen eta nesken artean. Behaketak eta elkarrizketak egin dituzten zenbait azterketaren arabera, mutilek askotan sentitzen dute beren identitate maskulinoarekiko kontrakoa eta desegokia dela ikastetxearekiko interesa erakustea. Hala eta guztiz ere, neskei seguruenik, arrakasta gutxi duten talde berekoek gutxiago eragiten die mutilei baino; baina seguruenik, Matematikan arrakasta izateko eta Matematikako eskolak aukeratzeko probabilitateari dagokionez, neurri batean, beren inguruko beste nesken jokabideak eragina izango du<sup>11</sup>.

Aurreko ondorioak kontua hartuta, jarraian, mutilen eta nesken artean dauden aldeak azterketa ageri da bi emaitza motatan:

- Mutilek eta neskek lortutako ikastetxeetako notak EDn ebaluatutako konpetentziekin zuzenean lotutako arloetan (Euskara, Gaztelania, Matematika, Ingelesa eta Zientziak). Kasu honetan, puntuazioak 0 eta 10 puntu artekoak dira. Informazio hori ikasleek eskaini zuten testuinguruko galdetegian.

<sup>11</sup> ELGA. The ABC of... (op. cit. 141. or.)



- ED15ean neurtutako bost konpetentzietan sexu bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa. Kasu honetan, batez besteko puntuazioa 250ekoa da eta estandarizatutako kanpoko ebaluaziotik dator.

10. TAULA: DBHko 2. mailako ikasleek ED15ean lortutako emaitzen eta ikastetxeko noten arteko erlazioa, sexuaren arabera					
		Neskak	Mutilak	Nesken eta mutilen arteko aldea	Nesken gaineko %*
EUSKARA	Batez besteko nota Euskaran	6,9	6,2	0,7	11,29
	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez bestekoa	255,4	242,3	13,1	5,41
GAZTELANIA	Batez besteko nota Gaztelanian	7,0	6,4	0,6	9,37
	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez bestekoa	256,4	250,7	5,7	2,27
INGELESA	Ingeleseko batez besteko nota	7,1	6,5	0,6	9,23
	Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez bestekoa	257,4	245,1	12,3	5,02
Matematika	Matematikako batez besteko nota	6,7	6,5	0,2	3,08
	Matematikarako konpetentziako batez bestekoa	244,9	247,0	-2,1	-0,85
Zientziak	Natura-zientzietako batez besteko nota	7,0	6,6	0,4	6,06
	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziako batez bestekoa	242,5	239,5	3,0	1,25

Oharra: Itzaldura handiena duten laukiek dituzte puntuaziorik onenak.

\* Aldeak neskekiko daude kalkulatuta.

Taulan ikus daitekeen moduan, sexuen arteko aldeetatik abiatuta aztertzen direnean, ikasgaien eta konpetentzien jokabidea antzekoa da; hala ere, alde interesgarri batzuk ikus daitezke:

Konpetentzia guztietan, mutilen eskola-kalifikazioak neskenak baino baxuagoak dira. Honako hau litzateke azalpen posible bat: ikastetxeetako balorazioetan, kanpo-ebaluazioetan ez bezala, ikasle bakoitzak dituen ezagutzez edo gaitasunez gain, beste



faktore batzuk ere badaude jokoan, hauek esate baterako: ingurunera egokitzeko gaitasuna, laneko edo ahaleginerako maila, ikasgelako jokabidea...

- a) Ebaluatutako bost ikasgaietan eta konpetentzietan (Euskara, Gaztelania, Ingelesa eta Zientziak), ED15eko emaitzetan eta gelan aurretik lortutako notetan neskek lortutako emaitza mutilek lortutakoaren gainetik dago. Matematikan soilik ez dago bi emaitzen arteko bat-egiterik.
- b) Hala ere, aipatutako emaitzak batak besteari gainditutako ehunekoa kontuan hartuta ikasgai bakoitzean edota konpetentzian aztertzen baldin badira, honako hau ikusiko genuke:
  - Euskarako notetan, neskek mutilek baino % 11,29 puntuazio altuagoak lortu dituzte; aldiz, ED15eko emaitzetan % 5,41 emaitza altuagoak lirateke.
  - Gaztelaniaren kasuan, neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituzte gelako notei dagokienez, % 9,37 gehiago alegia; hala eta guztiz ere, Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzetan, neskek mutilek baino % 2,27 gehiago lortuko lukete.
  - Ingelesean, ED15ean ebaluatzen den hizkuntza-komunikaziorako hirugarren konpetentzian ere, neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituzte. Notetan % 9,23 gainditu dute; aldiz, proba estandarizatu eta kanpokoetan, gainditze-tasa % 5,02koa da.
  - Zientzietan, lehen adierazitakoaren antzeko zerbait nabari da: neskek akademikoki emaitza hobeak lortzen dituzte (% 6,06); aldiz, ED15ean, alde hori % 1,25ekoa da.
  - Azkenik, matematika esparruan deigarria den zerbait gertatzen da. Ikastetxeetako emaitzetan, neskek ikasgelako kideak gainditzen dituzte % 3,08ko tasarekin; ED15eko Matematikarako konpetentziako emaitzetan, ez dituzte mutilak gainditzen; alderantziz, mutilek gainditzen dituzte neskak ia % 1eko puntuazioarekin (% 0,85).

Esan liteke DBHko 2. mailako neskek mutilek baino balorazio altuagoa dutela hemen adierazitako ikasgai guztietan. Aldiz, kanpo-ebaluazioetako errendimenduan, EDetan esate baterako, ez dute beti aldeko marjina hori mantentzen.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan gertatzen dena aztertzen baldin bada, honako hau ikus daiteke:



**11. TAULA: LHko 4. mailako ikasleek ED15ean lortutako emaitzen eta ikastetxeko noten arteko erlazioa sexuaren arabera**

		Neskak	Mutilak	Nesken eta mutilen arteko alde	Nesken gaineko %*
Euskara	Batez besteko nota Euskarari	3,5	3,3	-0,2	<b>-6,76</b>
	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez bestekoa	251,9	244,8	-7,1	<b>-2,92</b>
GAZTELANIA	Batez besteko nota Gaztelanian	3,7	3,5	-0,2	<b>-5,20</b>
	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez bestekoa	254,8	257,0	2,2	<b>0,84</b>
INGELESA	Ingeleseko batez besteko nota	3,7	3,5	-0,2	<b>-6,39</b>
	Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez bestekoa	250,5	244,6	-5,9	<b>-2,40</b>
Matematika	Matematikako batez besteko nota	3,6	3,7	0,2	<b>4,18</b>
	Matematikarako kompetentziako batez bestekoa:	246,5	250,0	3,6	<b>1,42</b>
Zientziak	Natura-zientzietako batez besteko nota	3,7	3,6	-0,1	<b>-3,18</b>
	Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren kompetentziako batez bestekoa	241,3	234,3	-7,0	<b>-2,98</b>

Oharra: Itzaldura handiena duten laukiek dituzte puntuaziorik onenak.

\* Aldeak neskekiko daude kalkulatuak.

- Ebaluatutako bost arloetatik eta kompetentzietatik hiritan (Euskara, Ingelesa eta Zientziak), ED15eko emaitzetan eta gelan aurretik lortutako notetan neskek lortutako emaitza mutilek lortutakoaren gainetik dago. Hala eta guztiz ere, Matematikan, mutilek, bi neurrietan puntuazio altuagoak dituzte, eta Gaztelanian, neskek ikastetxeko nota hobeak dituzte eta mutilek emaitza hobeak ED15ean.
- Hala ere, aipatutako emaitzak bata besteari gaitutako ehunekoa kontuan hartuta arlo bakoitzean edota kompetentzian aztertzen baldin badira, honako hau ikusiko genuke:





- Euskarako notetan, neskek mutilek baino % 6,76 puntuazio altuagoak lortu dituzte; aldiz, ED15eko emaitzetan % 2,92 emaitza altuagoak lirateke.
- Gaztelaniaren kasuan, neskek mutilek baino emaitza hobekak lortuko lituzkete gelako notei dagokienez, % 5,2 gehiago alegia; hala eta guztiz ere, ED15ean, Gaztelaniako hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzetan, mutilen ia % 1ek (% 0,84) neskek baino emaitza altuagoak lortuko lituzkete.
- Ingelesean, ED15ean ebaluatzen den hizkuntza-komunikaziorako hirugarren kompetentzian ere, neskek mutilek baino emaitza hobekak lortu dituzte. Notetan % 6,39 gainditu dute; aldiz, proba estandarizatu eta kanpokoetan, gainditze-tasa % 2,40koa da.
- Zientzietan, neskek, akademikoki, emaitza hobekak lortzen dituzte (% 3,18); aldiz, ED15ean, % 2,98an gainditu dituzte notak. Esan liteke ED15eko emaitzak ikastetxean lortutako emaitzetara gehien hurbiltzen diren kompetentzia dela.
- Azkenik, Matematikan, 9-10 urteko haurrek lortu dituzte emaitzarik onenak, bai ikastetxeko notetan, bai kanpoko probetan; gainera, batzuen eta besteen proportzioa ez da oso desberdina: % 3,18 mutil gehiagok lortzen dituzte ikastetxeetako nota hobea, eta Matematikarako kompetentzian ia % 3 punturekin (% 2,98) gaindituko lituzkete gelakideak.

Esan liteke DBHko 2. mailako neskek mutilek baino balorazio altuagoa dutela hemen adierazitako arlo guztietan. Aldiz, kanpo-ebaluazioetako errendimenduan, EDetan esate baterako, ez dute beti aldeko marjina hori mantentzen. Matematikan, mutilen % 4k baino zertxobait gehiagok lortu dituzte ikastetxeko puntuaziorik onenak; hala eta guztiz ere, ED15ean, kompetentzia horretan, nagusitasun-tasa % 1,42koa da. Arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke.

## 2.2. Legegintza arloko garapena

Euskal Autonomia Erkidegoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak<sup>12</sup>, 16. artikuluan, hainbat agindu ditu; horietan, erakunde publiko guztiei dei egiten die modu eraginkorrean bermatu behar dutela genero-ikuspegia azterketak eta estatistikak egiteko garaian:

- Estatistiketan, inkestetan eta datuen bilketan sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea.
- Balioetan, roletan, egoeretan, baldintzetan, asmoetan eta gizon eta emakumeen beharretan aldean ezagutza hobea ahalbidetuko duten adierazle berriak ezartzea.

<sup>12</sup> 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EHAAn argitaratua, 42. zk., 2005eko martxoaren 02koa.



- Beste aldagai batzuen gertakaria ezagutzea ahalbidetzen duten adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta txertatzea; horren konkurrentzia diskriminazio anitzeko egoeren sortzailea da.
- Txertatutako aldagaiak sexu-aldagaiaren arabera ustiatu eta aztertzeke moduko lagin zabalak egitea.
- Datuak ustiatzea honako helburu honekin: gizon eta emakumeen egoera desberdinak, baldintzak, nahiak eta beharrak ezagutzea.
- Dauden definizio estatistikoak berrikusi, eta behar izanez gero, egokitzea emakumeen lanaren aitortzen eta balioesten laguntzeko eta emakume talde jakin batzuen estereotipazio negatiboa saihesteko.

Zehatzago esanda, hau izan da lan honetarako erreferentzia garrantzitsu bat: *Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana*, 2013an Eusko Jaurlaritzan adostua eta Emakundek bultzatua eta koordinatua.

Berdintasunerako VI. Plan honi dagokionez, arreta berezia jarri nahi dugu gobernantza hobetzeko 13 neurrietako batean: Estatistiketan eta azterketetan genero-ikuspegiak txertatzea (G4 neurria). Horrela justifikatzen da neurria:

*Errealitatea ezagutzeko eta politika publikoekin jorratuko diren beharrak zehatz-mehatz ezaugarritzeko -diren modukoak direla ere-, beharrezkoa da informazio zehatza eta eguneratua izatea politika horien xedeari buruz. Berdintasunaren berariazko arloan, hau egin behar da ezagutza hori lortzeko: estatistika-erregistroak aldatu; datu-baseak aldagai berriei definitu; laginak aldatu, estatistika-lanek zorrotasunez azal ditzaten emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen diferentziak; eta, nagusiki, genero-ikuspegiak txertatu euskal administrazioek informazioa jasotzeko eta aztertzeke egiten dituzten lan guztien oinarrian<sup>13</sup>.*

Zehatzago, ikerketa lege-testuinguru honetan kokatzen da: *Hezkuntza-sisteman genero-indarkeria saihesteko eta hezkidetzarako gida-plana*<sup>14</sup>, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatuta, Berdintasunerako VI. Planaren garapen gisa. Bertan, ISEI-IVEIri hiru arlo atxikitzen zaizkio:

- **I. ardatzean: Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea:**
  - 3.- Eskola mistoa hezkidetzan oinarritutako eskola bihurtzearen inguruko aldaketak aztertzeke ikertzea.
- **III. ardatzean: Emakumeen kontrako indarkeria erroitik kentzea**
  - 4.- ISEI-IVEIk eta Unibertsitateak *bullying* eta *cyberbullying* fenomenoek baitan jazarpen sexista eta sexuala norainokoa den iker dezaten sustatu, bai eta ere mutilen genero-sozializazioak eta, zehazki, maskulinitasun

<sup>13</sup> Emakunde (2014): *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpenen Zerbitzu Zentrala. 42. orrialdea.

<sup>14</sup> Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2013): *Hezkuntza-sisteman genero-indarkeria saihesteko eta hezkidetzarako gida-plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



tradizionalaren ereduak bere egiteak zein neurriko eragina duen bi fenomeno horietan eta biktima/erasotzaile rolen bereizketaren onarpenean.

### 2.3. Hezkidetzan oinarritutako ikastetxearen ereduak: nahi dugun ikastetxea

Euskadiko hezkuntza-sistemaren erronka handinahienetako asmo handienetako bat hezkidetzan oinarritutako eskola eraikitzea da. Ildo horretatik, ikerketa honek, hasieratik, hezkidetzan oinarritutako eskolaren definizioa zehazteko beharra onartzen duen.

Hezkidetzaren kontzeptuak bilakaera izan du azken hogeita hamar urteetan zehar, *Hezkidetzaren Online Hiztegian* adierazten den moduan. Jarraian, harreman zehatza eskaini gabe, azken urteetan emandako definizioak zehatzenak irakur daitezke.

Feminario de Alicante elkartearen (1987) arabera, *“hezkidetzaren esku-hartzearekin lotutako nahita egindako prozesua da; horren bidez, mutilen eta nesken (haurrak) garapena sustatzen da bi sexu desberdinen errealitateetatik garapen pertsonalerantz eta eraikuntza sozial komun eta aurrez aurre jarri gabekorantz abiatuz”*<sup>15</sup>.

Marina Subirats-ek (1988), bestalde, honako hau azaldu zuen: *“Hezkidetzaren helburua bereizketan oinarritutako mekanismoak desagertzea da, ez eskolaren egitura formalean soilik, baita hezkuntza-ideologian eta praktikan ere. Hezkidetzaren terminoak ezin du neskek mutilen ereduaren txertatu dituen hezkuntza-eredua soilik izendatu, hasiera batean proposatu zen moduan. Ezinezkoa da hezkidetzaren egotea aldi berean aurretik genero bakoitzarenak (zehatzak) zirela onartuta egon ziren jarraibide kulturalen bat-egiterik ez badago”*.

Urte batzuk geroago, Montserrat Morenok (1993) zertxobait gehiago sakondu zuen kontzeptuaren gainean eta honako hau bildu zuen: *“Hezkidetzaren ez da gela batean bi sexuetako ikasleak elkarren ondo-ondoan jartzea, ez eta bateratzea ere, aldeak eredu bakar baten bidez ezabatuz. Ez da nesken eta mutilen adimenak uniforme bihurtzea. Alderantziz, desberdina dena irakastea eta aniztasunak eskaintzen duen aberastasunetik gozatzea da”*<sup>16</sup>.

Fernando Lucinik, geroago, garapen integralaren ideia txertatu zuen hau adierazi zuenean: *“Hezkidetzaren gisa ulertzen da pertsonen garapen integralari mesede egiten dion hezkuntza-prozesua, bakoitzaren sexua edozein izanda ere, eta ondorioz, hezkidetzan oinarritutako eskolatzat hartzen da sexu-arrazoia dela eta desberdintasun edo bereizkeria-mekanismo mota guztiak zuzendu eta ezabatzen den lekua; bertan, ikasleek (neskek eta mutilek) modu askean garatu ahal izango dute beren nortasuna*

<sup>15</sup> Feminario de Alicante (1987). *Elementos para la educación no sexista. Guía didáctica de la Coeducación*. Víctor Orensa, Editores.

<sup>16</sup> Moreno, Montserrat (1993). *Cómo enseñar a ser niñas: el sexismo en la escuela*, Icaria, Bartzelona.



*berdintasun errealeko giroan eta sexuaren arabera ezarritako baldintzapen edo mugarik gabe*<sup>17</sup>.

Beraz, hezkidetzak berdintasun-egoera errealak eskatzen ditu, ikastetxeetako aukerak eta aukera profesionalak, eta oro har, sozialak; horrela, inork –sexu-arrazoia direla eta– ez luke desabantaila-egoeratik abiatu beharko edo inork ez lituzke helburu berberetara iristeko zailtasun bereziak gainditu beharko.

**Hezkidetzak** hauek dakartza berekin: mutilen eta nesken aniztasuna aitortu eta balioestea, eta hori abantaila, kultura-aberastasuna eta tradizioz emakumeekin lotutako balioen eta praktiken ekarpen bihurtzea. Ondorioz, funtsean eta forman, tradizioz patriarkalak –maskulinoak direlako garrantzitsutzat hartutakoak– eta neutralizatzaileak diren ereduetatik ihes egiten du eta asimilatzaileetara jotzen du; horrela, estereotipoak, gizarte-desberdintasunak edo hierarkia kulturala desagertuko diren eremu partekatu bihurtuko da<sup>18</sup>.

Hezkidetzan oinarritutako ikastetxeak hezkuntza arloko komunitateko kide guztiek adostutako eta onartutako balioekin bat datorren ikastetxea izan behar du. Jarduera guztietan estrategiak txertatu behar ditu hauek lortu ahal izateko: pertsonen berdintasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa, desberdintasunekiko errespetua, segurtasuna eta ikasle guztientzako arrakasta-aurreikuspen mailarik altuenak.

*Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planak*<sup>19</sup>, adierazten duen moduan, Planak honako hau lortu nahi du: “*ikastetxeak ekimen orokorra eta estrategikoa egitea da, genero-indarkeriarekin loturiko hezkidetzak, berdintasuna eta prebentzioa lantzeko. Hartara, ikuspegi horrek ikastetxeko kultura, politikak eta praktikak aintzat hartu eta gaitasun guztien ikaskuntzan integratu behar ditu; ikasleen arteko elkarriketa, elkarrekintzak, elkartasuna, berdintasuna eta errespetua bultzatuko dituzten metodologiaren laguntzarekin*”. Ondorioz, ikastetxean genero-ikuspegia lantzeak zeharkako izaera duela ulertzen da.

Galdetegi bidez bildu diren txosten honetako datuei esker, ikasleen eta Zuzendaritza Taldeen iritzia islatu daitezke. Ildo horretatik, badakigu ezin direla eskola-testuingurua, ikasgelaren barnean eta kanpoan, biltzen duten elementu guztiak aztertu, eta iritzi "hipotetikoek" ez dutela nahitaez jokabide "errealekin" bat egingo (INJUVE: 3)<sup>20</sup>.

Hala ere, muga horiek kontuan hartuta eta aintzat hartu beharko liratekeen eta txosten honetan sartzan ez diren askoz ere arlo gehiago daudela jakinik, esango genuke

<sup>17</sup> Lucini, Fernando (1988). *Temas transversales y educación en valores*, Anaya, Madril.

<sup>18</sup> FETE-UGT: *Hezkidetzaren online hiztegia* –Berdintasunean heziz. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.

<sup>19</sup> Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2014): *Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 7. or.

<sup>20</sup> INJUVE (2011): *Jóvenes y diversidad sexual*. Madril: INJUVE-Osasun, Gizarte Politika eta Kontsumo Ministerioa.



aztertu diren atalen ikuspegitik, hezkidetzan oinarritutako ikastetxeak hurrengo ezaugarriei behintzat erantzun beharko liekeela:

- Berdinen arteko indarkeria saihesteaz kezkatzen da “0 indarkeria 0 urtetatik” planteamendutik hasita, eta sexismoarekin eta homofobiarekin zerikusia duten (adiera guztietan) jokabideei arreta berezia jarriz. Txosten honetan aztertzen den ikuspegitik, bai berdinen arteko tratu txar jokabideak ikusten dituzten ikasleen ehunekoa, bai biktima dela dioten ehunekoa baxua litzateke. Gainera, indarkeria-egoerak identifikatzeko lan egiten den ikastetxea da, indarkeria-izaerako jokabideak ezabatuz, eta berdintasunean oinarritutako irtenbideak bilatzen dira.
- Ikasleen (neskak eta mutilak) gaitasunak ahalik eta gehien potentziatzen saiatzen da, ikasleengan aurreikuspen altuak jarriz. Emaizak ISEKen arabera esperotakoaren gainetik daude eta ia ez dago alderik sexuen araberako kompetentzia desberdinen garapen mailan.
- Arloen eta ikasgaien curriculumean gai positiboak txertatzen ditu, baita eredu heteropatriarkalak egotzitako maskulinitate edo feminitate hegemonikoko arauak jarraitu ez dituzten emakumeei eta pertsoneri egotz dakizkiekeen lorpenak ere. Gaur egun eta historian zehar, emakumeekin lotuta indarrean egon diren bereizkerian oinarritutako jokabideak landu eta bistaratzen ditu.
- Pentsamendu estereotipatua ezabatu nahi du; horretarako, testuliburueta, komunikabideetako eta gizarteko (oro har) mezuen aurrean jarrera kritikoa lantzen du. Hori dela eta, ikastetxean ikasleak aintzat hartuko ditu nortasun-ezaugarriak, lanbideak, betebeharrak... baita sexu biologikoarekin bat egin gabeko ezaugarri pertsonalak ere, genero-sozializazioko prozesuen ondorio gisa.
- Ikasleen autonomia eta zaintza pertsonalarekin lotutako erantzukizunak hartzea landu eta sustatzen du, baita adin guztietako gainerako pertsonekin zerikusia dutenak ere. Ildo horretatik, horrela, neskek eta mutilek ez lukete etxebizitzan eta mendeko pertsonen zaintzaren baitan erantzukizun-zereginekin lotutako jarduera guztiekin jokabide desberdina erakutsiko.
- Hezkuntza arloko komunitateko eragile guztiekin lan egiten eta trebatzen da, betiere, proposatutako helburuak lortzeko eta ikastetxeetatik kanpo ere hezkidetzan oinarritutako ikastetxeko balioak eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko.
- Ikuspegiak etorkizunera begira lantzen ditu.

Hala eta guztiz ere, bistakoa da adierazitako lana asmo handikoa eta konplexua dela, eta ez dagoela ikastetxearen esku soilik. Familia, sozializazioa esparruak, komunikabideak... ikasleen pentsamenduan eta jokabideetan etengabe eragiten duten elementuak dira; hori dela eta, beharrezkoa da hezkuntza arloko komunitate osoaren lan orokorra.



Ildo horretatik, Emakunde<sup>21</sup> egindako azterketa kualitatiboan biltzen den moduan, arlo bakoitzak bere lana egin behar du: "*ikastetxea sortzen eta birsortzen duen gizartearen isla da eta gizarte horretan txertatzen da*"<sup>22</sup>. Hori dela eta, ezin da dena hezkuntza arloaren esku utzi. Ondorioz, Hezkuntza arlora bideratuta dagoen proiektu orok oso presente izan behar ditu hurbileko inguruneko eraginak (familia, berdinen taldeak), baita testuinguru sozialarenak ere oro har, komunikabideak sartuta.

Telebistak eta publizitateak igorritako mezuek gizartea menderatzen dute; egoera horren aurrean, irakasleek diote burbuila moduko batetik irakasten ari diren irudipena dutela, eta burbuila horretan, errealtatea ikasleek eskolatik kanpo bizi dutenetik oso desberdina da. Egoera horren aurrean, uste da ikasleei zentzu kritikoa piztea lortzearekin nahikoa litzatekeela. Beharrezkoa da ingurua irakurtzen irakastea.

Oso onartuta dago familian ikasten direla ondoren ikastetxean sustatuko diren ereduak. Hala eta guztiz ere, era berean, bistakoa dirudi berdinen taldeen eragina ere kontuan izan behar dela, batez ere, nerabezaroan, bai ikastetxean, bai ikastetxetik kanpo.

Inguruarekin lotutako gauza garrantzitsu moduan, badirudi familia ikastetxea baino indar handiagoko erreferentea izan ohi dela. Mutilak eta neskek eskolako ereduari baino familiako ereduari jarraitzeko prestutasun handiagoa eskaintzen dutela dirudi. "*Ikastetxean familientzako eremuak sortzen saiatu beharko litzateke; esate baterako, emakumeen taldeak sustatuz edo ikaskuntza-komunitateen sorreran eraginez*". Batez ere, ezin dugu amen zeregina ahaztu.

Ikuspegi hori oinarritzotzat joko litzateke hezkuntzaren eremu androzentrikoari buruz berriz pentsatzeko garaian; izan ere, Emakunderen azterketa baten arabera<sup>23</sup>, amak dira rol tradizionalen transmisioaren arduradunak eta agerian geratzen da neskek etxean ikasten dutela "ama-emaztea" emakume-eredua eta paimen- eta prestasun-balioak.

Komunikabideekin lotuta, ikastetxetik lantzeko eta ondorioak arintzeko modu batzuk telebistako programek gazteenen sozializazioan duten eraginaren azterketatik abiatu ahal izango lirateke. Eduki zehatzetan edo telebista-kontsumoan jarriko lukete arreta batez ere, baita praktika hori ikastetxearen bidez modu kritikoa lantzeko aukeretan ere. Garrantzitsua da nabarmentzea araudiarekin lotutako ahaleginak egon arren, oraindik ere adierazten diren erakarpen-ereduek jokabide erasokorrak sustatzen dituztela edo horiek errepikatzen animatzen dituztela. Era berean, interesgarria litzateke publizitatean dagoen androzentrismoa agerian jartzea ezkutuan dagoen bereizkeria antzematea ahalbidetzen duten "betaurreko hirukoitzen" bidez.

<sup>21</sup> Emakunde (2005): *Hezkidetzak Euskal Autonomia Erkidegoan*. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak. 21. zenbakia. Vitoria-Gasteiz.

<sup>22</sup> González, Ana eta Lomas, Carlo (koord.) (2002): *Mujer y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia*. Barcelona: Argit. Graó.

<sup>23</sup> Emakunde (1993): *Emakumeak eta hezkuntza Euskal Autonomi Elkartearen*. 4. zk. Vitoria-Gasteiz.



## 2.4. Marko teorikoa

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, derrigorrezko hezkuntza-etapetan genero-berdintasunaren inguruan egindako azterketak asko ez diren arren, ez gara hutsetik hasten.

2015ean, ELGA-OECDk gai honi buruzko lan<sup>24</sup> zabala argitaratu zuen PISA probaren galdetegietatik eta emaitzetatik abiatuta. Bertan, nesken eta mutilen arteko aldeak aurkezteaz gain, egoeren aniztasunaren inguruko egoera erakusten du herrialdeen arabera banatuta. Era berean, familien eragin handia biltzen du, bai faktore sozioekonomikoengatik, bai dituzten ikuspegiengatik ere. Eta nabarmendutako beste arlo bat aipatzearren, neskek eta mutilek potentzial osoa gara dezaten laguntzeko politikak aztertzen ditu.

Eurydicek 2011n<sup>25</sup> argitaratutako txostenak hainbat herrialdetan hezkuntzako berdintasunaren inguruan hartutako neurrien azterketa egin du. 4. atalak hau garatu du: *Genero-berdintasuna eta eskola-antolakuntza: 4. curriculum, orientazioa eta eskola giroa*. Eskola-giroarekin, jazarpenarekin eta genero-indarkeriarekin zerikusia duena aztertzean, “ezkutuko curriculumaz” hitz egiten du. Honako hau dio zehazki: “Eskola-giroa... ezkutuko curriculumaren oso alderdi garrantzitsua da, eta horregatik, genero-harremanak eta mutilen eta nesken aukerak modelatzen ditu”. Aurrerago, honako hau adierazi du: “oso herrialde gutxik dute txertatuta eskola-jazarpenaren eta indarkeriaren prebentzioa hezkuntza-sistemako lehentasunen edo printzipio nagusien artean”. Ildo horretatik, adieraz genezake gure Hezkuntza Saileko indarrean dagoen “Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planak” ikuspegi hori hartzen duela.

Bestalde, azken urteetan lanak metodologia kualitatiboekin egin dira, hezkidetzaren, homofobiaren, berdinen arteko tratatu txarren edo *bullyingaren*, *ciberbullyingaren* inguruan zer gertatzen ari den sakonago ezagutzen saiatuz.

Nabarmentzekoa da M. José Díaz-Aguado irakasleak<sup>26</sup> zuzenduta, Espainiako komunitate autonomo guztietan, galdetegi zabalen bidez, nerabeak diren gazteekin eta Zuzendaritza Taldeekin genero-berdintasunaren pertzepzioaren inguruan egindako azterketa kuantitatibo bikoitza.

Interesgarria litzateke berdintasuna eraikitzen eta hezkuntzatik genero-indarkeria saihesten lagun dezaketen hurrengo oinarritzko ideiak kontuan hartzea:

<sup>24</sup> OECD (2015): The ABC of Gender Equality in Education: *Aptitude, Behaviour, Confidence*. PISA, OECD Publishing.

<sup>25</sup> EURYDICE (2011): *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*. Madril: Hezkuntza Ministerioa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Estatuko Idazkaritza (67, 68 eta 69. orrialdeak).

<sup>26</sup> Díaz-Aguado, M<sup>a</sup> José eta Carvajal Gómez, M<sup>a</sup> Isabel (2011): “Igualdad y prevención de la violencia de género en la adolescencia”. Bilduma “Contra la violencia de género. Documentos”. 8. zk. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa eta UCM.



- 1) Mundua aspaldian bi eremutan banatu zen aldiarekin zuzenean lotuta dago Sexismoa: publikoa, modu eskusiboan gizonentzat gordeta, eta pribatua, emakumeentzat. Araututako balio maskulinoekin edo femeninoekin derrigor identifikatzera bultzatzen du banako bakoitza, beste aukerak hautatzea ezinezkoa edo antinaturala balitz bezala. Dualtasun hori domeinua-onarpena ereduaren erreproduzioaren oinarrian dago.
- 2) Sexismoa eta berdintasuna haurtzarotik ikasten dira. Haurtzaroan generoaren sozializazio egiten den moduaren arabera, haurrek horrela biziko dute beren eta besteen mundu soziala, bertan sartuta edo bertatik kanpora geratuta.
- 3) Indarkeriazko jarrerak edo jarrera erasokorrak azaltzeak, batez ere haurtzaroan eta nerabezaroan, kasu batzuetan, indarkeria justifikatzera eraman dezake pertsona; gainera, bi baldintzek nabarmen handitzen dute hori jasateko edo egiteko arriskua. Gainera, indarkeriaren *normalizazioa/naturalizazioa*<sup>27</sup> sortu ohi du; berdinen taldeetan enpatia eta jarrera prosozialak bultzatzen ditu. Hala eta guztiz ere, ez da erremediorik gabeko zerbait; indarkeriaren erreproduzioa saihestu daiteke.
- 4) Aniztasuna (identitate sexualak, familia-ereduak, ideologia, arraza, ezaugarri pertsonalak...) eta jazarpena (genero- eta homofobia-arrazoia edo arrazoi transfobikoak direla eta jazarpena ez justifikatzea edo gutxitzea) bizitzen ikastea eta hori lantzea da intolerantziari eta indarkeriari aurre egiteko modurik onena; gainera, arazoak aniztasuna lantzeko eta elkarbizitza hobetzeko hezkuntza-aukera bihurtzea estrategia eraginkorra izan daiteke.
- 5) Sexismoa eta genero-indarkeria errotik kentzeko, arreta jarri behar zaio osagai kognitiboari, osagai afektiboari edo baloratiboari, baita jokabidearekin lotutako osagaiari ere<sup>28</sup>.

## 2.5. Metodologia

Kontuan hartu behar da azterketa honek ez duela euskal hezkuntza-sistemako testuinguruko aurrekaririk. Ildo horretatik, helburu nagusia irudi orokorra lortzea da, ahalik eta tinkoena, eta etorkizunean jarraikortasuna izan dezaketenak, bai azterketa orokorretan, bai zehatzagoak diren beste batzuetan. Hasiera-hasieratik, lehen premisa informazio fidagarria eta adierazgarria lortzea zen.

Fidagarritasuna informazioaren lortze-prozesuaren araberakoa zen. Ebaluazio Diagnostikoaren testuinguruan garatu izanak, oro har, informazio fidagarria lortzea bermatu du, batez ere, ikastetxe guztietan aplikatu delako, bai publikoetan, bai

<sup>27</sup> Cerezo, F. (2006): «Violencia y victimización entre escolares. El bullying: estrategias de identificación y elementos para la intervención a través del test BULL-S», *Investigación Psicoeducativa*-ren aldizkarian, 4, 106-114. Hemen aipatua: Pichardo Galán, J.I. (2015): *Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico*. Madril: Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutua. 15.or.

<sup>28</sup> Díaz-Aguado Jalón, María José (zuz.); Martínez Arias, Rosa; Martínez Barbarro, Javier (2014). *La evolución de la adolescencia española sobre igualdad y la prevención de la violencia de género*. Bilduma: «Contra la violencia de género. Documentos», 19. zk. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Espainiako Gobernu.





itunpekoetan, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBH 2. mailan eskolatutako ikasle askori aplikatu zaielako.

Ikerketak genero-ikuspegitik abiatutako metodologia txertatzen du, begirada espezifikoa, ikastetxean harremanak eraldatzen dituena. Datuen deskribapen hutsa gainditu nahi du, baita sexuaren araberrako bereizkeria ere. Helburu nagusia azterketa ulerkorerrantz aurrera egitea da, nesken eta mutilen pertzepzioak eta ekarpenak zehaztuko dituena, baita bi taldeen arteko harremanak eta barne-aniztasuna ere, betiere, testuinguru sozialei eta pertsonalei arreta eskainiz.

Euskal ikastetxean mutilen eta nesken arteko berdintasun-egoeraren inguruan eta genero-indarkeriarekin lotuta oinarriak finkatzea da helburua, ahalik eta zehatzenen, maila intuitiboa baino harago joanez. Lehen pauso horrek, diagnostikoa ezartzea ahalbidetuko duen barne-egoera nolabaiteko zehaztasunarekin ezagutzeak euskal hezkuntza-sistemako eragileek ikastetxean genero-desberdintasunen inguruan egin behar duten ikaskuntzari lagundu behar dio. Hortik abiatuta, berdintasun-politiken plangintza egin ahal izango da eta horien eraginkortasuna ebaluatu ahal izango da bai hezkuntza-politika orokorreko plano makroan, bai ikastetxe bakoitzean.

Erantzunak aldagai hauetako batzuekin zerikusia izan dute, hauekin beste batzuen artean: etapa, hezkuntza-sarea, sexua, familiaren tipologia, gurasoen ikasketak, ikasleen jatorria, banakako ISEK...

## 2.6. Galdetegiaren ezaugarriak

Ikerketa honetan, euskal hezkuntza-sistemako berdintasunaren pertzepzioa aztertu da oso desberdinak diren bi informatzaile motetatik abiatuta: ikastetxeetako Zuzendaritza Taldeak eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak eta DBHko 2. mailakoak.

### 2.6.1. Ikasleentzako testuinguruko galdetegiak

Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleei testuinguruko 3 galdetegi mota aplikatu zitzaizkien (A, B eta C) ohiko galderekin eta bereizitako galderekin. Hain zuzen ere, talde bakoitzeko ikasleen ia herenak (etapa bakoitzeko 6.000 ikasle inguruk) galdetegi bakoitza erantzun zuen; horrela, laginaren fidagarritasun handiagora bermatuta geratzen zen ikastetxeen multzoko talde guztietatik zetorren informazioa eskura zegoelako.

C galdetegian txertatutako hainbat galdera dira ikerketa honetarako oinarri moduan erabili direnak. Galdera horiek gai hauekin dute zerikusia:

- “Bullying” egoerak.
- Jarduera jakin batzuei eskaintako aisialdia.



- Neskei eta mutilei lotutako ezaugarriak.
- Gizonekin eta emakumeekin lotutako lanbideak.
- Gizonen eta emakumeen kasuan helduaroan zehar dauden aukerak.

### 2.6.2. Zuzendaritza Taldeentzako testuinguruko galdetegia

Zuzendaritza Taldeentzako testuinguruko galdetegiaren baitan, izaera soziodemografikoko edo ISEI-IVEIk egindako beste ikerketa batzuekin zerikusia zuten beste hainbat galderaz gain, berdintasunarekin eta genero-indarkeriaren prebentzioarekin lotutako hainbat galdera txertatu ziren:

- Ikastetxeko Prestakuntza Planetan lantzen diren gaiak.
- 2014-15 Ikastetxeko Planean bildutako arloak.
- Berdintasun-jarduerak agertzen diren dokumentuak.
- Ikasleen arteko harremanen kalitatea.



### **3. AZTERKETA DESKRIBATZAILEA**





### 3.1. Ikastetxe parte-hartzaileen ezaugarriak

Zentzu-izaerako Ebaluazio Diagnostikoko ezaugarriak kontuan hartuta, Zuzendaritza Taldeek osatzen duten testuinguruko galdetegian ia ikastetxe guztiek erantzun ohi dute.

12. taulan biltzen dira ikastetxe parte-hartzaileei dagozkien datuak:

12. TAULA: ZUZENDARITZA TALDEEI EGINDAKO GALDEKETAN PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEAK					
	IKASTETXE PUBLIKOAK		ITUNPEKO IKASTETXEAK		GUZTIRA
<b>LEHEN HEZKUNTZAKO 4. maila</b>	313	% 69,9	135	% 30,1	448
<b>DBHko. 2. maila</b>	126	% 48,8	132	% 51,2	258
<b>GUZTIRA</b>	439		267		706

### 3.2. Parte hartu duten ikasleen ezaugarriak

13. taulak aipatutako galdetegiko galderak erantzun dituzten ikasleen datuak biltzen ditu. Ikasleen inguruko informazioa gurutzatzeko erabili diren aldagaien arabera banakatzen da informazioa: sexua, hezkuntza-sarea, jatorria, gurasoen ikasketa maila, ikasleen banakako ISEK, familien tipologia eta etapa.



13. TAULA: "C" GALDETEGIAN PARTE HARTU DUTEN IKASLEAK				
ALDAGAIK		LH 4	DBH 2	GUZTIRA
SEXUA	NEKAK	3.199 (% 49,9)	2.859 (% 49)	6.058
	MUTILAK	3.205 (% 50,1)	2.981 (% 51,0)	6.186
	MUTILAK-NEKAK GUZTIRA	6.404* (% 100)	5.840 (% 100)	12.244
SAREA	PUBLIKOA	3.207 (% 50,1)	2.747 (% 47)	5.954
	ITUNPEKOA	3.197 (% 49,9)	3.093 (% 53)	6.290
	GUZTIRA, SAREAREN ARABERA	6.404 (% 100)	5.840 (% 100)	12.244
JATORRIA*	JOTORRIZ SORTERRIKOA	6.013 (% 94)	5.345 (% 91,6)	11.358
	ETORKIN JATORRIA	376 (% 6,0)	492 (% 8,4)	868
	GUZTIRA, JATORRIAREN ARABERA	6.389 (% 100)	5.837 (% 100)	12.226
FAMILIEN IKASKETA MAILA*	OINARRIZKOAK	211 (% 3,4)	186 (% 3,2)	397
	OHO EDO DBH	791 (% 12,6)	928 (% 16,0)	1.719
	BATXILERGOA, ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA EDO BALIOKIDEA	2.272 (% 36,2)	2.063 (% 35,7)	4.335
	UNIBERTSITATEKOAK EDO GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA	3.006 (% 47,9)	2.608 (45,1%)	5.614
	GUZTIRA, IKASKETEN ARABERA	6.280 (% 100)	5.785 (% 100)	12.065
FAMILIA MOTAK*	NUKLEARRA	4.805 (% 75)	4.498 (% 77)	9.303
	GURASO BAKARREKOA	786 (% 12,3)	807 (% 13,8)	1.593
	ZABALDUA	475 (% 7,4)	342 (% 5,9)	817
	POLINUKLEARRA	161 (% 2,5)	74 (% 1,3)	235
	BESTE BATZUK	176 (% 2,7)	119 (% 2,0)	295
	GUZTIRA, FAMILIEN ARABERA	6.403 (% 100)	5.840 (% 100)	12.243
ISEK BANAKAK OA*	ISEK BAXUA	1.599 (% 25)	1.497 (% 25,6)	3.096
	ISEK ERTAINA-BAXUA	1.587 (% 24,8)	1.444 (% 24,7)	3.031
	ISEK ERTAINA-ALTUA	1.609 (% 25,2)	1.454 (% 24,9)	3.063
	ISEK ALTUA	1.594 (% 25)	1.442 (% 24,7)	3.036
	GUZTIRA, ISEKEN ARABERA	6.389 (% 100)	5.837 (% 100)	12.226

\* Guztizko datuen batuketak ez du beti aldaera batzuetan bat egingo; izan ere, baliteke ikasle batzuek ez erantzun izana aipatutako sailkapenak ezartzeko balio duen galderaren bati.



## **4. IKASLEEK BERDINTASUNAREKIKO DUTEN PERTZEPZIOA**







Zer ulertzen dugu berdintasunaren pertzepzio moduan?

Atal honetan, gure ustez ikastetxeetan genero-berdintasunaren eta indarkeriaren prebentzioaren inguruko lanarekin zerikusi handia duten hainbat arloren aurrean ikasleek emandako erantzunak aztertuko ditugu.

Genero-berdintasunari ikuspegi poliedrikoa dagokio, gizon eta emakumeen bizitzako arlo ia arlo guztiei eragiten baitie: harremanak, lorpenak, denboren banaketa... Txosten honetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako gure ikasleek hauen inguruan eman duten iritzietan jarriko dugu batez ere arreta:

- Aisialdiaren erabilera.
- Eskola-inguruan ezartzen duten harreman mota.
- Desberdinak direnean, berdinekin jarduerak partekatzeko onarpen maila.
- Gizonei eta emakumeei egiten dizkieten esleipenak: lanbideak, ezaugarriak, helduaroko aurreikuspenak.

Gainera, kontuan hartu behar da batez ere Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen zati batek edo ikasle guztiek abstrakzio maila jakin bat eskatzen dien zenbait galderari erantzuteko izan dezaketen zailtasuna. Hala eta guztiz ere, emaitzei esker, ikasleek genero-berdintasuna nola ikusten duten jarraibide orokor batzuk ezarri ahal izan ditugu; baita Lehen Hezkuntzako 4. mailatik DBHko 2. mailara pertzepzio hori nola aldatzen den ere.





# **PERTSONEN ZAINZARI ETA ETXEKO LANEI ESKAINITAKO DENBORA**





#### 4.1. Pertsonen zaintzari eta etxeko lanei eskainitako denborarekin zerikusia duten ondorioak



Lehen Hezkuntzan nesken eta mutilen artean ageri den alderik handiena *kontsolarekin edo mugikorrarekin jolastea* da (% 16,8 puntu gehiago mutilen artean).

DBHn lehentasunak aldatu egiten dira. *Mugikorrarekin komunikatzeari* eskainitako denborak gora egiten du eta nabarmen egiten dute behera *zaletasunagatik irakurtzeak edo musika-tresnak ikasteak*. Nesken eta mutilen arteko alderik handiena *zaletasunagatik irakurtzea* jardueran gertatzen da (irakurtzen dutela dioten nesken kopurua mutilena baino % 17,8 altuagoa da).

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen % 40 inguruk eskaintzen du denbora pixka bat *beste pertsonak zaintzen*.

Lehen Hezkuntzako ikasleen ia % 76k eta DBHko % 92k adierazi du *etxean zereginen bat egiten duela*.

Itunpeko sarean, bi etapetako ikasleek esandakoaren arabera, publikokoek baino denbora pixka bat gehiago igarotzen dute *pertsonak zaintzen*. Hala eta guztiz ere, *etxeko lanei eskainitako denborarekin lotuta*, ez dago alderik.

Familia nuklearretakoak eta guraso bakarrekoak (gehienak) diren bi etapetako ikasleek diote *etxeko lanei* besteek baino denbora gehiago eskaintzen dietela. Hala eta guztiz ere, ehunekoak oso desberdinak dira zeregina *beste pertsona batzuk zaintzea* denean.

*Beste pertsonen zaintza* eta *etxeko lanak* jarduerekin lotuta, ikusten da zenbat eta ISEK maila altuagoa izan, ikasleek orduan eta denbora gehiago igarotzen dutela jarduera horietan, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn.



## 4.2. Pertsonen zaintzari eta etxeko lanei eskainitako denboraren aurrean ikasleek duten jarrerak

Gizarte patriarkala etxeko arloan eta arlo familiarrean finkatzen da indarrez. Ildo horretatik, zereginen banaketa (pertsonen zaintza, garbiketa, elikagaiak prestatzea, familiako ekonomia...) da sexu-desberdintasuna gehien islatu izan ohi den esfera pertsonaletako bat.

Euskadin denboraren erabilerarekin lotuta, EUSTATEk, 2016ko ekainaren 17ko buletinean, honako hau adierazi zuen: *“Euskal Autonomia Erkidegoko lanean ari diren pertsonen % 32k adierazi du zailtasun handiak dituela lana eta mendekoen zaintza bateratzeko, eta antzeko ehuneko batek adingabeko seme-alabei arreta eskaintzeko (% 31,2). Zailtasun maila handi hori lanean ari diren pertsonen % 4,4k ere nabari dute lana eta jarduera pertsonalak egitea bateratu nahi direnean. Etxetik kanpo lan egiten duten eta 15 baino gutxiagoko seme-alabak dituzten emakumeek egunero 4,5 ordu bideratzen dute haien zaintzara; aldiz, antzeko egoeran dauden gizonezkoek egunero 2,9 ordu besterik ez dute erabiltzen horretan. Alde hori murriztu egiten da mendeko pertsonen zaintzaren kasuan; jarduera horri gizonek egunero 1,5 ordu eskaintzen dizkiote eta emakumeek 2,1 ordu, betiere, mendekoren bat kargura izanez gero”.*

ED15eko galdetegian lehen aldiz galdetu zaio EAEko derrigorrezko hezkuntzako ikasleari aisialdiaren erabileraren inguruan. Ebaluatu diren bi hezkuntza mailetan nesken eta mutilen arteko berdintasun/desberdintasun-egoeren inguruko informazioa biltzea izan da helburua.

Hau da jarduera desberdinei eskainitako denborari buruzko galdera, eta barne hartzen dituen aukerak. Ikasleek, aldi bakoitzean, lau aukeraren artean hautatu behar zuten: 0 ordu, 0 eta 2 ordu artean, 2 ordu baino gehiago eta 6 ordu baino gutxiago, edo 6 ordu baino gehiago.

Gutxi gorabehera, zenbat denbora eman duzu GUZTIRA, PASADAN ASTEAN, hurrengo ekintzetan?

- Etxeko lanak.
- Beste pertsona batzuen zaintza.
- Gustuz irakurtzen.
- Lagunekin egoten.
- Kontsola, mugikorra eta abarrekin jolasten.
- Kirola egiten.
- Telebistako saioak ikusten.
- Musika-tresnak jotzenedo praktikatzeko.
- Mugikorrarekin komunikatzeko.

Txosten honen ezaugarriak aintzat hartuta, lehen bi aukeren azterketan zentratuko gara batez ere: etxeko lanak eta mendeko pertsonen zaintza, bi zeregin horiek familien



erantzunkidetasunean eta autonomia pertsonalaren garapean duten inplikazioarengatik.

#### 4.2.1. Emaizak etapen arabera

Neskek eta mutilek erduei jarraituz ikasten dute portatzen; lehendabizi etxean, eta ondoren, inguruko jokabideetatik eta publizitatetik, komunikabideetatik... jasotzen dituzten beste estimuluei behatuz.


Ikusten dugu Lehen Hezkuntzako nesken eta mutilen % 76,4k astean gehienez 6 ordu eskaintzen dizkietela *etxeke lanei*, eta ehuneko horrek gora egiten dutela DBHn; maila horretan, % 92,3 dira. Hori oso seinale positiboa da.

*Pertsonen zaintzarekin* (anai-arrebak edo beste ahaide batzuk) zerikusia duten lanei dagokienez, ehuneko horiek behera egiten dute. Hala ere, bi etapetako ikasleen % 40 inguruk adierazi du zeregin hori egin duela eskolaz kanpoko denboran galdetegia egin aurreko astean zehar.

Lehen Hezkuntzako ikasleen ia % 76k eta DBHko % 92k adierazi du *etxean zereginen bat egiten duela*.

Jarraian ageri den grafikoak honako hauek biltzen ditu: batetik, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek etxeke lanetarako erabiltzen dutela dioten denboren banaketaren ehunekoa, eta bestetik, astean zehar pertsonen zaintzari eskainitako denbora.

4.2.1. grafikoa. LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek astean etxeke lanei eta pertsonen zaintzari eskainitako denbora, ordu tarteetan arabera. ED15.






### 4.2.2. Emaitzak sexuaren arabera


Ikasleei egiten zaien aisialdiko jarduerekin lotuta, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, ikusten da aisialdiko jarduera jakin batzuei eskaintzen zaien denbora oso antzekoa dela mutilen eta nesken artean. Lehen Hezkuntzako nesken eta mutilen artean alderik handiena nabaritzen den jarduera *kontsolarekin edo mugikorrarekin jolastea* da (% 16,8 puntu gehiago mutilen kasuan). Gainerako jardueretan, aldeak ez ditu % 8 puntuak gainditzen.

4.2.2.a. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleen artean aisialdiko pilatutako denbora, sexuaren arabera.



DBHn lehentasunak aldatu egiten dira; *mugikorrarekin komunikatzeari* eskainitako denborak gora egiten du eta nabarmen egiten dute behera *zaletasunagatik irakurtzeak* edo *musika-tresnak ikasteak*. Hala ere, etapa honetan, nesken eta mutilen arteko alderik handiena *zaletasunagatik irakurtzea* jardueran gertatzen da; jarduera horretan, irakurtzen dutela dioten nesken kopurua mutilena baino % 17,9 altuagoa da. Gainerako jardueretan, aldeak ez dituzte 6,5 puntuak gainditzen.

4.2.2.b. grafikoa. DBHko 2. mailako ikasleen artean aisialdiko pilatutako denbora, sexuaren arabera.








Etxebizitzako erantzunkidetasunarekin zerikusia duten zereginetan gehiago zentratzen baldin bagara, honako hau nabarituko dugu:

Lehen Hezkuntza, mutilek eta neskek denbora berbera eskaintzen diote *beste pertsona batzuen zaintzari* (% 41 inguru). Erlazio hori DBHn desorekatzen da; izan ere, neskek % 41 inguruan mantentzen diren bitartean, mutilek, zeregin horretan, % 5 puntutan murrizten dute parte-hartzea.

*Etxeko lanei* eskainitako denborari dagokionez, datuek erakusten dute neskek eta mutilak neurri batean inplikaturik daudela horretan. Lehen Hezkuntza, neskek mutilek baino 5,4 puntu altuagoko puntuazioa lortu zuten. DBHn, igoera nabaria gertatzen da bi taldeetan eta ia 2 puntu baino gutxiago murrizten da nesken eta mutilen arteko aldea (% 93,2 nesketan eta % 91,3 mutiletan).

4.2.2.c. grafikoa. LHko 4. maila eta DBHko 2. mailako ikasleek etxeko lanei eta pertsonen zaintzari eskainitako denbora pilatua, sexuaren arabera. ED15.




### 4.2.3. Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera

Azterketa hezkuntza-sareen arabera egiten bada eta ikasleek zerbait egiten dutela dioten erantzunak (0-2, 2-6 eta astean 6 ordu baino gehiago) pilatzen baldin badira, ikusten da *etxeko lanei* eskainitako denborarekin zerikusia duten ehunekoak berdina direla bi sareetan. Ikus dezagun datuen banaketa hezkuntza-sareen eta etapen arabera:



4.2.3. grafikoa. LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek etxeko lanek eta pertsonen zaintzari eskainitako denbora pilatua, sarearen arabera. ED15.



Ikasleek itunpekoan, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, publikoan baino denbora gehiago eskaintzen diote *beste pertsona batzuen zaintzari*.

Honako hau ondoriozta daiteke:

- *Beste pertsona batzuen zaintzan* itunpeko sarea nabarmentzen da sare publikoaren gainetik; Lehen Hezkuntza % 7 puntu gehiago ditu eta DBHn 10,7 puntu gehiago.
- Ikasleek *etxeko lanetan* duten inplikazioarekin lotuta, ez dago alderik hezkuntza-sare baten eta bestearen artean emandako erantzunetan, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn.

#### 4.2.4. Emaitzak ikasleen jatorriaren arabera

Ikasle etorkintzat hartzen dira Espainiatik kanpo jaiotako (lehen belaunaldian) edo gurasoetako batek immigratu behar izan duen ikasleak.

Kontuan izan behar da erantzunen kopurua nahiko desberdina dela. 6.013 ikasle sorterrikok eta 376 ikasle etorkinek erantzun dute.


Denboraren zati bat eskaintzen dutela erantzuten dutenek (0-2 orduetik 6 ordu baino gehiagora) eta galdetegian aipatutako jarduera bakar bat ere ez dutela egiten erantzuten dutenek pilatutako erantzunak kontuan hartuta, honako hau ikus daiteke:

- Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean, 1. edo 2. belaunaldiko ikasle etorkinek astean ikasle sorterrikoe baino % 6,7 denbora gehiago eskaintzen die *etxeko lanei*.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen % 40 inguruk, bai sorterrikoe, bai etorkinek, denbora pixka bat eskaintzen diote *beste pertsonak zaintzari*.
- DBHn ia ez dago alderik *etxeko lanei eta pertsonen zaintzari* dagozkien ehunekoetan, ikasleen jatorria aldagaiaren arabera.

Lehen Hezkuntzako ikasle etorkinek sorterrikoe baino denbora gehiago eskaintzen diete *etxeko lanei*.



4.2.4. grafikoa. LHko 4.mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek etxeko lanak eta pertsonen zaintzari eskainitako ehuneko pilatuak. ED15



#### 4.2.5. Emaitzak familien tipologiaren arabera

Zer familia motatakoak ziren galdetzen zitzairen galdetegian: nuklearrak, guraso bakarrekoa, zabaldua, polinuklearra edo beste egoera batzuk.

Familia mota irizpide hauen arabera deskribatzen zitzairen:

- A. Semeak edo alabak dituzten familia nuklearra. Seme-alaba bat edo gehiago bikotearekin (sexu berekoa edo desberdinekoa) bizi diren familia.
- B. Guraso bakarrekoa. Seme-alaba bat edo gehiago guraso bakararekin bizi diren familia. Elkarbizitza hori bizitoki desberdinetan parteka daiteke edo denbora partzalean etxebizitza bereberan izan daiteke.
- C. Zabaldua. Aurreko bi familia motatatik edozein. Gainera, ahaideak diren pertsona bat edo gehiagorekin bizi direnak (aitona, izeba, gurasoetako baten bikote berri bat...).
- D. Polinuklearra. Etxebizitza bereberan bizi diren aurreko edozein motatako bi familiari edo gehiagori dagokio.
- E. Beste egoera batzuk (esate baterako, abegi-zentroa).


14. TAULA: Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen banaketa dagokien familia-tipologiaren arabera				
	TIPOLOGIAK	LHko 4. maila	DBHko 2. maila	GUZTIRA
FAMILIA MOTAK*	NUKLEARRA	4.805 (% 75,0)	4.498 (% 77,0)	9.303
	GURASO BAKARREKOA	786 (% 12,3)	807 (% 13,8)	1.593
	ZABALDUA	475 (% 7,4)	342 (% 5,9)	817
	POLINUKLEARRA	161 (% 2,5)	74 (% 1,3)	235
	BESTE BATZUK	176 (% 2,7)	119 (% 2,0)	295
	GUZTIRA, FAMILIEN ARABERA	6.403 (% 100)	5.840 (% 100)	12.243

\* Guztizko datuen batuketak ez du beti aldaera batzuetan bat egingo; izan ere, baliteke ikasle batzuek ez erantzun izana aipatutako sailkapenak ezartzeko balio duen galderaren bati.



Garrantzitsua da kontuan izatea ikasle bakoitza dagokion familia motaren arabera erantzun kopuruetan dagoen aldea.

Hurrengo grafikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek pilatutako ehunekoak ikus daitezke, dagokion familia motaren arabera aisialdiko jardueri eskainitako denborarekin lotuta:



Grafikoko datuek honako hau adierazten dute:

- Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean *etxeko lanei* azken astean eskainitako denboraren inguruko erantzunen ehunekoak oso antzeko jokaera dute familia-tipologiaren aldagaian; hala ere, % 8 puntu arteko aldakuntzak dituzte.
- Lehen Hezkuntza metatutako erantzun-ehuneko txikiena duen jardura, astean zehar zerbait egiten dutela diotenen artean, *beste pertsona batzuen zaintzari* dagokiona da (% 45,5 artean "familia zabalduetako" ikasleak eta "beste egoera batzuetakoak", eta % 40,5 "familia nuklearretakoak").
- DBHn, *beste pertsona batzuen zaintza* Lehen Hezkuntzako 4. mailako antzeko mailetan mantentzen da. Hala eta guztiz ere, jardura honetan antzematen da alderik handiena jatorriko familia motaren artean. "Familia nuklearretan" edo "guraso bakarrekoetan" bizi direnen ehunekoak behera egiten dute Lehen Hezkuntzakoekin alderatuta, eta "familia zabalduetan" eta "polinuklearretan" bizi direnen indizeek gora egiten dute.
- DBHko ikasleen % 88 eta % 93 artean *etxeko lanetan* aritzen da; hori diote behintzat, jatorriko familia mota edozein izanda ere. Hala eta guztiz ere, maiztasun

Familia nuklearretakoak eta guraso bakarrekoak (gehienak) diren bi etapetako ikasleek diote *etxeko lanei* besteek baino denbora gehiago eskaintzen dietela. Hala ere, ehunekoak oso desberdinak dira zeregina *beste pertsonak batzuek* zaintzea denean.



mailarik altuenak "familia nuklearretakoak", "guraso bakarretakoak" edo "zabaldutakoak" dira.

#### 4.2.6. Emaitzak familien ikasketa mailaren eta ikasleen ISEK mailaren arabera

Hurrengo taulen bidez, ED15eko probetan parte hartu zuten eta galdetegiaren zati hori ISEKeko banakako mailaren arabera eta gurasoen ikasketen mailaren arabera erantzun zuten Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleak nola banatzen diren ikus dezakegu.

15. TAULA: ED15EKO LH-KO 4. MAILAKO ETA DBH-KO 2. MAILAKO IKASLEEN BANAKETA ISEK MAILAREN ARABERA				
	ISEK MAILA	LHko 4. maila	DBHko 2. maila	GUZTIRA
ISEK BANAKAKO*	ISEK BAXUA	1.599 (% 25,0)	1.497 (% 25,6)	3.096
	ISEK ERTAINA-BAXUA	1.587 (% 24,8)	1.444 (% 24,7)	3.031
	ISEK ERTAINA-ALTUA	1.609 (% 25,2)	1.454 (% 24,9)	3.063
	ISEK ALTUA	1.594 (% 25,0)	1.442 (% 24,7)	3.036
	GUZTIRA, ISEKEN ARABERA	6.389 (% 100)	5.837 (% 100)	12.226

\* Guztizko datuen batuketak ez du beti aldaera batzuetan bat egingo; izan ere, baliteke ikasle batzuek ez erantzun izana aipatutako sailkapenak ezartzeko balio duen galderaren bati.

16. TAULA: ED15EKO LH-KO 4. MAILAKO ETA DBH-KO 2. MAILAKO IKASLEEN BANAKETA GURASOEN IKASKETA MAILAREN ARABERA				
	IKASKETA MAILAK	LHko 4. maila	DBHko 2. maila	GUZTIRA
FAMILIEN IKASKETA MAILA*	OINARRIZKOAK	211 (% 3,4)	186 (% 3,2)	397
	OHO EDO DBH	791 (% 12,6)	928 (% 16,0)	1.719
	BATXILERGOA, ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA EDO BALIOKIDEA	2.272 (% 36,2)	2.063 (% 35,7)	4.335
	UNIBERTSITATEKOAK EDO GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA	3.006 (% 47,9)	2.608 (% 45,1)	5.614
	GUZTIRA, IKASKETEN ARABERA	6.280 (% 100)	5.785 (% 100)	12.065

\* Guztizko datuen batuketak ez du beti aldaera batzuetan bat egingo; izan ere, baliteke ikasle batzuek ez erantzun izana aipatutako sailkapenak ezartzeko balio duen galderaren bati.


*Etxeko lanei* eta *pertsonen zaintzari* eskainitako denborarekin lotuta lortzen diren datuak bi aldagairekin gurutzatu dira eta jokaera oso antzekoa da. Aldagai horiek hauek dira: aiten eta amen ikasketa maila, eta ikasleen banakako ISEK maila.

Hurrengo grafikoan, LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek *etxeko lanei* eta *pertsonen zaintzari* eskainitako denborarekin lotuta pilatutako ehunekoak hartzen dira aintzat, gurasoen ikasketen arabera:

Ikasketa maila baxuenak dituzten familien LHko 4. mailako ikasleak dira *beste pertsona batzuk zaintzen* denbora gehien eskaintzen dutenak.




4.2.6.a. grafikoa. LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek etxeko lanei eta pertsonen zaintzari eskainitako denbora pilatuaren ehunekoak, familia ikasketen arabera. ED15.



- Familiek oinarrizko ikasketak dituzten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak *beste pertsona batzuen zaintzan* gailentzen dira (batxilergoko edo antzeko ikasketak dituzten familietatik datozenak baino % 8 puntu gehiago; horiek dute ehunekorik baxuena). *Etxeko lanei* eskainitako denborari dagokionez ez dira alde adierazgarriak nabari.
- Oinarrizko ikasketak dituzten DBHko 2. mailako ikasleak dira *etxeko lanetan* (% 87,6) denbora metatu gutxien igarotzen dutenak, gainerakoekin alderatuta (% 92 baino zertxobait gehiago). Gauza bera gertatzen da *beste pertsona batzuen zaintzan* (% 32,8, eta % 38,8 edo % 40 gainerako familietan).

Hurrengo grafikoan, LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek *etxeko lanei* eta *pertsonen zaintzari* eskainitako denborarekin lotuta pilatutako ehunekoak hartzen dira aintzat, ikasleen banakako ISEKen arabera:

4.2.6.b. grafikoa. Etxeko lanei eta pertsonen zaintzari eskainitako denbora pilatuaren ehunekoak, ISEKen arabera. ED15.





Datuek hau adierazten dute:

- *Beste pertsonen zaintza eta etxeko lanak* jarduerekin lotuta, ikusten da zenbat eta ISEK maila altuagoa izan, ikasleek orduan eta denbora gehiago igarotzen dutela jarduera horietan, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn.

ISEK maila baxuena duten DBHko ikasleek denbora gutxiago eskaintzen dio *beste pertsona batzuen zaintzari eta etxeko lanak egiteari*.







## ESTEREOTIPOAK:



EZAUGARRI FISIKOEN ETA NORTASUN  
EZAUGARRIEN ESLEIPENA



LANBIDEEN ESLEIPENA




BIZITZAKO AUKEREN ESLEIPENA





### 4.3. Gizonei eta emakumeei egindako ezaugarri fisikoen eta nortasun-ezaugarrien esleipenarekin zerikusia duten ondorioak





#### 4.4. Ezaugarri fisikoen eta nortasun ezaugarrien esleipena

INFOJUVEren (2011)<sup>29</sup> ikerketaren ondorio aipagarri batek honako hau adierazten du:

*“Genero-ideologia tradizionalari dagokionez zabaltze-zantzu orokorrak ikusten diren arren, gazteek metodo tradizionalan kokatutako genero-rol afektiboek oraindik ere indarrean jarraitzen zutela ikusi zuten, eta neurri handi batean, iritzien, ideien eta mutilen eta nesken jokabideen arteko hain alde nabarmenak azaldu zituen horrek. Zehazki, behin eta berriz agertu zen gizonentzako oraindik ere eredu gisa agertu den maskulinitasunaren eredu zorrotza, eta gizonen arteko afektuen adierazpen fisikoen aurrean itxiera edo intolerantzia oso handia justifikatzen duena. Afektu maskulinoen “zorrozatasuna”, neskek erakutsitako “afektu naturalarekin” erabateko kontraesanean. Afektu naturalak askoz ere neurri handiagoan jasaten ditu emakumeen, emakumezko lagunen eta ondorioz, sexu bereko pertsonen arteko afektu eta maitasun erakustaldi fisikoak.”*

Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan eskatu zitzaientzako pentsatzeko ea beren ustez ezaugarri fisiko batzuk edo nortasun-ezaugarri batzuk neskenak, mutilenak edo bi sexueterako berdinak ziren.

Galderen helburua honako hau zen: derrigorrezko hezkuntza maila horietako ikasleek pertsonen ezaugarri estereotipatuak esleitzen dizkien, edo alderantziz, berdintasunean oinarritutako pertzepzioa erakusten duten jakitea.

Hau da batez ere sexu bakoitzarekin lotutako ezaugarriei buruzko galdera. 16 aukera barne hartzen ditu:

Adierazi zure iritziz ezaugarri hauen artetik zein diren batez ere neskei dagozkienak, zein mutilei dagozkienak edo zein diren bientzako berdinak.

- a. Indar fisikoa
- b. Samurtasuna
- c. Ahulezia fisikoa
- d. Babesteko beharra
- e. Abusua
- f. Edertasuna
- g. Ulermena
- h. Maitasuna
- i. Detailezalea izatea
- j. Sentikortasuna
- k. Fintasuna
- l. Eskuzabaltasuna
- m. Komunikatzeko erraztasuna
- n. Eskuzko gaitasuna
- o. Autoritatea
- p. Ikasteko gaitasuna

<sup>29</sup> Op. cit. 4. or.



#### 4.4.1. Emaizak etapan arabera

Jarraian ageri den taulan ikasleek bi etapetan emandako erantzunen ehuneko zuzenak adierazten dira. Gainera, ezaugarriak “bi sexueterako berdinak” direla uste duten erantzunak pilotzen dituzte.

Datuak handitik txikira daude ordenatuta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen erantzunen arabera.

17. TAULA: LH-KO 4. MAILAKO ETA DBH-KO 2. MAILAKO IKASLEEK BI SEXUEKIN LOTZEN DITUZTEN EZAUGARRIAK		
Ezaugarriak	LH-KO 4. MAILA %	DBH-KO 2. MAILA %
Ikasteko gaitasuna	73,1	72,6
Komunikatzeko gaitasuna	67,7	73,8
Autoritatea	65,8	71,0
Ulermena	63,9	58,8
Eskuzabaltasuna	59,7	74,9
Detalelezalea izatea	58,7	62,9
Maitasuna	56,0	60,0
Eskuzko gaitasuna	54,6	63,7
Sentsibiltatea	53,1	50,4
Babesteko beharra	53,0	57,6
Ahulezia fisikoa	51,9	50,7
Fintasuna	46,7	44,8
Samurtasuna	45,9	44,1
Edertasuna	45,1	60,3
Abusua	42,9	46,5
Indar fisikoa	39,8	32,4

Zenbait aurreiritzi adinarekin arindu egiten dira.

Erantzunetako datuen arabera, DBHn gora egin dute ezaugarri kopuruek eta "bientzako berdinak" direla uste duten ikasleen ehunekoak. Datu horiek pentsarazten digute aurreiritzi batzuk desagertzen ari direla; agian, prestakuntzaren eta bizitzako esperientzien ondorioz.

DBHko datu orokorrek argi islatzen dute LHrekin alderatuta berdintasunean oinarritutako balorazioen progresioa. Baina bestalde, frogatzen da neskek eta mutilek berezko ezaugarri desberdinak dituzten uste tradizionala oraindik ere oso indarrean dagoela hezkuntza maila horretan.

#### 4.4.2. Emaizak sexuaren arabera

LHko eta DBHko ikasleek “bientzako berdinak” direla aipatu dituzten ezaugarri horiek berak aztertzean, ikasleen sexuaren arabera, ikus daiteke batez ere neskek adierazten



dutela "bientzako berdinak" erantzuna; izan ere, erantzun horrek nesken artean du ehunekorik altuena. Ondoriozta daiteke neskek berdintasuna normalagotzat hartzen dutela mutilek baino, batez ere LHn.

Hurrengo taulan, "bi sexueterako berdin" iritziarekin lotutako erantzunen ehuneko guztiak ikus daitezke (itzaldurarekin % 60 baino kopuru altuagoko erantzunak nabarmendu dira; atalase hori berdintasunezko gutxienezkotzat hartu dugu):

18. TAULA: BI SEXUEKIN LOTUTA DAUDEN EZAUGARRIAK, ETAPEN ETA SEXUAREN ARABERA				
Ezaugarriak	LHko 4. maila %		DBHko 2. maila %	
	Neska	Mutila	Neska	Mutila
Ikasteko gaitasuna	75,5	70,7	75,1	70,3
Autoritatea	70,9	60,7	74,4	67,6
Komunikatzeko erraztasuna	70,6	64,8	75,4	72,3
Ulermena	66,0	61,8	58,2	59,3
Eskuzabaltasuna	61,2	58,3	74,7	75,2
Eskuzko gaitasuna	59,8	49,5	65,2	62,2
Detalezalea izatea	58,7	58,7	62,2	63,6
Ahulezia fisikoa	58,1	45,7	52,0	49,5
Babesteko beharra	58,1	47,9	54,4	60,7
Maitasuna	55,7	56,4	59,9	60,1
Sentikortasuna	53,9	52,3	45,7	55,0
Fintasuna	47,5	45,8	42,7	46,7
Indar fisikoa	46,5	33,2	37,3	49,5
Abusua	45,1	40,7	47,1	45,8
Samurtasuna	44,6	47,1	42,9	45,3
Edertasuna	42,6	47,7	68,1	52,7

\*Handitik txikira ordenatuta daude, Lehen Hezkuntzako 4. mailako nesken erantzunen arabera.

Bi sexueterako emaitzak batera azter daitezke:

- Oso antzekotasun handia dago neskek eta mutilek ematen dituzten erantzunen artean, bai nesken, bai mutilen ezaugarrien gainean. Batez ere, berdintasunean oinarritutako balorazioen nagusitasuna nabarmendu behar da, antzeko balioekin. *Edertasuna* ezaugarriari dagokionez, "biak berdinak" aipamena neskek soilik aipatzen dute balio handiagoan (ia 23 puntuko aldea mutilek diren ikasleekin alderatuta).
  - Gehienek hautatzen duten "biak berdinak" balorazioaren ostean, bi taldeek uste dute neskei dagozkiela hauek: *samurtasuna, sentsibilitatea, fintasuna, ahulezia fisikoa, babesteko beharra, maitasuna, ulermena, detalezalea izatea, edertasuna, ikasteko gaitasuna, eskuzabaltasuna* eta *komunikatzeko erraztasuna*.
- Gainera, neskek eta mutilek bat egiten dute *indar fisikoa, abusua* eta *autoritatea* batez ere mutilen ezaugarriak direla aipatzean; hala ere, ezaugarri batzuen eta besteen artean alde handiak daude.


DBHn, neskek eta mutilek Lehen Hezkuntzan baino berdinezaleagoak dira



LHko eta DBHko datuak alderatzeko garaian, berdintasunean oinarritutako ekarpenetan hobekuntza nabaria ikusten da, hau da, bi sexuek ezaugarri bat partekatzeari dagokionez. LHn nabarmentzen duten *ikasteko gaitasunari, ulermenari, eskuzabaltasunari* edo *eskuzko gaitasunari* beste batzuk gehitu behar zaizkio: *komunikatzeko erraztasuna, edertasuna, detailezalea izatea, maitasuna* eta indize zertxobait txikiagoak dituzten beste ezaugarri batzuk.

Jarraian ageri den grafikoan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen erantzunak jaso ditugu: Ikasleek gizonei eta emakumeei ezaugarri fisiko eta pertsonal jakin batzuk berdintasunean oinarrituta (0 puntua, erdigunea) esleitzen dizkiela kontuan hartuta, erantzun horietatik, mutilen edo nesken iritziz, batez ere emakumeei dagozkienak (0 eta -1 arteko eskala) edo gizonezkoei dagozkienak (0 eta 1 arteko eskala) izaten jarraitzen dutela uste duten ezaugarri jakin batzuk nabarmendu ditugu. Emakumeei dagokienez esleipen handitik txikira daude ordenatuta.

**4.4.2.a. grafikoa. Neskei eta mutilei edo biei ezaugarri fisikoen eta nortasun-ezaugarrien inguruan egindako esleipena, LHko 4. mailako ikasleen arabera. ED15.**





Ikusi ahal izan den moduan, mutilen eta nesken erantzunak desberdinak dira: neskek emakumeei "femeninotzat" hartutako ezaugarri gehiago esleitzeko joera dute. Gorabeherak daude ezaugarri hauen ekarpenean: *ulermena, eskuzabaltasuna, ikasteko gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna, detailezalea izatea* edo *eskuzko gaitasuna*. Batez ere mutilen ezaugarritzat hartzen dira oraindik ere *autoritatea, abusua* eta *indar fisikoa*; mutilek neskek baino balorazio altuagoa ematen dute horri dagokionez.


Aurreko grafikoan bezalaxe, jarraian datorrenean ere DBHko 2. mailako ikasleen erantzunak jaso ditugu. Gizonei eta emakumeei esleipen berbera egiten dietenak (0 puntua, erdigunea) kontuan hartu ditugu eta batez ere emakumeenak (0 eta -1 arteko eskalan) edo gizonenak (0 eta 1 arteko eskalan) izaten jarraitzen dutenak nabarmendu ditugu.

Ikus daitekeen moduan, DBHko neskek eta mutilek antzeko esleipenak egiten dituzte; hala ere, aldeak daude ehunekoetan. Mutilek neskek baino errazago eta neurri handiagoan esleitzen dituzte sozialki "femeninotzat" hartutako gaitasunak; *edertasuna* da salbuespena. Bi sexueterako antzekotzat hartutako gaitasunak hauek izango lirateke: *eskuzabaltasuna, komunikatzeko gaitasuna eta eskuzko gaitasuna*. *Autoritatea, abusua*, eta batez ere *indar fisikoa* gizonei dagozkienak direla uste dute.





**4.4.2.b. grafikoa. Neskei eta mutilei edo biei ezaugarri fisikoen eta nortasun-ezaugarrien inguruan egindako esleipena, DBHko 2. mailako ikasleen arabera. ED15**





#### 4.4.3. Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera

Jarraian ageri den taulan LHko eta DBHko ikasleek “bientzako berdintzat” hartutako erantzunen ehunekoa ikus daiteke ikastetxearen titulartasunaren arabera

DBHko sare publikoko ikasleek publikokoek baino sexuen pertzepzio berdinzaleagoa adierazi dute.


Datuak handitik txikira ordenatu dira, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxe publikoen erantzunen arabera. Horrela, etapa honetako itunpeko ikastetxeetako ikasleek eta DBHko 2. mailako kideek adierazten duten pertzepzio desberdina ikus daiteke. Itzaldurarekin nabarmendu dira % 60ko kopurua gainditu duten erantzunak; atalase hori hartu dugu berdintasunezko gutxienezkotzat:

19. TAULA: BI SEXUEKIN LOTUTAKO EZAUGARRIAK, HEZKUNTZA SAREEN ETA ETAPEN ARABERA				
Ezaugarriak	LHko 4. maila %		DBHko 2. maila %	
	Publikoa	Itunpekoa	Publikoa	Itunpekoa
Ikasteko gaitasuna	71,9	74,3	74,5	71,0
Komunikatzeko erraztasuna	67,6	67,8	74,1	73,6
Ulermena	64,9	62,9	62,1	55,9
Autoritatea	64,5	67,1	73,7	68,5
Detailazalea izatea	62,7	54,8	69,9	57,0
Maitasuna	57,5	54,6	64,9	55,7
Eskuzabaltasuna	57,3	62,1	73,1	76,5
Sentikortasuna	56,6	49,7	56,5	45,1
Eskuzko gaitasuna	54,8	54,4	66,1	61,4
Ahulezia fisikoa	54,2	49,6	56,7	45,4
Babesteko beharra	54,1	51,8	61,1	54,5
Fintasuna	50,8	42,6	53,0	37,4
Samurtasuna	49,3	42,4	50,6	38,4
Edertasuna	47,6	42,7	62,6	58,2
Indar fisikoa	44,2	35,6	38,2	27,3
Abusua	43,7	42,2	48,6	44,6

Oro har, esan genezake ezaugarri fisikoak eta nortasun-ezaugarriak "bi sexueterako berdintasunean oinarrituta" esleitzen dituzten sare publikoko nesken eta mutilen ehunekoak altuagoak direla itunpeko sarekoen ehunekoak baino, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn.



#### 4.5. Gizonei eta emakumei egindako lanbideen esleipenarekin zerikusia duten ondorioak



Guztira proposatutako 22 lanbideren artetik, LHn ikasleen % 60k baino gehiagok 7 hartu dituzte "bi sexueterako egokitzat", eta DBHn, 15 lanbidetara igo da kopurua, ehuneko altuagoekin.

Ezaugarrien ekarpenekin gertatzen zen moduan, neskek mutilek baino pertzepzio berdinzaleagoa dute lanbideekin lotuta, eta pertzepzio horrek hobera egiten du adinarekin.

Lehen Hezkuntzako ikasleek (neskak eta mutilak) ikuspegi estereotipatua dute lanbide batzuen esleipenari dagokionez: dantza, garbiketa, elektrizitatea, igeltserotza...

Sare publikoko ikasleek itunpekoek baino neurri handiagoan uste dute lanbide gehienak berdinak direla emakumeentzat eta gizonentzat.



#### 4.6. Lanbideen esleipena

Galdetegian, ikasleei galdetu zitzairen beren ustez zein lanbide ziren "egokienak gizonentzat", zein "egokienak emakumeentzat" eta zein "bientzako berdinak".

Hau da galdera eta hauek dira erantzuna eman beharreko lanbideak:

Zure iritziaren arabera, adierazi zein lanbide diren egokienak gizonentzat, zein emakumeentzat, eta zein diren bientzako egokiak.

- a. Elektrizitatea
- b. Joskintza/moda
- c. Arkitektura
- d. Erizaintza
- e. Ikerketa zientifikoa
- f. Garbitasuna
- g. Abokatutza
- h. Ingeniaritza
- i. Taxia, metroa... gidatzea
- j. Medikuntza
- k. Ordenagailuen konponketa
- l. Dantza
- m. Ertzaina
- n. Enpresen zuzendaritza
- o. Sukaldaritza
- p. Kale-garbiketza
- q. Kirolaria
- r. Politika
- s. Idazkaritza
- t. Igeltserotza
- u. Ile-apainketa
- v. Irakaskuntza

Honako hau zen galderaren helburua: inkesta egindako hezkuntza mailetako ikasleek zer neurritan esleitzen dizkioten lanbide estereotipatuak sexu bati edo besteari, edo alderantziz, proposatzen diren lanbide desberdinen inguruan berdintasunean oinarritutako iritziak zer neurritan ematen dituzten.



#### 4.6.1. Emaizak etapan arabera

Hurrengo taulan jasotako erantzunak "bientzako egokitzat" eman dira. Datuak handitik txikira ordenatu dira, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeetako erantzunen arabera. Bestalde, itzaldurarekin nabarmendu dira % 60ko kopurua gainditu duten erantzunak; atalase hori hartu dugu berdintasunezko gutxienezkotzat:

20. TAULA: BI SEXUEI ESLEITUTAKO LANBIDEAK		
Lanbidea	LHko 4. maila %	DBHko 2. maila %
Irakaskuntza	71,6	81,7
Kirolaria	66,1	80,2
Abokatutza	63,6	81,3
Politika.	63,3	78,4
Enpresen zuzendaritza	61,7	77,3
Ikerketa zientifikoa	60,9	80,5
Medikuntza	60,3	79,0
Sukaldaria	58,8	76,1
Idazkaria	58,5	68,3
Erizaintza	56,5	65,4
Kale-garbiketa	54,7	63,7
Taxia, autobusa... gidatzea	52,9	51,6
Ertzaina	51,7	63,1
Ingeniaria	50,7	62,0
Arkitektura	50,1	66,3
Igeltserotza	47,5	51,9
Ordenagailuen konponketa	44,8	52,7
Garbitasuna	44,7	61,8
Elektrizitatea	42,9	42,7
Dantza	36,0	48,9
Ile-apainketa	36,0	47,6
Joskintza/moda	26,8	41,3

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen erdiek baino gehiagok uste dute lanbide gehienak bi sexuetarako egokiak direla.

Erantzunen datuen arabera, DBHn gora egiten du "bi sexuetarako egokiak" direla uste duten lanbide kopuruak. Bestalde, lanbidearen arabera, 10 eta 20 puntu artean egiten du gora "bientzako egokiak" direla uste duten ikasleen ehunekoak. Datu horiek aztertu ostean, esan genezake haurtzaroan zabaldutako ideia estereotipatu batzuk zalantzan jartzen direla nerabezaroan.

Ikasleen iritziz, zenbait lanbide "emakumeentzako egokiagoak" edo "gizonentzako egokiagoak" dira; hau da, "bientzako berdina" aukerarako % 60ko baino gutxiagoko ehunekoa dute. DBHn, zazpi lanbide hauek dira: *elektrizitatea*, *joskintza/moda*, *taxia*, *metroa... gidatzea*, *ordenagailuak konpontzea*, *dantza*, *igeltserotza* eta *ile-apainketa*. LHn, aurrezkoek gain, lanbide hauek ere "bientzako berdina" aukerarako % 60 baino



gutxiagoko ehunekoak adierazten dute: *arkitektura, erizaintza, garbiketa, ingeniari-tza, ertzaina, sukaldaritza, kale-garbiketa eta idazkaritza.*

#### 4.6.2. Emaitzak sexuaren arabera

Hurrengo taulan, LHko eta DBHko ikasleek “bi sexu-erako egokitzat” hartutako lanbideak nabarmentzen dira. Datuak handitik txikira daude antolatuta, Lehen Hezkuntzako 4. mailako nesken erantzunen arabera. Era berean, itzaldurarekin nabarmendu dira % 60ko kopurua gainditu duten erantzunak; atalase hori hartu dugu berdintasunezko gutxienezkotzat: Horrela, etapa honetako mutilek eta DBHko 2. mailako neskek eta mutilek adierazten duten pertzepzio desberdina ikus daiteke.

Ikasleen sexua kontuan hartuta emaitzak aztertzean, ikus daiteke neskek emandakoak direla "bientzako berdinak" aukeraren erantzun kopuru altuenak. Badirudi haurrak diren neskek eta neska nerabeak direla kopuru altuagoan uste dutenak lanbideek ez dutela pertsonen sexuarekin zerikusirik. Joera hori DBHko lanbide gehiagotara zabaltzen da; hezkuntza maila horretan, han ere, mutilek Lehen Hezkuntzako ikasleak diren mutilek baino balorazio ekitatiboagoa erakusten dute.


Neskek diren ikasleak mutilek baino berdin-zaleagoak dira lanbideen balorazioa egiteko garaian.

21. TAULA: BI SEXUEI MAILA BEREAN ESLEITUTAKO LANBIDEAK, SEXUAREN ETA ETAPAREN				
Lanbidea	LHko 4. maila %		DBHko 2. maila %	
	Neska	Mutila	Neska	Mutila
Kirolaria	74,1	58,2	84,2	76,4
Irakaskuntza	73,1	70,1	84,8	78,6
Abokatutza	68,6	58,7	84,4	78,4
Ikerketa zientifikoa	65,9	55,9	82,3	78,9
Enpresen zuzendaritza	65,7	57,8	80,5	74,3
Politika.	65,1	61,6	78,8	78,0
Medikuntza	62,7	57,9	83,3	74,9
Erizaintza	60,1	53,0	66,7	64,1
Sukaldaria	60,0	57,7	77,8	74,5
Idazkaritza	58,7	58,4	67,2	69,5
Ertzaina	56,6	46,9	66,0	60,4
Kale-garbiketa	55,7	53,6	65,0	62,5
Ingeniaria	53,9	47,6	64,0	60,2
Arkitektura	53,8	46,5	69,8	62,9
Taxia, autobusa... gidatzea	53,5	52,2	49,2	53,9
Igeltserotza	47,9	47,0	51,3	52,6
Ordenagailuen konponketa	47,3	42,4	52,6	52,9
Elektrizitatea	44,2	41,6	41,5	43,8
Garbitasuna	42,9	46,5	59,1	64,4
Dantza	35,9	36,2	51,2	46,7
Ile-apainketa	33,6	38,3	46,6	48,5
Joskintza/moda	24,6	28,9	42,2	40,5



Jarraian ageri den grafikoan, aurreko atalean egin zen moduan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen erantzunak jaso ditugu. Lehenik, ikasleek lanbide jakin batzuk gizonei eta emakumeei esleitzen zaizkiela diotenekin hasiko gara (0 puntua, erdigunea); ondoren, mutilek edo neskek batez ere emakumeenei (0 eta -1 arteko eskalan) edo gizonei (0 eta 1 arteko eskalan) dagozkienak direla adierazitakoak nabarmenduko ditugu. Gizonei egindako esleipen handienetik txikienera daude ordenatuta.

**4.6.2.a. grafikoa. Mutilei, neskei edo bie lanbide jakin batzuen inguruan egindako esleipenak, LHko 4. mailako ikasleen arabera. ED15.**




Lehen Hezkuntzan nabari da neskek eta mutilek lanbide jakin batzuk pertsonen sexuarekin lotuago ikusten dituztela beste lanbide batzuk baino. 4. mailako mutilek neskek baino neurri handiagoan esleitzen dituzte lanbide "maskulinoak", eta alderantziz, neskek sozialki "emakumeen munduarekin" lotuta dauden lanbideak mutilek baino neurri handiagoan hautematen dituzte.

Lehen Hezkuntzan aztertu den moduan, DBHko 2. mailako ikasleen erantzunak jaso ditugu. Lehenik, ikasleek lanbide jakin batzuk gizonei eta emakumeei esleitzen zaizkiela diotenekin hasiko gara (0 puntua, erdigunea); ondoren, mutilek edo neskek



batez ere emakumeenei (0 eta -1 arteko eskalan) edo gizonei (0 eta 1 arteko eskalan) dagozkienak direla adierazitakoak nabarmenduko ditugu. Gizonei egindako esleipen handienetik txikienera daude ordenatuta.

**4.6.2.b. Grafikoa. Mutilei, neskei edo biei lanbide jakin batzuen inguruan egindako esleipenak, DBHko 2. mailako ikasleen arabera. ED15 .**



Grafiko honetan, hasteko, mutilen eta nesken arteko erantzunetan nolabaiteko uniformetasuna nabari da, eta DBHko 2. mailako ikasleen ehuneko handi baten ustez lanbideak neskentzat eta mutilentzat izan daitezkeen arren, lanbide jakin batzuekin lotuta, oraindik ere badaude estereotipoak. Neurri batean, horietako askok ikasleek jasotzen duten errealitate sozialari erantzuten diote.





Honako hau ondoriozta daiteke:

- Oro har, “biak berdinak” aukera nagusitzen da, lanbideak sexu batekin edo bestearekin lotzearen gainetik. Hala eta guztiz ere, lanbide gehienen inguruko pertzepzio matxistak jarraitzen du oraindik ere, batez ere, tradizioz feminizatuta edo maskulinizatuta egon diren lanbideetan; izan ere, bigarren aukerak gizarte tradizionalarekin egiten du bat.
- la kasu guztietan, neskek mutilek baino jarrera berdinzaleagoa dute, baina bi taldeek antzeko iritziak adierazten dituzte.
- DBHko 2. mailako ikasleek Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek baino lanbideei buruzko pertzepzio berdinzaleagoa handiagoa dute.

Neskek berdinzaleagoak izan ohi dira, baina neskek eta mutilek bat egiten dute lanbide batzuk batez ere emakumeei (gizonei baino gehiago) esleitzerako garaian.

#### 4.6.3. Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, ezaugarri fisikoen eta nortasun-ezaugarrien ekarpenarekin egiten den moduan, LHn eta DBHn, lanbide guztietan, sare publikoko ikasleen ehuneko handiagoak adierazten du ezaugarriak “bientzako berdinak” direla”. Hau da, itunpeko sarean ikasten ari diren ikasleek gehiago nabarmentzen dituzte tradizioz batez ere emakumeenak edo gizonenak izan diren lanbideen estereotipoak.

Taulan datuak handitik txikira daude antolatuta, ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen erantzunen arabera. Horrela, etapa horretan bertan itunpeko ikastetxeetan eskolatutako ikasleek eta DBHko 2. mailako kideek adierazten duten pertzepzio desberdina ikus daiteke. Era berean, itzaldurarekin nabarmendu dira % 60ko kopurua gainditu duten erantzunak; atalase hori hartu dugu berdintasuneko gutxienezkotzat:



22. TAULA: BI SEXUETARAKO EGOKITZAT HARTUTAKO LANBIDEAK, HEZKUNTZA-SAREAREN ARABERA				
Lanbidea	LHko 4. maila %		DBHko 2. maila %	
	Publikoa	Itunpekoa	Publikoa	Itunpekoa
Irakaskuntza	72,1	71,2	82,8	80,7
Kirolaria	68,6	63,7	81,6	79,0
Politika	65,1	61,6	79,4	77,5
Abokatutza	64,3	62,9	81,9	80,8
Idazkaritza	64,2	53,0	76,1	61,5
Ikerketa zientifikoa	62,6	59,2	80,9	80,2
Medikuntza	62,1	58,5	79,5	78,5
Enpresen zuzendaritza	62,0	61,4	78,6	76,2
Sukaldaritza	60,6	57,1	78,2	74,3
Erizaintza	57,2	55,9	67,5	63,4
Kale-garbiketa	57,1	52,3	65,5	62,0
Taxia, autobusa... gidatzea	56,1	49,7	55,6	48,1
Ingeniaria	54,9	46,6	64,3	60,0
Arkitektura	53,3	46,9	67,3	65,4
Ertzaina	53,2	50,3	67,2	59,6
Igeltserotza	51,4	43,6	59,0	45,7
Ordenagailuen konponketa	49,3	40,4	57,1	48,8
Garbitasuna	48,8	40,6	66,3	57,8
Elektrizitatea	47,2	38,6	47,2	38,7
Dantza	41,1	31,1	54,9	43,6
Ile-apainketa	39,3	32,6	51,8	43,8
Joskintza/moda	31,3	22,3	46,7	36,6

Galdetegian dauden 22 lanbideren artetik, sare publikoko LHko ikasleen % 50ek baino gehiagok uste du 16k "bi sexueterako" balio dutela; aldiz, itunpeko sareko ikasleen % 50ek baino gehiagok 11 lanbideri (guztizkoaren erdia) aplikatzen dio irizpide hori. Zazpi lanbidetan, sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko aldeak 8 puntuok baino handiagoak dira (11,2 puntu *idazkaritzan* eta 10,0 *dantzan*).

DBHko ikasleek egindako balorazioak LHkoek egindakoa baino berdinzaleagoak dira; oro har 10 puntu baino gehiagoko igoerak izan dituzte. Gainera, lanbide batzuetan sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko aldeak murriztu dira; hala eta guztiz ere, sare publikoko ikasleen % 50 baino gehiagoren ustez, galdetegiko 22 lanbidetatik 20 "bi sexuei" dagozkie. Aldiz, itunpeko sareko ikasleek 15 lanbideri esleitzen die balorazio hori.



#### 4.7. Gizonentzako eta emakumeentzako bizitzako aukerekin zerikusia duten ondorioak



Proposatzen ziren bizitzako 10 aukera motatatik, LHko eta DBHko ikasleen % 70ek baino gehiagok bi sexuetarako berdintasuna ikusten du 4 kasutan (ikastea, lana aurkitzea, zoriontsu izatea eta bikotea ez den beste adiskide batzuk edukitzea), eta DBHn beste kasu bat gehitzen da: jarraitu nahi ez duzun bikotearekin harremana haustea.

Oro har, nesken eta mutilen berdintasun-ikuspegiak hobetu egiten dira LHtik DBHra. DBHko neskek, aldiz, aukera gutxiago jasotzen dituzte politikan edo enpresetan botere-postuak hartzearekin lotuta.

Bi etapetako mutilek eta neskek uste dute bizitzan zehar emakumeek eta gizonek aukera desberdinak izango dituztela.



#### 4.8. Bizitzako aukeren esleipena

ED15eko galdetegian galdera bat egin zen gizonen eta emakumeen bizitzan zehar egoera desberdinetan dituzten aukerei buruzko iritziak ezagutzeko asmoz. LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan, ikasleei galdetu zitzaion beren ustez hainbat agertokitan helduaroan zeinek izango zituen aukera gehiago. Hauek dira galderak barne hartzen dituen 10 egoerak:

Adierazi zure iritziz helduaroan egoera hauetan zeinek uste duzun izango dituela aukera gehien:

- a. ... ikasteko
- b. ... lana aurkitzeko
- c. ... soldata ona lortzeko
- d. ... enpresa batean botere-postuak lortzeko
- e. ... politikan botere-postua lortzeko.
- f. ... etxean atsedean hartzeko
- g. ... seme-alabekin harreman afektiboak izateko
- h. ... jarraitu nahi ez duzun bikotekidearekin harremana hausteko
- i. ... zoriontsuak izateko
- j. ... bikotea ez den beste adiskide batzuk izateko



#### 4.8.1. Emaitzak etapen arabera

Hurrengo taulan, erantzunei dagozkien datu metatuak banakatzen dira, ikasleen etaparen arabera. Itzaldurarekin nabarmendu dira % 60ko kopurua gainditu duten erantzunak; atalase hori hartu dugu berdintasunezko gutxienezkotzat:

23. TAULA: AUKEREN EKARPENA BIZITZAN ZEHAR, ETAPAREN ARABERA		
Egoera	LHko 4. maila %	DBHko 2. maila %
Zoriontsu izatea	78,3	88,3
Bikotea ez den beste adiskide batzuk izatea	78,0	84,8
Ikastea	74,9	75,2
Lana aurkitzea	73,1	70,0
Soldata ona lortzea	66,2	64,4
Bikote batekin harremana haustea	65,3	70,4
Seme-alabekin harreman afektiboak izatea	63,7	65,0
Enpresa batean botere-postuak lortzea	60,2	60,7
Politikan botere-postua lortzea	59,1	61,1
Etxean atsedean hartzea	55,5	62,5

Taulan ikusten den moduan, LHko eta DBHko ikasleek uste dute helduaroan lau egoeratan (*ikasit, lana aurkitu, zoriontsu izan eta adiskideak eduki*) emakumeek eta gizonak gauzatzeko aukera handiak izango dituztela.

Jarraitu nahi ez duzun bikotearekin hausteari dagokionez, LHko ikasleek beren iritziak honela banatzen dituzte: "gizonak gehiago" % 20,3, "emakumeak gehiago" % 14,4 eta "aukera berdina" % 65,3. DBHko ikasleen kasuan, "aukera berdina" aukera % 70,4ra iristen da, baina "gizonak gehiago" aukeraren aldeko 5,9 puntuko aldea mantentzen da (% 17,8), "emakumeak gehiago" aukeraren gainera (% 11,9).

Neskek eta mutilek alde handiak nabari dituzte bizitzan izango dituztela uste duten aukeren mailetan. Bat egiten dute pentsatzean bi sexuek aukera berberak izango dituztela beren autonomia pertsonalarekin zerikusia duten arloetan.

Neskek eta mutilek bat egiten dute *zoriontsu izateko, bikotea ez den beste adiskide batzuk izateko eta ikasteko* aukera handiak eta antzekoak izango dituztela pentsatzean.

LHn eta DBHn bat egiten dute "emakumeentzat eta gizonentzat aukera berberak" neurri handiagoan aitortzen diren lehen hiru egoerek (*zoriontsu izatea, bikotea ez den beste adiskide batzuk izatea eta ikastea*). *Zoriontsu izateak* 10 puntuko igoera izan du. *Ikastea* berriz, berdina baloratuta dago bi etapetan. LHn eta DBHn bat egiten dute baita ere berdintasunezko balorazio-indize txikiak esleitzen dituzten hiru egoerek (*etxean atsedean hartzea, politikan botere-postua lortzea eta enpresan botere-postuak lortzea*); antzeko indizeak lortu dituzte.

"Emakumeak gehiago" eta "gizonezkoak gehiago" aukerak, kasu guztietan, "biek berdina" aukeraren oso atzetik geratzen dira kasu guztietan. Hala eta guztiz ere, merezi du zenbait egoeraren datuetan arreta jartzea; izan ere, bigarren aukerak ikasleek euskal gizartearen inguruan duten pertzepzioa zehazten laguntzen du.



Laburbilduz, Lehen Hezkuntzako datuak DBHko datuekin alderatuz gero, ikus genezake DBHko ikasleek LHkoek baino modu berdinzaleagoan jasotzen dituztela bizitzan zeharreko aukerak egoera batzuetan behintzat (*zoriontsu izatea, bikotea ez den adiskideak izatea* edo *atseden hartzea*) eta modu okerragoan besteren batean (*lana topatzea*).

#### 4.8.2. Emaidzak sexuaren arabera


Hurrengo taulan, LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako neskek eta mutilek bizitzan zehar izan daitezkeen aukeren inguruan emandako erantzunetako datu metatuak ageri dira. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen erantzunen arabera, handitik txikira daude ordenatuta, eta ostera ere, itzaldurarekin nabarmendu dira % 60 gainditu duten erantzunak; atalase hori hartu dugu berdintasunezko gutxienezkotzat.

24. TAULA: AUKERA BERDINTASUNEN ESLEIPENA BIZITZAN ZEHAR, IKASLEEN SEXUAREN ARABERA				
Egoera	LHko 4. maila %		DBHko 2. maila %	
	Neska	Mutila	Neska	Mutila
Zoriontsu izatea	81,0	75,6	88,7	87,9
Bikotea ez den beste adiskide batzuk izatea	80,7	75,2	85,4	84,2
Lana aurkitzea	76,5	69,7	69,7	70,2
Ikastea	75,9	74,0	75,5	74,9
Soldata ona lortzea	69,8	62,6	63,1	65,7
Jarraitu nahi ez duzun bikotekidearekin harremana haustea	67,8	62,9	68,7	72,0
Seme-alabekin harreman afektiboak izatea	64,2	63,2	61,6	68,3
Enpresa batean botere-postuak lortzea	62,5	57,9	59,3	62,0
Politikan botere-postua lortzea	61,5	56,8	57,7	64,2
Etxean atseden hartzea	55,3	55,8	58,9	65,9



Bizitzak gizonei (0 eta 1 artean) eta emakumeei (0 eta -1 artean) edo biei (0 puntua, erdigunea) eman diezazkiekeen aukerei dagokienez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek aukera hauek erakusten dituzte:

**4.8.2.a. grafikoa. Gizonentzat, emakumeentzat edo bientzat bizitzako aukeren esleipena, LHko 4. mailako ikasleen arabera. ED15**




Aurreko grafikoan erantzun gehienak “bientzako berdin” aukeran pilatuta daudela dirudien arren, neskek eta mutilek uste dute gizonek eta emakumeek etorkizunean abantaila edo desabantaila bereizleren bat eduki dezaketela dagokien sexuaren arabera.



Bizitzak gizonei (0 eta 1 artean) eta emakumeei (0 eta -1 artean) edo bie (0 puntua, erdigunea) eman diezazkiekeen aukerei dagokienez, DBHko 2. mailako ikasleek aukera hauek erakusten dituzte:

**4.8.2.b. grafikoa. Gizonentzako eta emakumeentzako bizitzako aukeren taldekatze faktoriala, DBHko 2. mailako ikasleen ikuspegitik, sexuaren arabera. ED15.**



Mutilek eta neskek oso iritzi desberdinak dituzte. Aurkeztutako aukera askotan uste duten arren gizonek eta emakumeek aukera berdinak izango dituztela, alde batzuk ere nabaritzen dira oraindik ere.






Neskek LHn balorazio baikorrak eskaintzen dituzte; izan ere, emandako iritzietan, “biek berdin” aukerak, egoera guztietan, mutilen balorazioak gaintzen ditu, bi sexuetan ia-ia berdina den batean izan ezik. Hauetan nabarmentzen dira mutilak diren kideekiko 5 puntu baino gehiagoko aldeak: *soldata ona lortzea* (7,3 puntu), *lana topatzea* (6,7), *bikotea ez den beste adiskide batzuk izatea* (5,6) eta *zoriontsu izatea* (5,4).

LHn erakutsitako joera guztiz aldatzen da DBHn. Etapa honetako neskek, “biek berdin” aukera mutilek baino sei egoera gutxiagotan baloratu dute (beste lau kasuetan aldeak 1 puntu baino baxuagoak dira). Badirudi mutilak baikorrak direla, eta agian, esan liteke neskek errealistagoak edo kontzienteagoak direla egungo gizartean dagoen egoeraren pertzepzioari dagokionez.

Hain zuzen ere, DBHko mutilek berdintasunezko balorazioak egoera guztietan hobetu dituzten arren, neskek lau egoeratan soilik hobetu dituzte eta ikuspegiak sei egoeratan murriztu dituzte. Neskek batez ere, *zoriontsu izateari* dagokionez egin dute gora (+7,7 puntu), baina *lana aurkitzeari* dagokionez neurri handiagoan murriztu dute balorazioa (-6,8 puntu). Mutilek *zoriontsu izateko* (+12,3), *etxean atsedean hartzeko* (+10,1) eta *bikotearekin harremana hausteko* (+9,1) arloan hobetu dute batez ere balorazioa.

Oro har, nesken eta mutilen berdintasun-ikuspegiak hobetu egiten dira LHtik DBHra. DBHko neskek, aldiz, aukera gutxiago jasotzen dituzte politikan edo enpresetan botere-postuak hartzearekin lotuta.



Azkenik, adierazi nahi dugu emaitzak ez direla hezkuntza-sarearen arabera aurkeztzen; izan ere, azterketaren arabera, sare publikoaren eta itunpeko sarearen artean ez dago alde adierazgaririk.





## BERDINEN ARTEKO HARREMANAK





#### 4.9. Berdinen arteko tratu txarren pertzepzioaren ondorioak, behatzen dutenen ikuspegitik



*ISEK maila txikiena duten eta familiek ikasketa gutxien dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleek adierazi dute berdinen arteko tratu txar egoera gehien sumatu dituztela. Aldiz, DBHko ikasleen artean egoera alderantzizkoa da.*

*Ezaugarri fisikoak, jatorria, kultura eta arraza dira bi etapetan ikasleen arteko tratu txarrak gertatzearen arrazoi nagusietako bat.*

*Lehen Hezkuntzan mutila edo neska izateagatik nabari den bereizkeria maila nabarmen jaisten da DBHn.*

*DBHn jokabide homofobikoen edo lesbofobikoen pertzepzioaren inguruan egindako galderaren aurrean, gay diren mutilek lesbianak diren neskek baino gehiago jasaten dutela dirudi. Egoera hori ikastetxe publikoetan gehiago nabari da, baita ISEK maila handiagoko eta unibertsitateko ikasketak dituzten familietatik datozen ikasleen artean ere.*

*Kultura, erlijio edo jatorrizko herrialde desberdineko gelakideekin batera egoteak igo egiten du onarpen maila, bai nesken kasuan, bai mutilen kasuan.*



#### 4.10. Berdinen arteko tratu txarra behatzen dutenen pertzepzioa

J.I. Pichardo Galán<sup>30</sup> taldeak egindako txostenak honako hau adierazten du:

*“Horrela, lan honetan zehar egiazta dezakegu generoa (mutila edo neska, gizona edo emakumea, gizonazko irakaslea edo emakumezko irakaslea, ikasle mutila edo ikasle neska) jokabideak bereizten dituen oinarrizko aldagaia izango dela, eta ez bereizketa- edo bazterketa-jokabideen eragile izateko orduan soilik, baizik eta baita horien biktima izateko orduan ere. Horrela, gizonak emakumeak baino maizago ageri ohi dira irainak egiten dituzten edo bereizketa-jokabideak dituzten pertsona moduan. Era berean, gizonak jazarpenaren biktimak direnean, laguntzarik ez eskatzeko edo indarkeria erabiltzeko joera handiagoa dute”.*

Sexuaren edo generoaren arabera bereizketak izan dezakeen ondorioz okerrenetako bat indarkeriazko jokabideak agertzea da, komunikabideetan etengabe entzun ohi den moduan. Zorionez, "0 indarkeria 0 urtetik" agindua pixkanaka-pixkanaka eragina izaten ari da ikastetxeetako hezkuntza-sarean.

Atal honetan, eskola arloan berdinen artean egiten den indarkeria aztertuko dugu eta kausa edo arrazoi batzuetan arreta ezarriko dugu.

Galdetegian berdinen arteko tratu txarren edo *bullying*aren inguruko atal bat txertatu zen; horrek, beste batzuen artean, genero-arrazoia dela eta diskriminazioarekin edo bereizketarekin zerikusia duten zenbait arlo biltzen zituen. Gaia bi ikuspegitatik landu zen: behatzaileena eta biktimena<sup>31</sup>. Esan beharra dago ikerketa honetan eta ISEI-IVEIk argitaratutako guztietan erabiltzen den *bullying* kontzeptuak ezaugarri hauek dituela: nahita egindako ekintza da, mina, beldurra, larritasuna... eragitea lortu nahi da. Ekintza asimetrikoa da, eraso egiten duen pertsonaren eta biktimaren artean botere-desberdintasuna egongo da, eta errepikaria eta errepikakorra izango da. Jarraian ageri diren datuek eta tratu txarren indize orokorra egiteko erabiltzen direnek “sarri” eta “beti” aukeren metatutako ehunekoak biltzen dituzte.

<sup>30</sup> Pichardo Galán, J.I. eta besteak (2014): *Diversidad sexual y convivencia: una oportunidad educativa*. Madril: Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.

<sup>31</sup> Ikus ISEI-IVEIren txostena (2016): *Berdinen arteko tratu txarrak ED15 eta Berdinen arteko tratu txarrak 2016* (webgunean argitaratzeke).



Hasteko, galdera bat egin zitzaion tratu txarra behatzen duenaren ikuspegitik:

*Adierazi zure ikastetxean ikusi duzun besteek zure gelakideren bat (neska edo mutila) etengabe baztertzen, arbuizatzen, jotzen... arrazoi hauek direla eta.<sup>32</sup>*

**Lehen Hezkuntzako 4. mailan:**

- a. Mutila izateagatik.
- b. Neska izateagatik.
- c. Ezaugarri fisikoengatik edo janzteko moduarengatik, betaurrekoak edukitzeagatik...
- d. Jatorri atzerritarra duelako, edo kultura edo arrazarengatik.
- e. Desgaitasunen bat izateagatik.
- f. Erljioarengatik
- g. Ez dut inoiz ikusi.

**DBHko 2. mailan:**


- a. Mutila izateagatik.
- b. Neska izateagatik.
- c. Gay izateagatik.
- d. Lesbiana izateagatik.
- e. Ezaugarri fisikoengatik edo janzteko moduarengatik, betaurrekoak edukitzeagatik...
- f. Jatorri atzerritarra duelako, edo kultura edo arrazarengatik.
- g. Desgaitasunen bat izateagatik.
- h. Erljioarengatik.
- i. Ez dut inoiz ikusi.

Lerro hauetan, tratu txarrak jasotzeko modu desberdinei dagokienez, emaitzen azterketa aurkezten da hainbat aldagairen arabera: etapak, sexua, sarea, ikaslearen banakako ISEK eta familia-tipologiak.

#### 4.10.1. Emaitzak etapen arabera

Emaitzak etapa hauen arabera banakatuta:

4.10.1. grafikoa. LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak. ED15.



<sup>32</sup> Atal hau ISEI-IVEIk 2016ko maiatzean egindako ikerketaren gaineko txostenean lantzen denez, laster argitaratuko da, zehatzago homofobiarekin, lesbofobiarekin, neska edo mutila izatearekin eta ezaugarri fisikoekin... zerikusia duten ikasleek emandako erantzunak aztertzeraz mugatuko gara.



Datuek, oro har, hauek nabarmentzen dituzte:


- LHko ikasleen % 56,5ek eta DBHko ikasleen % 53,2k adierazi du arrazoi desberdineko jazarpen jarraituko kasuak ikusi dituela.
- Bi etapetan, tratu txarrak jasotzeko arrazoi nagusia hauekin lotutakoa da: *ezaugarri fisikoekin edo janzteko moduarekin, betaurrekoak edukitzea...* % 26,7k adierazten du hori LHn eta % 38,6k DBHn.
- LHn, *neska izatea* edo *mutila izatea* da eskola-jazarpenera jasotzeko hurrengo maiztasun mailarik handiena duena, antzeko indizeekin (% 16,8 eta % 18,5 artean). Aldiz, DBHn, askoz ere indize baxuagoak ageri dira (% 3,8 eta % 4,4 artean).
- DBHn soilik egiten da jatorri homofobikoa duen jazarpenera. Erantzunen arabera, % 15,7 *gaytzat hartzeagatik* eta % 5,2 *lesbianatzat hartzeagatik*.
- Jazarpenera egiteko beste arrazoiak, esate baterako, *erlijioa, desgaitasuna eta jatorria*, LHko haurrek % 12 eta % 20 artean eta DBHkoek % 7 eta % 21 artean ikusi dituzte.

Lehen Hezkuntzako ikasleek *neska izateagatik* edo *mutila izateagatik* berdin arteko tratu txar egoera gehiago ikusten dituzte DBHko ikasleek baino.

#### 4.10.2. Emaitzak sexuaren arabera

Neskak diren ikasleek eta mutilak diren ikasleek emandako erantzunak bereiziz egin da azterketa; hauek izan dira emaitzak:


4.10.2.a. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, sexuaren arabera. ED15.







4.10.2.b. grafikoa. DBHko 2. mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, sexuaren arabera. ED15.



Datuek zenbait desberdintasun eta antzekotasun islatzen dituzte:

- Mutilek neskek baino jazarpen gehiago ikusi dute LHn, baina DBHn alderantziz gertatzen da eta neskek dira maiztasun handiagoa nabaritzen dutenak.
- LHn, bi sexuen artean, ehunekoetan ez dago alde handirik. Salbuespena da neskek tratatu txarren maila handiagoa ikusten dutela nesken artean, eta mutilek mutilen artean.
- DBHn, neskek eta mutilek antzeko moduan ikusten dute homofobiarekin lotutako tratatu txarra. Hala ere, gay diren mutiletan lesbianak diren nesketan baino kasu gehiago ikusten dituzte.
- DBHn neskek jazarpen gehiago ikusten dute mutilek baino (8,4 puntu gehiago) *itxura fisikoarekin* lotuta. Alde hori neskentzat itxura fisikoak duen garrantziarekin lotuta egon daiteke.

DBHn, ezaugarri fisikoengatik, jantziengatik... izan ohi diren tratatu txarrak dira garrantzitsuenak, eta batez ere neskek ikusten dituzte.


### 4.10.3. Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera

Aurreko jokabideak hezkuntza-sarearen arabera aztertzen baldin badira, ia ez dago alderik Lehen Hezkuntzaren eta DBHren artean. Agian, aipagarriena izan liteke itunpeko sareko Lehen Hezkuntzako ikasleek tratatu txar egoera gutxiago ikusten dituztela (% 6,3 puntu gutxiago).


Ikasleen hezkuntza-sarearen arabera banakatutako emaitzen azterketak, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan, emaitza hauek eskaintzen ditu:



4.10.3.a. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, sarearen arabera. ED15.



4.10.3.b. grafikoa. DBHko 2.. mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, sarearen arabera. ED15.



- Itunpeko sareko LHko ikasleek tratatu txar egoera gutxiago ikusten dituzte (6,3 puntu gutxiago); DBHn egoera hori orekatu egiten da sareen artean.
- LHn, sare publikoan, *neska izateagatik* edo *mutila izateagatik* indizeak itunpekoak baino zertxobait altuagoak dira.
- Hala eta guztiz ere, itunpeko sareko DBHko ikasleek tratatu txar gehixeago ikusten dute beren inguruan *ezaugarri fisikoak direla eta*. Lehen Hezkuntza, indizeak antzekoak dira.
- Aldiz, DBHn, sare publikoan, jazarpen homofobikoaren intzidentzia handixeagoa agertzen dute; hau da, *gaytzat hartzeagatik* eta *lesbianatzat hartzeagatik*.

DBHko ikastetxe publikoetako ikasleek itunpeko sarekoek baino ehuneko altuagoan ikusten dituzte jokabide homofoboak.


#### 4.10.4. Emaitzak familien ikasketa mailaren eta ikasleen ISEK mailaren arabera

Jarraian, eskola arloan ikusitako berdinen arteko jazarpen-jokabideekin zerikusia duten emaitzak ageri dira oso antzeko jarrera duten bi aldagaiekin gurutzatuta: ikasleen banakako ISEK eta gurasoen ikasketa mailak.


Ikasleen ISEK aldagaia eta LHko 4. mailako familien ikasketak kontuan hartuta berdinen arteko tratatu txarren azterketak datu hauek eskaintzen ditu:



**4.10.4.a. grafikoa. LHko 4. mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, banakako ISEK mailaren arabera. ED15.**




**4.10.4.b. grafikoa. LHko 4.mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, familiarterkoen ikasketak mailaren arabera. ED15.**






DBHko 2. mailan, emaitzak honako hauek dira:

4.10.4.c. grafikoa. DBHko 2.mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, banakako ISEK mailaren arabera. ED15.



4.10.4.d. grafikoa. DBHko 2.mailako ikasleek ikusitako jazarpen jarraituko egoerak, familiartekoen ikasketak mailaren arabera. ED15.



Aurreko grafikoetako datuek hau jartzen dute agerian:

- LHn, zenbat eta ISEK eta familiako ikasketen maila baxuagoa izan, orduan eta jazarpen-jokabide gehiago ikusten dira. DBHn egoera alderantzikatu egiten da.
- LHn eta DBHn, zenbat eta ISEK edota familiako ikasketen maila txikiagoa izan, *mutila izateagatik* eta *neska izateagatik* zerikusia duten tratatu txarren jokabide gehiago nabari dira.
- Hala eta guztiz ere, arrazoi hori alderantzikatu egiten da arrazoa *ezaugarri fisikoekin* (jantziak, betaurrekoak...) edo *gay izatearekin* lotutakoa baldin bada.



Familien egoera ekonomikoak eta kulturalak ez du eragiten DBHn *lesbiana izateagatik* neska bati jazarpena egiteko garaian.

- DBHn, ISEK maila ertaina-altua edo altua dutenek, eta gurasoetako batek unibertsitate mailako ikasketak dituzten familiakoak direnek jazarpen gehiago hautematen dute *gelakideren bat gaytzat hartzeagatik*.

ISEK maila baxua duten LHko ikasleek tratatu txar gehiago ikusi ohi dute *neska izateagatik mutila izateagatik baino*. DBHko ISEK maila ertaina-altua edo altua dutenek jazarpen handiagoa antzematen dute *gaytzat hartzeagatik*.





#### 4.11. Berdinen arteko tratu txarren pertzepzioaren ondorioak, biktimen ikuspegitik

*Lehen Hezkuntzako ikasleen % 62k eta DBHko % 86k baino gehiagok ez du berdinen arteko tratu txarrik jasan. "Bullying" jokabideek behera egiten dute adinarekin.*

*Mutilak neskak baino kasu gehiagotan izan ohi dira tratu txarren biktimak egoera guztietan eta bi etapetan, DBHko 2. mailako neskak izan ezik, ezaugarri fisikoak direla eta.*

*Sare publikoko ikasleen ehuneko zertxobait altuago batek (% 5 gehiago Lehen Hezkuntzan eta % 2 gehiago DBHn) adierazi du berdinen arteko tratu txar egoeraren baten biktima izan dela.*

*ISEK baxua duten ikasleek ISEK altua dutenek baino "bullying" gehiago jasaten dute (% 12 gehiago Lehen Hezkuntzan eta % 5 gehiago DBHn). Egoera hori gertatzen da aipatutako egoera guztietan.*

*Homofobiaren edo lesbofobiaren biktima sentitzen dela dioten DBHko ikasleak ia ez dira % 1,5era iristen.*



## 4.12. Berdinen arteko tratu txarren biktima direnen pertzepzioa

Aurreko atalean adierazi den moduan, galdetegian bigarren galdera bat txertatu da; galdera horren bidez, biktimen ikuspegitik, berdinen arteko tratu txarren egoerak edo *bullying* egoerak bildu nahi dira.

Hau da egindako galdera

*Adierazi ikasturte hau hasi zenetik baztertu, arbuiatu, iraindu edo jo egin bazaituzte, edo jarraian adierazitako egoeraren batengatik beldurra pasarazi baldin badizute:*

<i>Lehen Hezkuntzako 4. mailan:</i>	<i>DBHko. 2. mailan:</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>a. Neska edo mutila izateagatik.</li> <li>b. Nire ezaugarri fisikoengatik edo janzteko moduarengatik, betaurrekoak edukitzeagatik...</li> <li>c. Jatorri atzerritarra dudalako, edo nire kultura edo arrazarengatik.</li> <li>d. Desgaitasunen bat izateagatik.</li> <li>e. Nire erlijioarengatik.</li> <li>f. Ez zait inoiz gertatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>a. Neska edo mutila izateagatik.</li> <li>b. Nire orientazio sexualarengatik.</li> <li>c. Nire ezaugarri fisikoengatik edo janzteko moduarengatik, betaurrekoak edukitzeagatik...</li> <li>d. Jatorri atzerritarra dudalako, edo nire kultura edo arrazarengatik.</li> <li>e. Desgaitasunen bat izateagatik.</li> <li>f. Nire erlijioarengatik.</li> <li>g. Ez zait inoiz gertatu.</li> </ul>

Aurreko atalean bezalaxe, ikasleak aintzat hartutako jazarpen-jokabideak garatzen diren horretan, biktimak sentitzen diren pertsonekin zerikusia duen atal honetan, aukera hauek soilik aztertzearen alde egin da: a), b) eta f) Lehen Hezkuntzaren kasuan eta a), b), c) eta g) DBHn.






### 4.12.1. Emaizak etapen arabera

Etapen arabera banakatutako datuak hauek dira:

4.12.1.a. grafikoa. Jazarpen-egoerak biktima gisa LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan. ED15.



- LHko ikasleek, oro har, berretsi dute DBHko ikasleek baino berdinen arteko tratatu txar egoera gehiago jasaten dituztela.
- LHko ikasleen % 16k baino gehiagok adierazi du jazarpena jaso duela ikasturtean zehar *neska izateagatik edo mutila izateagatik*, edo *ezaugarri fisikoengatik*.
- DBHn, maiztasunik handiena *ezaugarri fisikoengatik* arbuizte-kasuei dagokie (ia % 9); ondorioz, gainerako egoerak gertakarien % 2,0ren behetik kokatzen dira.

LHko ikasleen % 17k diote tratatu txarrik jasan dituztela *mutila izateagatik edo neska izateagatik*. DBHn, % 9k *ezaugarri pertsonalengatik*.

### 4.12.2. Emaizak sexuaren arabera


Nesken eta mutilen erantzunak banaka aztertu ostean, alde hauek ikus daitezke:

- LHn, nesken artean, berdinen arteko tratatu txarren eragin txikiagoa dago (5,4 puntu gutxiago). Zehazki, alde gutxi dago bi hauen artean: *neska izateagatik* (% 16,3) edo *mutila izateagatik* (% 17,7), baita *itxura fisikoarengatik* ere.
- DBHn, mutilek eta neskek oso antzeko ehunekoak erakusten dituzte berdinen arteko tratatu txarren egoera guztietan. Nesketan handixeagoa den gertakari bat bakarrik dago *beren ezaugarri fisikoengatik* (1 puntu); badirudi hori dela jazarpen-arrazoi nagusia.


Lehen Hezkuntza, eta neurri txikiagoan DBHn, mutilek neskek baino tratatu txar egoera gehiago jasaten dituzte.



4.12.2.a. grafikoa. Jazarpen-egoerak biktima gisa LHko 4. mailan. ED15.



4.12.2.b. grafikoa. Jazarpen-egoerak biktima gisa DBHko 2. mailan. ED15.



### 4.12.3. Emaitzak hezkuntza-sarearen arabera


Sare publikoarekin lotuta, ikusten da DBHko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen % 2 eta % 5 arteko kopuruak, hurrenez hurren, adierazi duela berdinaren arteko jazarpenaren biktimak izan direla.

Horrela, hezkuntza-sareen aurreikuspenetik, honako hau ikus daiteke:


- LHko eta DBHko sare publikoko ikasleek itunpekoek baino neurri handiagoan adierazten dute eskola mailako tratu txarren bat jaso dutela.
- Alderik handienak *neska izateagatik edo mutila izateagatik* gertatzen dira (2,9 puntu gehiago Lehen Hezkuntzako sare publikoan eta 1 puntu DBHn).

Sare publikoko ikasleen ehuneko altuago batek, gehiago LHn, adierazi du jazarpena jasan duela.

4.12.3.a. grafikoa. Jazarpen-egoerak biktima gisa LHko 4. mailan, sarearen arabera. ED15.



4.12.3.b. grafikoa. Jazarpen-egoerak biktima gisa DBHko 2. mailan, sarearen arabera. ED15.







#### 4.12.4. Emaitzak ikasleen ISEK mailaren arabera

Ikasleen ISEK maila desberdina berdinen arteko tratu txarren faktore bereizlea dela dirudi. Ikus ditzagun datuak eta ondorioak:

4.12.4.a. grafikoa. Jazarpen-egoerak biktima gisa LHko 4. mailan, banakako ISEK mailaren arabera. ED15.



4.12.4.b. grafikoa. Jazarpen-egoerak biktima gisa DBHko 2. mailan, banakako ISEK mailaren arabera. ED15.



- Bi hezkuntza mailetan, ISEK maila txikienekoetan, berdinen arteko tratu txar egoera gehiagoren biktima izan direla esan dute. LHn aldea 13,1 puntura iristen da eta DBHn aldea 6,6 puntukoa da.
- LHn aldeak oso handiak dira egoera guztietan; hala ere, handiagoak *neska izateagatik edo mutila izateagatik* (mutilen artean, ISEK baxua dutenek, tratu txarrei dagokienez, kopurua bikoiztu egiten dute ISEK altua dutenekin alderatuta).
- DBHn, jazarpenaren intzidentzia LHn baino txikiagoa da egoera guztietan. ISEK maila desberdinen arteko aldeak egoera guztietan ere ikusten dira, baina tratu

ISEK zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta tratu txar egoera gehiago. Lehen Hezkuntzan, neska izateagatik eta mutila izateagatik batez ere.



txarren kasuan, alde handia dago ISEK maila baxuko eta ISEK maila altuko ikasleen artean eta *ezaugarri fisiko pertsonalengatik* egindakoan (3,4 puntu).





### 4.13. Gelakideen aniztasunaren aurrean neskek eta mutilek dituzten jarrerak

Hezkidetzan oinarritutako ikastetxea “desberdina” denari ukorik egiten ez dion ikastetxea da, eta neskek eta mutilek diren ikasleek modu positiboan baloratzen dutena beste ezaugarri sozial, arrazarekin lotutakoak, erlijiosoak, kulturalak, ekonomikoak... dituzten ikasleekiko harremana.

ISEI-IVEIk<sup>33</sup> egindako beste lan monografiko batean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek eta DBHko 2. mailako ikasleek ikastetxeko lana jatorri, kultura edo erlijio desberdineko gelakideekin (neskek edo mutilek) partekatzea gustatuko litzaiekeen adieraziko duten jarreraren inguruko ondorioak aurkeztu dira.

Hurrengo lerroetan, neskek eta mutilek adierazi dituzten iritzien inguruko informazioa aurkeztu dugu; izan ere, Euskadiko ikastetxeetan berdintasunaren egoera orokorraren inguruko irudia osatzen laguntzen duela uste dugu.

Galdetegietan galdera hauek egin zitzaizkien:


<i>Lehen Hezkuntzako 4. mailan</i>	<i>DBHko. 2. mailan</i>
<p><i>Gustatuko al litzaizuke bikoteka gelako lan bat egitea zure erlijioa ez den <b>beste erlijio batekoa</b> den (musulmana, kristaua, judutarra, Jehovahen lekukoa, budista...) gelakide batekin?</i></p> <p><i>Gustatuko al litzaizuke bikoteka gelako lan bat egitea zuretik <b>desberdina den herrialde</b> (Errumania, Kolonbia, Aljeria, Txina, Euskadi, Alemania, Estatu Batuak...) batekoa den gelakide batekin?</i></p>	<p><i>Gustatuko al litzaizuke bikoteka gelako lan bat egitea zuretik <b>desberdina den kultura</b> (arabiarra, afrikarra, ijitoa, euskalduna, amerikarra...) batekoa den gelakide batekin?</i></p> <p><i>Gustatuko al litzaizuke bikoteka gelako lan bat egitea zurea ez den <b>beste erlijio batekoa</b> den (musulmana, kristaua, judutarra, Jehovahen lekukoa, budista...) gelakide batekin?</i></p> <p><i>Gustatuko al litzaizuke bikoteka gelako lan bat egitea zuretik <b>desberdina den herrialde</b> (Errumania, Kolonbia, Aljeria, Txina, Euskadi, Alemania, Estatu Batuak...) batekoa den gelakide batekin?</i></p>

Sexuen araberako azterketak erakusten du nesken eta mutilen artean jokabide arloko alde handiak daudela gelakide nesken eta gelakide mutilen aniztasunaren onarpenari dagokionez, hurrengo grafikoetan islatuta geratzen den moduan:


<sup>33</sup> Galdetegiko atal hau, era berean, txosten honetan garatu da: ISEI-IVEI: *Ikasle etorkinak Euskadin: Ezaugarriak eta emaitzen analisia. ED15.*



4.13.1.a. grafikoa. LHko 4. mailan, aniztasunaren aurrean, jokabideen emaitzak sexuaren arabera. ED15.



4.13.1.b. grafikoa. DBHko 2. mailan, aniztasunaren aurrean, jokabideen emaitzak sexuaren arabera. ED15.



Datuek honako hau jartzen dute agerian:

- Neskek tolerantzia handiagoa dute mutilek baino kasu guztietan, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2.ean. Aldeak 13,5 puntuokoa izatera irits daitezke.
- Datu orokorretan bezala, sexuaren arabera azterketak adierazten du adinarekin jarrerak hobetu egiten direla.
- Neskek eta mutilek “herrialde desberdineko ikasleengan” onarpen maila handiagoa erakusten dute eta neurri txikiagoan onartzen dute “erlijio desberdinekoa”.

Neskek mutilek baino prestutasun handiagoa dute kultura, erlijio eta jatorrizko herrialde desberdineko gelakideekin lan egiteko.

Ikasgelan beste erlijio, herrialde edo kultura batzuetako ikasleekin batera dauden edo ez kontuan hartuta sexuen arabera erantzunak nola aldatzen diren ere aztertu dugu. Horretarako, bi hezkuntza mailetan komuna zen beste galdera bat egin zitzaion:



Lehen Hezkuntzako 4. mailan	DBHko. 2. mailan
Zure gelakideen artean... badaude <b>askotariko erlijiotakoak?</b>	Zure gelakideen artean... badaude <b>askotariko erlijiotakoak?</b>
Zure gelakideen artean... badaude <b>jatorriko herrialde askotarikoak?</b>	Zure gelakideen artean... badaude <b>jatorriko herrialde askotarikoak?</b>

Hauek izan dira bi ebaluazio mailetako erantzunak:

25. TAULA: ASKOTARIKO IKASLEEKIN ELKARBIZITZAREN BALORAZIOA, IKASLEEN SEXUAREN ARABERA								
LHko 4 <sup>o</sup> . maila	Ikasgelan ba al dituzu erlijio ugaritako ikasleak?				Ikasgelan ba al dituzu herrialde ugaritako ikasleak?			
	Bai		Ez		Bai		Ez	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Bai, gustatuko litzaidake	39,9	35,5	28,6	23,6	52,5	47,3	39,9	33,2
Kasuaren arabera	36,8	34,6	35,0	32,1	30,7	33,0	30,5	32,5
Ez litzaidake gustatuko	23,3	30,0	36,4	44,3	16,8	19,6	29,5	34,3

26. TAULA: ASKOTARIKO IKASLEEKIN ELKARBIZITZAREN BALORAZIOA, IKASLEEN SEXUAREN ARABERA												
DBHko 2 <sup>o</sup> . maila	Ikasgelan ba al dituzu erlijio ugaritako ikasleak?				Ikasgelan ba al dituzu herrialde ugaritako ikasleak?				Ikasgelan ba al dituzu kultura ugaritako ikasleak?			
	Bai		Ez		Bai		Ez		Bai		Ez	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Bai, gustatuko litzaidake	52,0	45,0	45,0	37,9	67,2	54,3	63,3	50,4	56,8	45,0	51,8	39,7
Kasuaren arabera	39,6	42,7	42,0	44,8	29,0	38,8	31,6	38,6	38,1	44,1	41,5	48
Ez litzaidake gustatuko	8,5	12,2	13,0	17,3	3,8	6,8	5,1	11,0	5,2	11,0	6,7	12,3



Datuek hau adierazten dute:

- Neskek askoz ere prestutasun handiagoa dute beste erlijio, herrialde edo kultura bateko ikaskidearekin lana partekatzeko ikasgelan ezaugarri horiek dituen ikaskideren batekin daudenean. Mutilekin alderatuta, aldea gutxi gorabehera 4-5 puntukoa da Lehen Hezkuntzako 4. mailan. DBHko 2. mailan aldea handiagoa da, eta 13 puntukoa izatera irits daiteke.
- Bi irakasmilen artean bilakaera positiboa ikus daiteke. 10 urteko ikasleak mesfidatiagoak dira beste erlijio, herrialde edo kultura bateko ikasleekin lana partekatzeko 14 urtekoak baino.
- Neskek eta mutilek jarrera hobeak adierazten dituzte aipatutako taldeetako ikasleekin batera bizi direnean.
- Gainera, heldutasunaren faktorea ere sartzen da, ikasle horiekin batera egondakoek eta egon gabekoek aurrera egiten baitute, are neurri handiagoan beste erlijio-profil bateko ikasleekin lana partekatzeko esperientziarik ez duten ikasleek.
- Herrialde desberdinetako ikasleekiko jarreretan lortzen dira baliorik onenak, itxura guztien arabera, horiek baitira “arazo gutxien dutenak”. Elkarrekin egoten direnen artean, neskek 14,7 puntuko hobekuntza dute (23,4 puntu ikasle mota horrekin batera egoten ez badira), eta mutilek, 7 puntukoa (eta 17,2 ikasle mota horrekin egoten ez badira).

Kultura, erlijio edo jatorrizko herrialde desberdineko gelakideekin batera egoteak igo egiten du onarpen maila, bai nesken kasuan, bai mutilen kasuan.





## **5. BERDINTASUNA IKASTETXEETAN, ZUZENDARITZA TALDEEN ARABERA**





## 5.1. Genero-berdintasuna lantzeari buruzko ondorioak, Zuzendaritza Taldeen ikuspegitik

*Prestakuntza Planetan maiztasun handienarekin biltzen den gaia berdintasuna eta sexismoa antzemateari buruzkoa da. Sexu-aniztasunaren gaia zertxobait nabarmenagoa da ikastetxe publikoetan.*

*2014-15 ikasturtean Ikastetxeko Planetan bildu diren gaiei dagokionez, genero-indarkeria antzeman eta prebenitzea indarrean dago Lehen Hezkuntzako planen % 46 kasutan eta % 74ra igotzen da DBHn. Lehen Hezkuntzan arreta gehiago eskaintzen zaie hauei: irudi eta hiztegi ez sexista erabiltzea, autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzea eta partekatutako eremuak berrikustea. DBHn hauek lehenesten dira: heziketa afektibosexuala, ibilbide akademikoaren orientazio ez sexista, hizkuntza eta irudi sexisten erabilera saihestea eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea.*

*Berdintasun-gaiak arloko edo irakasgaiko programazioen ia erdietan ez dira kontuan hartzen. % 55ek gai horiek jarduera jakin batzuetan lantzen dituzte.*

*Ikasleen arteko harremanen kalitateari dagokionez, Lehen Hezkuntzan eta DBHn nesken eta mutilen arteko errespetuzko harremanak nagusitzen dira. Bi etapetan, erdiek edo gehiagok nahiago dute mutilek eta neskek bereizita lan egin. Jolas-orduan erdia baino gehiago bereizita egon ohi da, batez ere DBHn.*



Zuzendaritza Taldeei zuzendutako galdetegian genero-berdintasunaren eta indarkeriaren prebentzioaren gaiarekin zerikusia duten 4 galdera egin zitzaizkien:

- Adierazi 2014-2015 ikasturteko Prestakuntza Planean dauden gaiak.
- Adierazi 2014-2015 ikasturteko Ikastetxeko Planean bildutako arlo zehatzak.
- Adierazi berdintasun-jarduerak ageri diren ikastetxeko dokumentuak.
- Ikastetxeko mutilen eta nesken arteko harremanen kalitatearen azterketa.

Jarraian, galdera bakoitza aztertuko da, aldagai desberdinen artean gurutzatuz.

## 5.1. Prestakuntza Planetan lantzen diren gaiak

2014-2015 Prestakuntza Planean dauden gaiekin lotuta, galdera honela zegoen pentsatuta:

*Adierazi gai hauetako zein ari diren lantzen zure ikastetxeko Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Prestakuntza Planean:*

- Berdintasuna eta sexismoa antzematea.*
- Genero-indarkeriaren prebentzioa eta antzematea.*
- Sexu-aniztasuna.*

### 5.1.1. Emaizak etapen arabera

Jarraian ageri den taulan baiezeko eta ezezeko erantzunen ehunekoak ageri dira, bai Lehen Hezkuntzako Zuzendaritzei dagozkienak, bai Bigarren Hezkuntzakoiei dagozkienak.

27. TAULA: PRESTAKUNTZA PLANETAN BILDUTAKO GAIK, ETAPEN ARABERA					
Etapen arabera		LHko 4. maila		DBHko 2. maila	
		Kop.	%	Kop.	%
Berdintasuna eta sexismoa antzematea	Bai	274	61,2	158	71,7
	Ez	174	38,8	73	28,3
Genero-indarkeriaren prebentzioa eta antzematea	Bai	180	40,2	179	69,4
	Ez	268	59,8	79	30,6
Sexu-aniztasuna	Bai	153	34,2	118	45,7
	Ez	295	65,8	140	54,3
Guztira		<b>448</b>	--	<b>258</b>	--



Datuek honako hau adierazten dute:

- Lehen Hezkuntzan, 448 ikastetxetatik % 61,2k adierazi du Prestakuntza Planetan lantzen duela *berdintasuna eta sexismoa antzematearen* gaia; aldiz, beste bi gaietan, ikastetxe gehiagok esan dute ez dituztela lantzen; *genero-indarkeriaren prebentzioa eta antzematea* ia % 60k eta *sexu-aniztasunarena* % 65ek baino gehiagok.

Prestakuntza Planetan maiztasun handienarekin biltzen den gaia *berdintasuna eta sexismoa antzemateari* buruzkoa da.

- DBHn, erantzun duten 258 ikastetxetatik ia % 72k (Lehen Hezkuntzan baino 10 puntu inguru gehiago) *berdintasuna eta sexismoa antzematea* gaia landu dute, eta % 70 *genero-indarkeriaren prebentzioa eta antzematea*. Hala eta guztiz ere, ikastetxeen erdiek baino gehiagok ez dute *sexu-aniztasunaren gaia* (% 54,3) landu.

### 5.1.2. Emaizak hezkuntza-sarearen arabera

Datu horiek hezkuntza-sareen eta etapen arabera aztertzen baldin badira, honako hau ikus daiteke:

28. TAULA: PRESTAKUNTZA PLANETAN BILDUTAKO GAIAK, SAREEN ARABERA									
Sareen eta etapen arabera		LHko 4. maila				DBHko 2. maila			
		PUB.		ITUNP.		PUB.		ITUNP.	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Berdintasuna eta sexismoa antzematea	Bai	183	58,5	91	67,4	90	71,4	95	72,0
	Ez	130	41,5	44	32,6	36	28,6	37	28
Genero-indarkeriaren prebentzioa eta antzematea	Bai	120	38,3	60	44,4	84	66,7	95	72,0
	Ez	193	61,7	75	55,6	42	33,3	37	28
Sexu-aniztasuna	Bai	112	35,8	41	30,4	61	48,4	57	43,2
	Ez	201	64,2	94	69,6	65	51,6	75	56,8
Guztira		313	--	135	--	126	--	132	--

Datuek hau adierazten dute:

- Lehen Hezkuntzan, itunpeko sareko ikastetxeek (% 67,4) sare publikoko ikastetxeek (% 58,5) baino ehuneko altuagoan biltzen dute Prestakuntza Planean *berdintasuna eta sexismoa antzematearen* gaia. Bestalde, itunpeko ikastetxe gehiagok (% 44,4) biltzen dute *genero indarkeriaren prebentzioa eta antzematea* gaia ere; gai hori lantzen duten ikastetxe publikoen kopurua % 38,3koa da.
- Hala eta guztiz ere, *sexu-aniztasunaren* gaia, Lehen Hezkuntzan eta DBHn gutxien kontuan hartzen den

*Berdintasuna eta sexismoa antzematea, eta genero-indarkeria antzematea eta saihestea* itunpeko ikastetxeetako prestakuntzan zertxobait gehiago hartzen da aintzat; *sexu-aniztasuna* berriz, ikastetxe publikoetan.



gaia izanik, badirudi ikastetxe publikoetan gehixeago lantzen dela (% 5ean baino zertxobait gehiagotan).

- DBHko ikastetxe publiko eta itunpekoetan antzeko moduan lantzen da *berdintasuna eta sexismoa antzematearen* gaia (% 72k adierazi du lantzen duela). *Genero-indarkeriaren prebentzioa eta antzematearen* gaiari dagokionez, gaia Prestakuntza Planetan lantzen dutela dioten DBHko itunpeko ikastetxeen kopurua ikastetxe publikoen kopurua baino % 4 altuagoa da.

## 5.2. 2014-2015 Ikastetxeko Planean bildutako arloak

Galdera honetan ikastetxeei eskatzen zitzairen esateko, adierazitakoen artetik, zer arlo zeuden zehatz bilduta 2014-2015 Ikastetxeko Planean:

*Arlo hauek bilduta al daude zure ikastetxeko Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeko Planean?*

- Estereotipo sexistak ezabatzeko berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea.*
- Curriculumean emakumeen jakituria eta egiten duten ekarpena txertatzea.*
- Neskak eta mutilak diren ikasleen autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzea bai etxeko lanetan, bai eskolako lanetan.*
- Bereizketarik gabek irudiak eta hizkuntza erabiltzea (liburuak, kartelak, dokumentuak, deialdiak...).*
- Eskola-uzte goiztiarra saihestea eta genero, kultura... oztopoak ezabatzea*
- Ibilbide akademikoaren aukeraketan genero-aurreiritzirik gabe orientatzea.*
- Genero-indarkeria antzeman eta saihestea.*
- Ikastetxea sexu-orientazio guztientzako errespetuzko eta segurtasunezko eremua dela bermatzea.*
- Heziketa afektibo-sexualeko jarduerak garatzea.*
- Partekatutako eremuen erabilera berrikustea (jolastokiak...).*



### 5.2.1. Emaitzak etapan arabera

Hurrengo grafikoetan datuak etapan arabera ikus daitezke:

5.2.1.a. grafikoa. Lehen Hezkuntzan 2014-15 ikastetxeetako Planetan bildutako arloak. ED15.



- Lehen Hezkuntzan, hauek izan dira 2014-15 Planean batez ere bildu diren arloak ehuneko handienetik txikienera: *bereizketarik gabeko irudiak eta hiztegia erabiltzea (liburuak, kartelak, dokumentuak, deialdiak... % 68,1eko kopuruarekin), etxeko lanetan eta ikastetxeko lanetan ikasleen autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzea (% 67,6), partekatutako eremuen erabilera berrikustea (% 63,6), ikastetxea sexu-orientazio guztietarako errespetua eta segurtasuna nagusitzen den eremua dela bermatzea (% 58,9) eta hezkuntza afektibo-sexualeko jarduerak garatzea (% 55,1).*

Lehen Hezkuntzan arreta gehiago ematen zaio irudi eta hizkuntza ez sexista erabiltzeari, autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzeari eta partekatutako eremuak berrikusteari.

- Eta hauek dira joan den ikasturteko planetan gutxien landu diren gaiak: *emakumeen jakinduria eta horren ekarpena curriculumean txertatzea (% 29,2), eskola-uzte goiztiarra saihestea eta genero, kultura... oztopoak ezabatzea (% 31,0), eta ibilbide akademikoaren aukeraketan orientatzea generoa edozein izanda ere (% 34,2).* Neurri batera arte, ulertu liteke orientazioari eskainitako atalaren txertatze maila baxua; izan ere, Lehen Hezkuntza amaitzean, ez dago hezkuntza-ibilbidea aukeratzeko beharrik; hala ere, lanbideekin eta etorkizuneko proiektioekin zerikusia duten guztiak landu behar da.
- Ikastetxeen ia % 47k adierazi dute Ikastetxeko Planean ez dutela lantzen *genero-indarkeria saihestearen eta antzematearen* gaia.



5.2.1.b. grafikoa. DBHn 2014-15 ikastetxeko Planetan bildutako arloak. ED15.



- DBHn, itxura guztien arabera, Lehen Hezkuntzan baino neurri handiagoan lantzen dira adierazitako arlo guztiak, hauek izan ezik: *ikasleen autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzea bai etxeko lanetan, bai ikastetxeko lanetan, eta partekatutako eremuen erabilera berrikustea*. Batez ere, azken arlo horrek 20 puntu baino gehiago egin du behera (% 67,4tik % 44,6ra).
- Hauek dira gehien lantzen diren 6 arloak: *heziketa afektibo-sexualeko jarduerak garatzea* (% 81,4), *ibilbide akademikoaren aukeraketan genero-aurreiritzirik gabe orientatzea* (% 76,0), *bereizketarik gabeko irudiak eta hizkuntza erabiltzea (liburuak, kartelak, dokumentuak, deialdiak...)*, % 74,4ko kopuruan), *berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea estereotipo sexistak ezabatzeko* (% 72,9) eta *ikastetxea sexu-orientazio guztientzako errespetua eta segurtasuna gailentzen den eremua izan dadin bermatzea* (% 67,1).
- Deigarria da DBHn eta Lehen Hezkuntzan hauek izatea kezka gutxien eragiten duten bi arloak: *emakumeen jakinduria eta horren ekarpena curriculumean txertatzea* (% 37,6) eta *eskola-uzte goiztiarra saihestea eta genero, kultura... oztopoak ezabatzea* (% 52,7).
- DBHn, LHrekin alderatuta, hainbat gairen inguruko arreta handiagoa dago: *genero-indarkeria saihestu eta antzematea* (+28 puntu), *heziketa afektibo-sexualeko jarduerak garatzea* (+26,3 puntu) eta *eskola-uzte goiztiarra saihestea eta genero, kultura... oztopoak ezabatzea* (+21,7 puntu).
- Bestalde, Zuzendaritza Taldeen iritzia arabera, *partekatutako eremuen erabilera berrikustea* nahiz *ikasleen (neskak eta mutilak) autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzea bai etxeko lanei, bai ikastetxeko lanei dagokienez* dira Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan gutxien lantzen direnak eta Lehen Hezkuntzakoan gehien lantzen direnak.

DBHn hauek lehenesten dira: *heziketa afektibo-sexuala, ibilbide akademikoaren orientazio ez sexista, hizkuntza eta irudi sexistak saihestea, eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea.*






## 5.2.2. Emaizak hezkuntza-sarearen arabera

Hurrengo grafikoetan islatuta ageri dira arlo bakoitzeko erantzunen ehunekoak Ikastetxeko Planetan duen presentzia handiaren edo txikiaren arabera eta hezkuntza-sareak eta etapak kontuan hartuta. Ondorioz, bi etapetan sare publikoko eta itunpeko sareko erantzunak aldera daitezke:

5.2.2.a. grafikoa. Lehen Hezkuntzan 2014-15 ikastetxeko Planetan bildutako arloak. ED15.




Lehen Hezkuntzan honako hau ikus daiteke:

- Itunpeko sareko ikastetxeek sare publikoko ikastetxeen oso antzeko moduan erantzuten dutela dirudi interes handienetik txikienerako arloei dagokienez; hala ere, ehunekoak aldatu egiten dira eta altuagoak dira itunpeko sareetan ia arlo guztietan.
- Alderik handienak, 10 puntu baino gehiago, *ibilbide akademikoaren aukeraketan genero-aurreiritzirik gabe orientatzean* gertatzen da; arlo horretan, itunpeko sareak sare publikoaren ehuneko bikoizten du (% 53,3tik % 25,9ra); *eskola-uzte goiztiarra saihesten eta genero, kultura... oztupoak ezabatzen* itunpeko sarean % 18,1 gehiagok diote gai hori lantzen dutela; eta *etxe lanetan eta ikastetxeko lanetan ikasleen autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzen* sare publikoan baino % 13,4 puntu gehiago dituzte.
- Hala eta guztiz ere, *partekatutako eremuen erabilera (jolastokiak...)* aztertzeak 10 puntu gehiago kezkatzen du sare publikoa itunpeko sarea baino.



5.2.2.b. grafikoa. DBHn 2014-15 ikastetxeko Planetan bildutako arloak. ED15.



DBHn honako hau ikusten da:

- Gehien lantzen diren bi arloek bat egiten dute bi sareetan, eta gauza bera gertatzen da gutxien lantzen direnekin ere.
- Aldiz, Lehen Hezkuntzan gertatzen ziren alde garrantzitsuak desagertu egiten dira ia-ia arlo hauetan: *eskola-uzte goiztiarra saihestea eta genero, kultura... oztopoak ezabatzea, eta ibilbide akademikoaren aukeraketan genero-aurreiritzirik gabe orientatzea.*
- *Genero-indarkeria saihestearekin eta antzematearekin eta heziketa afektibo-sexualeko jardueren garapenarekin* zerkusia duten arloetan joera alderantzikoa da, eta badirudi sare publikoko ikastetxeko planetan itunpekoan baino neurri handiagoan txertatzen dela.
- LHrekin alderatuta, interesa galtzen du *partekatutako eremuen (jolastokiak...) erabilera berrikusteak* bi sareetan.

Sare publikoan, DBHn, neurri handiagoan biltzen da genero-indarkeria antzeman eta prebenitzea.



### 5.3. Berdintasun-jarduerak ageri diren ikastetxeko dokumentuak


Hezkidetzarekin eta genero-indarkeriaren prebentzioarekin zerikusia duten jarduerak biltzen duten dokumentu moten inguruko beste galdera bat:

Zer dokumentutan bildu dira hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko dokumentuak?

- a. Ikastetxeko planetan edo proiektuetan.
- b. Ikasgelako programazioetan.
- c. Aldian behingo jarduera denez, data sinboliko baten oroitzapenean.
- d. Une hauetan ez dugu biltzen.

#### 5.3.1. Emaitzak etapan arabera

Erantzunak, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, hauek izan dira:



Datuek agerian jartzen dute honako hau:

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 70k baino gehiagok eta DBHko ikastetxeen % 80k baino gehiagok biltzen dute hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren gaia beren *planetan eta proiektuetan*.
- Bi etapetako ikastetxeen % 47 inguruk berdintasun-jarduerak biltzen ditu *arloko programazioetan*. Hau da,

Berdintasun-gaiak arloko edo irakasgaiko ia programazio erdietan hartzen dira kontuan. % 55ek gai horiek jarduera jakin batzuetan soilik lantzen ditu.




ikastetxeen erdiek baino zertxobait gehiagok ez dituzte jarduera horiek *ikasgelako programazioetan* txertatzen.

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 47 inguruk eta DBHko ikastetxeen ia % 55ek adierazi dute gai horiek *aldian behingo jarduera* gisa edo *oroitzapen-datetan* lantzen dituztela.
- Ikastetxeen % 90 inguruk lantzen dute hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren gaia nolabait.

### 5.3.2. Emaizak hezkuntza-sarearen eta etapen arabera

Hauek izan dira Zuzendaritza Taldeen erantzunak, sarearen eta hezkuntza mailaren arabera bereizita:

5.3.2. grafikoa. Berdintasun-jarduerak biltzen dituzten ikastetxeko dokumentuak. LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. ED15



Datuetatik honako hau ondoriozta daiteke:

- DBHn, sare publikoan, ikastetxeen % 11 gehiagok adierazi du hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa duela *planen eta proiektuen baitan* (ia % 85ek). Lehen Hezkuntzan, sareetan ia ez dago alderik (% 71 inguru).
- DBHn, itunpeko sarean, ikastetxeen % 11 gehiagok diote (% 53) *ikasgelako programazioetan* txertatzen dituztela. Lehen Hezkuntzan ia ez dago alderik.
- Sare publikoan lehen hezkuntzako % 17 ikastetxe gehiago dago eta DBHko % 14,2k adierazi dute hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzen dutela *aldian behingo jarduera* gisa.
- Lehen Hezkuntzako % 10ek baino zertxobait gehiagok eta DBHko % 4,8 (sare publikoa) eta % 7,6 (itunpeko sarea) arteko kopuruak ez dute gai hori lantzen.



## 5.4. Ikasleen arteko harremanen kalitatea

Zuzendaritza Taldeei galdetu zitzairen nola ikusten zituzten ikastetxeetako mutilen eta nesken arteko harremanak.

*Zure ustez, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, zure ikastetxeko nesken eta mutilen arteko harremanetan zer neurritan gertatzen dira harreman hauek?*

- a. *Mutilek eta neskek errespetuz eta konfiantzaz hitz egiten dute, berdinen arteko harremanak.*
- b. *Aisialdiko eremuetan (jolasgaraian) bereizketa egon ohi da mutilen eta nesken artean.*
- c. *Mutilek neskak beldurtzen dituzte esaldi iraingarriekin.*
- d. *Neskek mutilak beldurtzen dituzte esaldi iraingarriekin.*
- e. *Neskak beren buruarekin seguruago agertzen dira mutilak egon ezean.*
- f. *Ikasleen arteko harremanetan sexismoa dago.*
- g. *Mutilen eta nesken artean adiskidetasun-harreman ona dago.*
- h. *Mutilen presentziak neskak beldurtzen ditu.*
- i. *Nesken presentziak mutilak beldurtzen ditu.*
- j. *Mutilek atseginez onartzen dute lantaldean neskekin batera lanean aritzea.*
- k. *Neskek atseginez onartzen dute tantaldean mutilekin batera lanean aritzea.*
- l. *Ikasgelan mutilen eta nesken arteko bereizketa dago.*
- m. *Norekin lan egin aukeratzeko dutenean, nahiago dituzte sexu berekoak.*

Galdera hori autonomia erkidego guztietan M. José Díaz-Aguadoren<sup>34</sup> taldeak gauzatutako ikerketetan erabilitako galdetegitik hartu da. Nabarmendu behar da galdera berdin-berdin egin zen arren, testuinguruko galdetegia zuzenduta zegoen ikastetxe mota eta kopurua desberdina zela. Unibertsitate Konplutentseko irakasleak sustatutako ikerketan DBHko 3. eta 4. mailako ikastetxeetako, Batxilergoko, Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako eta HLPPetako ikastetxeetako 15 zuzendaritzek hartu zuten parte. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak egindako ebaluazioan (ED15) Lehen Hezkuntzako eta DBHko 706 zuzendarik erantzun zuten.

Galdetegia erantzungo zuen Zuzendaritzako pertsonak bere asebetetze edo desakordio maila erakutsi behar zuen proposatutako baieztapenekin; horretarako, "batere ez", "gutxi", "asko samar" eta "asko" aukeren artean hautatu behar zuen. Azterketa egiteko, erantzunak bi kategoriatan antolatu dira; horiek, batetik, hezkidetzaren ikuspegitik jokabide positiboak adieraziko lituzkete, eta bestetik,



<sup>34</sup> Díaz-Aguado Jalón, María José (zuz.); Martínez Arias, Rosa; Martínez Barbarro, Javier (2014). *La evolución de la adolescencia española sobre igualdad y la prevención de la violencia de género*. Bilduma: "Contra la violencia de género. Documentos", 19. zk. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Espainiako Gobernua.



jokabide negatiboak. Esan liteke azken horiei eskaini beharko litzaiekeela lehenetsitako arreta, betiere, hezkidetzan eta genero-indarkeria saihestean oinarritutako eskola sustatze aldera.

### 5.4.1. Emaizak etaper arabera

Zuzendaritza Taldeen erantzunak hauek izan dira (grafikoetan “asko samar” eta “asko” aukerak batu dira):





Datu horiek adierazten dute berdintasunean oinarritutakotzat identifikatutako egoeretan ez dagoela alde handirik LHko eta DBHko ikastetxeetako Zuzendaritza Taldeen iritzien artean:

- Lehen Hezkuntzan eta DBHn, Zuzendaritza Taldeen % 94k baino gehiagok adierazi dute beren ikastetxean *neskek eta mutilak errespetuarekin eta konfiantzarekin tratatzen diotela elkarri*.
- Zuzendarien eta ikasketa buruen % 96k baino gehiagok adierazi dute *mutilak ez dituztela neskak beldurtzen, ez eta alderantziz ere*, Lehen Hezkuntzan eta DBHn proportzio berean.

Lehen Hezkuntzan eta DBHn errespetuzko harremanak nagusitzen dira mutilen eta nesken artean.

Hezkidetzan oinarritutako ikastetxe baten helburuen lorpenari dagokionez, berdinzaleak ez direla identifikatu diren egoeretan honako hau ikusten da:

- *Aisialdirako eremuen erabilerarekin* lotuta, Lehen Hezkuntzan, % 37,9k adierazi du *bereizketa asko samar edo asko dagoela mutilen eta nesken artean*. DBHn ehuneko hori % 51,1era igo da.
- Lehen Hezkuntzan % 7,4k soilik eta DBHn % 15,1ek dio *neskak beren buruarekin ez direla hain seguru agertzen mutilak daudenean*. Era berean, ikastetxeetan nesken eta mutilen artean ez dirudi harremanetako edo elkarlanerako arazorik dagoenik.
- Hala eta guztiz ere, norekin *lan egitea aukeratu behar dutenean sexu berekoak nahiago izaten dituzten* galdetzen zaienean, Lehen Hezkuntzako % 60k baino gehiagok eta DBHko % 50ek baino gehiagok uste dute egoera hori maiz samar edo maiztasun askorekin gertatzen dela.

Bi etapetan, erdiek edo gehiagok nahiago dute mutilak eta neskak bananduta lan egin. Aisialdian, erdiak baino gehiago bereizita daude baita ere, batez ere, DBHn.

Bestalde, M. José Díaz-Aguadoren taldeak Euskadiko datuen inguruan egindako ikerketak kontuan izan zituen DBHko 2. zikloko, Batxilergoko, Erdi Mailako eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloen eta 1. eta 2. mailako HLPPko<sup>35</sup> ikasleen, irakasleen eta zuzendaritza taldeen erantzunak.


Jarraian ageri diren datuak irakasleen galdetegitik bildu dira; nahiko egonkorak dira eta ED15eko inkestako datuekin aldera daitezke. Datu horiek berdintasunean oinarritutako

harremanak eta berdintasunean oinarritu gabeak bereizten dituzte, hezkidetzan oinarritutako ikastetxe bat eraikitzeko mesedegarritzat edo kaltegarritzat hartzen diren arabera (grafikoetan "asko samar" eta "asko" aukerak batu dira):

<sup>35</sup> Azterketan ikastetxe parte-hartzaile gutxiago egoteak ehunekoek gorabehera gehiago izatea eragiten du.




5.4.1.c. grafikoa. Euskadin, DBHko nesken eta mutilen arteko berdintasunezko harremanak (Díaz-Aguado, 2013).



2013ko lagineko inkestan (Díaz-Aguado, 2014) lortutako emaitzak eta DBHko 2. mailari buruzko ED15ekoak aztertzean, nabari da oro har indizeak antzeko moduan antolatzen direla; hala ere, badira zenbait alde, batzuk besteak baino garrantzitsuagoak:

5.4.1.d. grafikoa. Euskadin, DBHko nesken eta mutilen arteko berdintasunezkoak ez diren harremanak (Díaz-Aguado, 2013).



- 2013ko inkestak ED15ekoak baino indize altuagoak adierazten ditu berdintasunean oinarritu gabekotzat har daitezkeen arlo guztietan. Nabarmendu dute *sexismoa dagoela ikasleen arteko harremanetan* (13,5 puntuko aldea), *ikasgelan bereizketa dago mutilen eta nesken artean* (12,3 puntu) eta *nahiago dute sexu berekoekin lan egin* (12,0 puntu).





- Aldiz, ED15eko Zuzendaritza Taldeen balorazioek berdintasunezko arloetan gainditu egiten dituzte 2013an inkesta egindako irakasleek adierazitakoak. Batez ere, honako hauek nabarmendu dituzte: *mutilek eta neskek errespetuz eta konfiantzaz hitz egiten diote elkarri, berdinen artean (+21,3 puntu ED15ean) eta neskek atseginez onartzen dute lantaldeetan mutilekin elkarlanean aritzea (+9,6 puntu).*







## 6. ONDORIO OROKORRAK

### 6.1. Etxean denbora erabiltzearekin zerikusia duten ondorioak

- ✚ Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen artean aisialdiaren banaketa oso desberdina da. Gauza bera gertatzen da mutilen eta nesken artean ere.
- ✚ Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen % 40 inguruk eskaintzen du denbora pixka bat *beste pertsonak zaintzen*.
- ✚ Lehen Hezkuntzako ikasleen ia % 76k eta DBHko % 92k adierazi du *etxean zereginen bat* egiten duela.
- ✚ Itunpeko sarean, bi etapetako ikasleek esandakoaren arabera, publikokoek baino denbora pixka bat gehiago igarotzen dute *pertsonak zaintzen*. Hala eta guztiz ere, *etxeko lanei* eskainitako denborarekin lotuta, ez dago alderik.
- ✚ Familia nuklearretakoak eta guraso bakarrekoak (gehienak) diren bi etapetako ikasleek diote *etxeko lanei* besteek baino denbora gehiago eskaintzen dietela. Hala eta guztiz ere, ehunekoak oso desberdinak dira zeregina *beste pertsonak batzuk zaintzea* denean.
- ✚ *Beste pertsonen zaintza* eta *etxeko lanak* jarduerekin lotuta, ikusten da zenbat eta ISEK maila altuagoa izan, ikasleek orduan eta denbora gehiago igarotzen dutela jarduera horietan, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn.

### 6.2. Genero-estereotipoekin zerikusia duten ondorioak

- ✚ DBHko ikasleek Lehen Hezkuntzakoek baino pertzepzio berdinzaleagoa dute ezaugarri fisikoen esleipenarekin lotuta.
- ✚ Indar fisikoa eta abusua mutilenak izaten jarraitzen dute neurri handian, eta pertzepzio horrek adinarekin gora egiten du.
- ✚ Samurtasuna, maitasuna, sentsibilitatea eta fintasuna batez ere emakumeei egozten zaizkie (gizonei baino gehiago). Hori gertatzen da LHn eta DBHn alde txiki batzuekin.
- ✚ Guztira proposatutako 22 lanbideren artetik, LHn ikasleen % 60k baino gehiagok 7 hartu dituzte "bi sexueterako egokitzat", eta DBHn, 15 lanbidetara igo da kopurua, ehuneko altuagoekin.
- ✚ Neskek mutilek baino pertzepzio berdinzaleagoa dute ezaugarri pertsonalen, lanbideen eta bizitzako aukeren esleipenarekin lotuta, eta pertzepzio horrek hobera egiten du adinarekin.



- ✚ Lehen Hezkuntzako ikasleek (neskak eta mutilak) ikuspegi estereotipatua dute lanbide batzuen esleipenari dagokionez: dantza, garbiketa, elektrizitatea, igeltserotza...
- ✚ Sare publikoko ikasleek itunpekoek baino neurri handiagoan uste dute lanbide gehienak berdinak direla emakumeentzat eta gizonentzat.
- ✚ Proposatzen ziren bizitzan zeharreko 10 aukera motatatik, LHko eta DBHko ikasleen % 70ek baino gehiagok bi sexuatarako berdintasuna ikusten du 4 kasutan (ikastea, lana aurkitzea, zoriotsu izatea eta bikotea ez den beste adiskide batzuk edukitzea), eta DBHn beste kasu bat gehitzen da: jarraitu nahi ez duzun bikotearekin harremana haustea.
- ✚ Bi etapetako mutilek eta neskek uste dute bizitzan zehar emakumeek eta gizonen aukera desberdinak izango dituztela.

### 6.3. Berdinen arteko tratu txarrekin zerikusia duten ondorioak

#### Tratu txarren egoerak ikusten dituzten pertsonekin lotuta:

- ✚ Lehen Hezkuntzako ikasleen % 43,5ek eta DBHko ikasleen % 46,8k inoiz ez du berdinen arteko jazarpen-egoerarik ikusi.
- ✚ ISEK maila txikiena duten eta familiek ikasketa gutxien dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleek diote berdinen arteko tratu txar egoera gehien sumatu dituztela. Hala eta guztiz ere, DBHko ikasleen artean egoera alderantzizkoa da.
- ✚ Badirudi ezaugarri fisikoak direla bi etapetan ikasleen arteko tratu txarrak gertatzearen arrazoi nagusietako bat.
- ✚ Lehen Hezkuntza mutila edo neska izateagatik nabari den bereizkeria maila nabarmen jaisten da DBHn.
- ✚ DBHn jokabide homofobikoaren edo lesfobikoaren pertzepzioaren inguruan egindako galderaren aurrean, gay diren mutilek (% 15,7k ikusten du) lesbianak diren neskek (ikasleen % 5,2k ikusten dute) baino gehiago jasaten dutela dirudi. Egoera hori ikastetxe publikoetan gehiago nabari da, baita ISEK maila handiagoko eta unibertsitateko ikasketak dituzten familietatik datozen ikasleen artean ere.
- ✚ Kultura, erlijio edo jatorrizko herrialde desberdineko gelakideekin batera egoteak igo egiten du beste ezaugarri batzuk dituzten ikasleen onarpen maila, bai nesken kasuan, bai mutilen kasuan.

#### Tratu txarren egoeren biktimak diren pertsonekin lotuta:

- ✚ Lehen Hezkuntzako ikasleen % 62k eta DBHko % 86k baino gehiagok



ez du berdinen arteko tratu txarrik jasan. “Bullying” jokabideek behera egiten dute adinarekin.

- ✚ Mutilak neskak baino kasu gehiagotan izan ohi dira tratu txarren biktimak egoera guztietan eta bi etapetan, DBHko 2. mailako neskak izan ezik; horiek tratu txarrak mutilek baino kasu gehiagotan jasaten dituzte ezaugarri fisikoak direla eta.
- ✚ Sare publikoko ikasleen ehuneko zertxobait altuago batek adierazi du berdinen arteko tratu txar egoeraren baten biktima izan dela.
- ✚ ISEK baxua duten ikasleek ISEK altua dutenek baino “bullying” gehiago jasaten dute (% 12 gehiago Lehen Hezkuntzan eta % 5 gehiago DBHn). Egoera hori gertatzen da aipatutako egoera guztietan.
- ✚ Homofobiaren edo lesbofobiaren biktima sentitzen dela dioten DBHko ikasleak % 1,5ean kokatzen dira.

#### 6.4. Ikastetxeetan jarduerekin zerikusia duten ondorioak

- ✚ Prestakuntza Planetan maiztasun handienarekin biltzen den gaia *berdintasuna eta sexismoa antzemateari* buruzkoa da, eta *genero-indarkeria saihestea eta antzematea* dator ondoren. *Sexu-aniztasuna*, gutxien lantzen dena izan arren, zertxobait gehiago nabarmentzen da ikastetxe publikoetan.
- ✚ Lehen Hezkuntzan arreta gehiago eskaintzen zaie hauei: *irudi eta hiztegi ez sexista erabiltzea, autonomia eta erantzunkidetasuna sustatzea eta partekatutako eremuak berrikustea.*
- ✚ DBHn hauek lehenesten dira: *heziketa afektibo-sexuala, ibilbide akademikoaren orientazio ez sexista, hizkuntza eta irudi sexisten erabilera saihestea eta berdintasunean oinarritutako harremanak sustatzea.*
- ✚ Berdintasun-gaiak arloko edo materiako programazioen ia erdietan hartzen dira kontuan, eta % 55ek aldi berean behingo jardueretan lantzen ditu gai horiek.
- ✚ Ikasleen arteko harremanen kalitateari dagokionez, Lehen Hezkuntzan eta DBHn nesken eta mutilen arteko errespetuzko harremanak nagusitzen dira.
- ✚ Bi etapetan, erdiek edo gehiagok nahiago dute mutilek eta neskek bereizita lan egin. Jolasgaraian erdia baino gehiago bereizita egon ohi da, batez ere DBHn.





## 7. GOGOETAK

Atal hauetan guztietan zehar ikusi ahal izan dugu berdintasuna lortu egiten dela pixkanaka. Euskadiko zenbait hezkuntza-adierazle nahiko berdinzaleak dira, baina beste batzuetan oraindik badago genero-arraila garrantzitsu bat.

Bestalde, Euskadiko gizartea bizitzen ari den aldaketa kontuan hartuta eta emakumeen sektore publikorako sarbidea goraka ari dela ikusirik, ikasleen erantzunek adierazten dute genero-estereotipoak badaudela oraindik ere. Esate baterako, emakumeak eta gizonak ezaugarri desberdinak eta lanpostu desberdinak dituzten talde gisa hartzen dira oraindik ere, genero-joerarekin (ile-apaindegia, iturgintza...). Baina lanbide batzuen inguruko ikuspegi estereotipatu horrekin batera, berdintasuna gero eta ohikoagotzat hartzen dute; kontzepzio hori, neurri handi batean, mutilek eta neskek partekatzen dute prestigio eta aitorten sozial eta ekonomiko handiagoa izan ohi duten beste lanbideekin alderatuta (enpresen zuzendaritza, ordezkari politikoak, ikerketa zientifikoa...). Hala eta guztiz ere, badirudi mutilek eta neskek beren aurreikuspenak proiektatzen dituztela bi sexuei etorkizunean bizitzak eman diezazkiekeela uste duten aukeren aurrean; gainera, adierazten dute gizon helduek emakumeek baino aukera gehiago izango dituztela. Proiektzio hori subjektiboagoa, pertsonalagoa, eta beraz, errealitatea sentitzen duten moduaren arabera al da? Pigmalion efektua izango litzateke? Bera bakarrik betetzen den profezia? Pentsa genezake gure haurretan eta gazteetan (neskak) 1978an Pauline R. Clance-k y Suzanne A. Imes-ek "iruzurtiaren sindrome" gisa izendatutakoa ari dela gertatzen. Ikerketa horien arabera, emakume arrakastatsu askok uste izaten zuten ez zirela hain adimentsuak eta beste pertsona batzuek gutxietsi egiten zituztela. Sentimendu horren eraginez, batez ere emakumeek, ez dute arrakastarekin gozaten, eta are gehiago, ez dute lorpen maila handiagoetarako asmorik.

Hala eta guztiz ere, azterketatik bi ondorio garrantzitsu atera genitzake: Lehenik, berdintasunean oinarritutako aurreikuspenak adinarekin hobera egiten du. Bigarrenik, neskak diren ikasleek mutilek baino gizarte berdinzaleagoaren pertzepzioa dute. Lan honen izaerak ez du kausetan edo faktoreetan sakontzen; ondorioz, ez dakigu aldaketa horiek zer neurritan diren familia-hezkuntzaren ondoreak, komunikabideen eragina, hezkuntza-sistemarena berarena edo beste eragile batzuen.

Mutilen eta nesken arteko harremanei dagokienez, Zuzendaritza Taldeek harreman txarren berri ematen ez duten arren, nabari dute ikasle askoren (neskak eta mutilak) kasuetan eremu bereizietan jarraitzen dutela harremanak izaten. Zoritxarrez, indarkeria, neurri handiagan edo txikiagan, eskola arloan badago oraindik ere. Neska edo mutila izate hutsak eragin dezake beste sexuko edo sexu bereko kideek besteei irainak egitea, baztertzea edo jotzea. Gainera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan mutilenganako jokabide homofoboak antzeman dira, eta neurri txikiagan, neskenganako lesboboak, heterosexueltasun menderatzailearekin bat ez datorren orientazio sexuala agertzen dutenak. Egoera horietako batzuetan mutilak diren ikasleak kaltetuagoak baldin badira ere, ezaugarri eta itxura fisikoekin lotutako presioak neskei gehiago eragiten diela dirudi.



Positiboa da modu orokortuan izan ez arren, nesken eta mutilen artean, eta batez ere DBHn, etxeko lanetan parte hartzearen joera zabaldua egotea; horrek etorkizun itxaropentsua adieraz lezake aisialdiaren banaketarekin eta erantzunkidetasunaren eta autonomia pertsonalarekin lotuta.

Hala ere, txosten honetan oraindik ere aldeak nabaritzen diren arren, ez genuke liluratu behar; hori dela eta, Amelia Valcárcel<sup>36</sup> gizon eta emakumeen arteko "berdintasunaren ilusioa" deitu dio, ideia edo uste honekin: berdintasuna dagoeneko lortu den gertaera dela, nahi den guztia lortu dela, guztiok guztizko berdintasun-egoera gozatuko bagenu bezala. Marcela Lagarde-k "berdintasunaren belo" deitzen dio<sup>37</sup>, John Rawls-ek Justiziaren Teorian (1971)<sup>38</sup> aipatutako "ignorantziaren beloari" erreferentzia eginez. Kasu honetan, errealitate desberdina ikustea eragozten edo ezkututzen duen mekanismo ideologikoa da. Hain zuzen ere, etorkizuneko ekintzen aurrean efektu "anestesiagarria" sor dezake.

Bistakoa da familiek, ikastetxeak eta gizarteak berdintasun-politikak sortzeaz gain, bereizketarik gabeko kultura jarri behar dutela martxan, genero-arraila ezabatzeko eta 0 urtetik 0 indarkeria egongo den giroa sortzeko azken helburua lortuko duena.

Matthew Lipman-ek, Mutilentzako eta neskentzako filosofia liburuaren egileak, honako hau adierazi du: *"ikastetxea epaiak egiten, eta ondorioz, epai faltsuak eta kaltegarriak zein diren irakasten den lekua izan beharko litzateke."* Ildo horretatik, litekeena da EAEn hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren inguruan hartu diren erabaki politiko guztiek orain beharrezko kultura sortzen aritzea; kultura horrek gizarte osoa hartuko du eta belaunaldi berriei lagunduko die gizarte berdinzaleago, eta beraz, ekitatiboago batean bizitzen, ez ikuspegi sozioekonomikotik soilik, baita genero ikuspegitik ere. Hala eta guztiz ere, bistakoa da ez dela biztanleria gaztearen pentsamenduan eragiten duen faktore bakarra.

Gure ikasleek emandako erantzun batzuk alderatzeko garaian, egiaztatu dugu familien ISEK mailak edo gurasoen ikasketa mailak, eta jatorrizko familiaren tipologiak eragina duela ikasleak errealitatea ikusteko edo inguruarekin erlazionatzeko duen moduarekin. Hori dela eta, ezinbestekoa da zeregina Hezkuntza Komunitatearekin batera egitea. Familiak ikastetxean babestuz eta ikastetxeak ateak zabalduz eta familiei entzunez. Horrela, Afrikako antzinako atsotitz batek dioen moduan, *"haur bat hezteko tribu oso bat behar da"* Familiek batez ere jokabide-ereduen bidez eta beren seme-alabekiko dituzten aurreikuspenen bidez hezten dute. ELGAren txostenak honako hau adierazten du (2015)<sup>39</sup>: *"gurasoek aurreikuspen desberdinak dituzte beren semeentzat eta alabentzat. Horren arrazoia izan liteke gurasoek, oraindik ere, emakumeak eta gizonak nabarmentzen diren arloen ezagutza estereotipatuak dituztela oraindik ere,*

<sup>36</sup> <http://www.mujaresenred.net/spip.php?article1939> (bideoa).

<sup>37</sup> <http://emakunde.blog.euskadi.eus/2011/02/marcela-lagarde-los-derechos-conseguidos-por-las-mujeres-siempre-estan-en-riesgo/>

<sup>38</sup> García Prince, Evangelina-ren aipamena: "El espejismo de la igualdad: el peso de las mujeres y de lo femenino en las iniciativas de cambio institucional". Otras Miradas, 6. bol, 1 zk, 2006ko ekaina, 24-30 or. Universidad de los Andes. Mérida, Venezuela. Hemen eskuragarri: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=18360103> (azken kontsulta: 2016/12/23).

<sup>39</sup> ELGA (2015): The ABC of... (op. cit. 139 .or.) (ingelesetik egindako itzulpen askea).





*baita lan munduan sartzen direnean lor ditzaketen ibilbideen inguruan ere; hori, era berean, lan merkatuko bereizketa okupazionalarekin egongo litzateke lotuta”.*

Hala ere, bistakoa da ikastetxeak ahaztu ezinezko zeregin konpentsatzailea duela. Itxura guztien arabera, “behaketaren eta elkarrizketen bidez gauzatutako ikerketa batzuek adieraziko lukete mutilek askotan sentitzen dutela "ez dela egokia" eta "beren identitate maskulinoaren kontrakoa dela" ikastetxean interesa adieraztea (Francis, 2000; Paechter, 1998; Warrington et al, 2000) <sup>40</sup>. Galdetu beharko litzateke ikastetxeetan nesken eta mutilen jokabide bereziaren eraginez, irakasleengan ere aurreiritzi desberdinak sortzen ari ote diren. Ildo horretan, txosten horrek berak honako hau adierazten du: *“irakasleen zeregina oso garrantzitsua izan liteke jokabideak ikasleen ikasketetarantz bideratzeko eta beren gaitasunetatik onena lortzen animatzeko; horretarako, irakaskuntzako estrategiak baliatu ditzakete”.*

Azkenik, ezin dugu ahaztu ingurune sozialak neskengan eta mutilengan duen efektua. Batetik, mutilek ikusten dutenean kirol batzuetan izarra izateak ohiko lan bat egiteak baino irabazi handiagoak ekarriko dizkiela, erraza da pentsatzea beren aisialdiko denbora gehiago igaroko dutela kirola egiten liburuak irakurtzen baino. Eta bestalde, gizarteak emakumeek etxetik kanpora lan egin dezaten eta bizitza independentea eraman dezaten animatzen baldin baditu, pentsatu behar da neskak ahaleginduko direla ikasketak ez uzten eta ikastetxean beren helburuak lortzeko gogor lan egiteko prest egongo direla.

---

<sup>40</sup> ELGA (2015): The ABC of... (op. cit. 139 .or.) (ingelesez egindako itzulpen askea).





## 8. BIBLIOGRAFIA

- Díaz-Aguado, M<sup>a</sup> José et alii (2011): *Igualdad y prevención de la violencia de género en la adolescencia*. 8. bilduma "Contra la violencia de género. Documentos". Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuna Ministerioa. [http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/libro8\\_adolescencia.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/libro8_adolescencia.pdf) (azken kontsulta 2017/01/17).
- Díaz-Aguado, M<sup>a</sup> José et alii (2014): *La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género*. 19. bilduma "Contra la violencia de género. Documentos". Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. [http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/Libro\\_19\\_Evoluc\\_Adolescencia\\_Igualdad.pdf](http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/colecciones/pdf/Libro_19_Evoluc_Adolescencia_Igualdad.pdf) (azken kontsulta 2017/01/17).
- Duque Sánchez, Elena et alii (2015): *IDEALOVE&NAM. Socialización preventiva de la violencia de género*. Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/idealovenam-socializacion-preventiva-de-la-violencia-de-genero/violencia-de-genero/20538> (azken kontsulta 2017/03/31).
- Emakunde (1993) *Emakumeak eta hezkuntza Euskal Autonomi Elkartearen*. 4. zenbakia. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub\\_informes/eu\\_emakunde/adjuntos/informe.04.mujeres.educacion.cae.eus.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/informe.04.mujeres.educacion.cae.eus.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).
- Emakunde (2005) *Hezkidetza Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak*. 21. zenbakia. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub\\_informes/es\\_emakunde/adjuntos/informe.21.coeducacioncapv.eus.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/es_emakunde/adjuntos/informe.21.coeducacioncapv.eus.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).
- Emakunde (2014): *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_vi\\_plan/eu\\_emakunde/adjuntos/VIPlan\\_final\\_eu.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_vi_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).
- EURYDICE (2011): *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*. Madril: Hezkuntza Ministerioa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Estatuko Idazkaritza. [http://eacea.ec.europa.eu/Education/eurydice/documents/thematic\\_reports/120ES.pdf](http://eacea.ec.europa.eu/Education/eurydice/documents/thematic_reports/120ES.pdf) (azken kontsulta: 2016/12/23).



- Eustat (2015): *Bi hamarkadako gizarte-aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoan denboraren erabileraren bitartez. Denbora Aurrekontuen Inkesta 1993-2013*. Vitoria-Gasteiz: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea.  
[http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_Bi\\_hamarkadako\\_gizarte-aldaketa\\_Euskal\\_AEn\\_denboraren\\_erabileraren\\_bitartez\\_1993-2013\\_Denbora\\_Aurrekontuen\\_Inkesta\\_Monografikoa\\_PDF\\_320kB/inf0013239\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_Bi_hamarkadako_gizarte-aldaketa_Euskal_AEn_denboraren_erabileraren_bitartez_1993-2013_Denbora_Aurrekontuen_Inkesta_Monografikoa_PDF_320kB/inf0013239_e.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).
- Feminario de Alicante (1987). *Elementos para la educación no sexista. Guía didáctica de la Coeducación*. Víctor Orenga, Editores.  
[http://www.educarenigualdad.org/media/pdf/uploaded/material/158\\_elementos-edu-no-sexista-pdf.pdf](http://www.educarenigualdad.org/media/pdf/uploaded/material/158_elementos-edu-no-sexista-pdf.pdf) (azken kontsulta 2016/11/17).
- FETE-UGT: *Diccionario Online de Coeducación –Berdintasunean heziz*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.  
<http://www.educandoenigualdad.com/portfolio/diccionario-online-de-coeducacion/> (azken kontsulta 2016/11/17).
- González, Ana y Lomas, Carlos (koord.) (2002) *Mujer y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia*. Bartzelona: Edit. Grao.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2009): *Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.  
[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif11/eu\\_5613/adjuntos/eskola\\_jasarpene\\_gida\\_2015.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif11/eu_5613/adjuntos/eskola_jasarpene_gida_2015.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2014): *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.  
[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e\\_Pub\\_EJ\\_hezkidetza\\_plana\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetza_plana_e.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2016): *Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetza eta koordinaziorako*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.  
[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dif11/eu\\_5613/adjuntos/hezkuntza\\_protokoloa\\_2016\\_azaroak\\_15.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dif11/eu_5613/adjuntos/hezkuntza_protokoloa_2016_azaroak_15.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2016): *Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.  
[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu\\_lgtb\\_fob/adjuntos/Protokolo\\_Trans\\_2016\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_lgtb_fob/adjuntos/Protokolo_Trans_2016_e.pdf) (azken kontsulta 2017/03/31).



- INJUVE (2011): *Jóvenes y diversidad sexual*. Madril. INJUVE-Osasan, Gizarte Politika eta Kontsumo Ministerioa. Ondorioen dokumentua hemen kontsulta daiteke:  
[http://www.injuve.es/sites/default/files/Sondeo2010diversidadsexual\\_resultados.pdf](http://www.injuve.es/sites/default/files/Sondeo2010diversidadsexual_resultados.pdf) (azken kontsulta: 2016/10/20).
- Lucini, Fernando.(1988) *Temas transversales y educación en valores*. Madril: Anaya.
- Moreno, Montserrat (1993) *Cómo enseñar a ser niñas: el sexismo en la escuela*. Bartzelona: Icaria.
- OECD (2015): *The ABC of Gender Equality in Education: Aptitude, Behaviour, Confidence*. <http://dx.doi.org/10.1787/9789264229945-en> (azken kontsulta: 2016/10/17)
- OECD (2015): ¿Qué subyace bajo la desigualdad de género en educación?. *PISA in Focus*, 49.  
<http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/pisa-in-focus/pif49espfinal.pdf?documentId=0901e72b81c7fb18> (azken kontsulta: 2016/10/17).
- Pichardo Galán, J.I. (Koord.) (2015): *Abrazar la diversidad: propuesta para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico*. Madril: Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutua.  
[http://www.inmujer.gob.es/actualidad/NovedadesNuevas/docs/2015/Abrazar\\_la\\_diversidad.pdf](http://www.inmujer.gob.es/actualidad/NovedadesNuevas/docs/2015/Abrazar_la_diversidad.pdf) (azken kontsulta: 2016/10/17).
- Save the Children (2012): *Diagnóstico sobre la atención a niñas, niños y adolescentes víctimas de violencia de género en Euskadi*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.